


Bizkaia nuklearra



- Urduña
- Bermeo
- Plentzia
- Lekeitio
- Ondarroa
- Areatza
- Markina
- Gernika
- Gerrikaitz
- Ugao
- Mungia
- Larrabetzu
- Errigoiti

Urduña

Fundazio-urtea: 1229

Fundatzailea: Lope Diaz de Haro, izen bereko bigarrena

Forua: Gasteizko forua, Logroñoko foruaren garapena

Pribilegioen hartzaileak: Kontzejua

Kokapena: Bide baten ondoan

Kokalekua: Lautadan, Nerbioi ibaitik hurbil dagoen ibar zabal batean

Altuera: 293 m

Biztanleak (2001): 3.982



Urduña Bizkaikoa da, nahiz eta Araba eta Burgos artean kokatuta egon. Hirigune nagusiaren ondoan, Ruzabal Bazarra osatzen duten auzoak daude: Belandía, Mendeika, Lendoño Goitia eta Lendoño Beitia. Guztira 33,6 km² ditu eta Bizkaiko beste edozein guneren baterako gutxieneko distantzia 8 km-koa da. Hiribururaino (Bilboraino), berriz, 40 km daude gutxi gorabehera.

Arratia-Nerbioi eskualdeko gainerako bailara estu-estuak ez bezala, Urduñakoa oso zabala eta handia da. Gainera, Urduñako ingurua bereziki laua da, Ruzabal Bazarreko herrixkak lur malkartsuagoetan daude eta.

Urduñak mendebaldean du altuerarik handiena, hau da, Burgosko probintziarekiko mugan. Hantxe dago Urduñako haitz ikusgarria (1.066 metrokoa). Geroago luze hitz egingo dugu horretaz, Erdi Aroan Bizkaia eta penintsularen barnealdea lotzeko eragin zituen zailtasunengatik. Baina haitz


ikaragarri horrek berehala egiten du behe-
ra, 200 m-raino egin ere, eta bertan ipar-
hego norabidea duen igarobide zabala
dago, joan-etorrietarako eta herri-guneak
kokatzeko leku ezin aproposagoa.

Urduñak, Bizkaiko Itsasoaren eta Medi-
terraneoaren arroen artean dagoela, bien
ezaugarriak biltzen ditu bere baitan. Men-
debaldean kokatutako Salbada mendizerra,
udalerrriaren harresi ikusgarria, da bi arroen
arteko muga, eta baita Urduña eta Burgo-
sen artekoa ere. Beraz, udalerriko ur guz-
tiak Nerbioi ibaiak biltzen ditu eta Bizkaiko
Itsasoan isurtzen dira.

Nerbioi ibaiak Delika zintzurrean (Ara-
ba) jaio ondoren zeharkatzen du Urduñako
lurraldea, eta han udalerriko bi errekan
biltzen ditu urak: Urduñan eta Lendoñon.
Urduña igaro eta gero, Amurrio eta Laudio
zeharkatzen ditu, eta Bizkaian sartzen da
berriro.

Salbada mendizerrak, uren norabidea
finkatzeaz gain, udalerriko klima ere bal-

dintzatzen du. Urduñan, barnealdeko udal-lerria izanik, ustez euri gutxiago egin beharko luke kostaldearen eragina duten eskualdeetan baino, hodeiek bertara heldu baino lehen Bizkaiko mendizerrak zeharkatu behar izaten dituzte eta. Halaxe gertatzen da, behinik behin, barnealdeko beste lurralde babestu batzuetan. Baina Salbada mendizerra izugarritzko traba izan ohi da mesetarantz doazen hodei-masentzat, eta ondorioz, daramaten zamaren zati bat Urduñan hustu behar izaten dute. Hala eta guztiz ere, Urduña kostaldea baino beroagoa da, barnealdean egoteak eragin handiagoa duelako aipatu dugun fenomenoak baino. Beraz, oso uda beroak eta nahikoa negu hotzak dira bertako klimaren ezaugarriak.



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

Urduña, hiribildua fundatu baino lehen

Bizkaia eta Urduña izenak batera agertu ziren lehen aldiz testu idatzietan, Alfontso III.aren kronika batean, hain zuzen. Alfontso I.ak penintsularen iparraldeko eskualde askotan burututako birpopulaketa-prozesuak azaltzen zaizkigu kronika horretan. Zenbait eskualde (Araba, Bizkaia eta Urduña) populatu gabe geratu zirela dio, inbaditzaile arabiarrek ere ez zirelako inoiz haietara heldu.

Alfontso III.aren kronikan Urduña azaltzeak argi erakusten du ordurako lurralde independentea zela, nahiz eta ezin dugun zehaztu independentzia hori geografikoa zen ala politikoa ere bai. Egia esan, oso zaila da auzi hori argitzea, urteetan zehar oso termino ezberdinak erabili baitira. Donemiliaga Kukulako monasterioari 1075ean egindako dohaintza batean, esate baterako, Urduñako “bailara” aipatzen da. Horrek

esan nahi du garai hartan elkarrekiko mendekotasunik ez zuten herrixka batzuk osatzen zutela Urduñako lurraldea¹. Nerbioi ibaiaren inguruko eremuetan nekazaritzan jarduten zuten herrixkak zeuden nonbait; goialdeko lurrak, berriz, egokiagoak ziren abeltzaintzarako. Hortaz, ekonomiaren aldetik, behinik behin, Urduña Bizkaia nuklearreko gainerako hiribilduetatik bereizita zegoen; izan ere, haietan abeltzaintza baitzen nagusi. “Donemiliagako botoei” buruzko dokumentuaren arabera, Urduñako lurraldeko familia bakoitzak

“beso bete lihozko oihal” eman behar izaten zion monasterio errioxarrari. Beraz, bertako biztanleak oihalgintzan jarduten zuten itxuraz, bai jantziak bai ostilamendurako arropak egiten.

1135eko beste agiri batek Urduñako lurraldean kokatutako Gabinea herriak

Donemiliagako monasterioari egindako dohaintzaren berri ematen digu. Lurraldea terminoak gutxi gorabehera bailara esan nahi zuenez, badirudi ez zela aurrerapen handirik izan lurraldearen antolamenduari dagokionez. 1192ko dokumentu batean, Alfontso VIII.ak Harruretako San Klemente monasteriotik Kalagorriko gotzain-hiriari egindako dohaintzaren nondik norakoak aipatzen dira², eta baliteke hor monasterio hitzak gerora elizate izena hartu zuen antolamendu espaziala adieraztea. Pentsatzen da “bailarako” herrixkak entitate ahulak zirela bai sozialki bai politikoki monasterioaren eremuaren barruan³.

Baina, bestetik, Urduñari emandako hiri-gutunari erreparatzen diogunean, gauzak argitu beharrean lausotu egiten zaizkigu Urduñako lurraldea hiribildua fundatu aurretik nolakoa zen jakiteko gauzatzen ari

garen azterketa honetan. Bertan zehazten denez, Gutuna Urduñako kontzejuari (“concilium”) eman zioten. Beraz, Urduña ez zen herrixka-multzo hutsa, biltzarra ere bazuen eta, ustez eskumen gehiegi izango ez zituen arren.

Egia esan, ez da batere erraza Urduñako lurraldea hiri-gutuna jaso aurretik zertan zen argitzea. Zorionez, badago hiri-gutunean erabilitako “kontzeju” terminoa argitzen laguntzen duen datu bat, aldi berean nahasmen-iturri den arren. Alfontso X.ak⁴ hiribilduari 1256an emandako pribilegioan, lurraldearen barrutia Alfontso VIII.ak zehaztu zuela dio erregeak. Badirudi, beraz, hiribildua aspalditik, XII. mendearen amaiera aldetik, zegoela fundatuta.

Pentsatzekoa da, beraz, Urduñako hiri-gutuneko “kontzeju” hitzak “bailara” edo “lurralde” terminoek baino antolamendu garatuagoa adieraztea. Baina, bestalde, Alfontso VIII.ak Urduñako lurraldean hiribildua sortu bazuen, ez da normala hiri-gutunean Urduñako “kontzejuari” ematen zaiola esatea, berez hiribildu hitza erabiltzea dagokio eta. Horregatik guztiagatik, hobe da fundazio-urtetzat 1229a hartzea, betidanik egin den moduan.

1229: Urduñak Gasteizko forua jaso. Ondorengo bilakaera politikoa

1229ko otsailaren 25ean, Lope Diaz de Harok, Bizkaiko Jaunak, eta haren emazte Urrakak hiribildu-pribilegioa eman zioten Urduñari, Gasteizko foruaren bidez. Gasteizko forua Logroñoakoaren garapena zen.

Urduñako hiribilduaren sorrerak oso lotura estua du Gaztelako koroan XII. mendearen erditik merkataritza-fluxuetan izandako aldaketekin. Mendez mende Santiagoko Bideak eta, oro har, Ekialdetik Mendebalderako ibilbideek zehaztu zuten merkataritzaren norabidea. Baina hamabigarren mendean, eta bereziki Alfontso VIII.aren erregealdian, merkataritza-harremanak Hegoaldetik Iparralderantz hasi ziren bidera-

tzen, batetik, Gaztelako ekonomiak sekulako goraldia zuelako eta, bestetik, kostalde atlantikoan oinarrizko produktuak (batik bat artilea) behar zituztelako.

Bi lurraldeen arteko hartu-emanak bideratzeko, ezinbestekoa zen kostaldea eta barnealdea lotzen zituen bidean zenbait gune sortzea, hots, lurraldea antolatzeari. Antolatze-lan horretatik sortu ziren Balmaseda, Urduña, Otxandio eta Lanestosa hiribilduak, isurialde atlantikoak eta mediterraneoak bat egiten zuten guneetan; kostaldean, berriz, Bermeo fundatu zuten itsasoko merkataritza monopolizatzeke.

Urduñaren fundatzailea, Lope Diaz de Haro, Fernando III.aren (1201-1252) laguntzaile leiala izan zen, erregeak Gaztelako koroa eskuratu ondorengo urteetan. Erregeak, laguntza horren truke, bere arreba Urraka eman zion emazteztat eta Balmaseda eta Urduña ezkonsaritzat.

Dena den, harreman bero horiek zapuztu egin ziren Lope Diazen seme Diego Lopezen garaian, eta bereziki, Lope Diazen bilobarenean –Lope Diaz de Haro, izen bereko hirugarrena–, Gaztelako errege Alfontso X.a zela. Bien arteko hika-mika ez zen gozoa izango, erregeak, azkenean, Lope Diazen Urduña eta Balmaseda kentzea erabaki baitzuen, honako hau oinarri hartuta: *“fuero es de Castilla, que, si de la donación, que el Rey da, le hazen guerra, o mal en la tierra, que la pueda tomar con fuero y derecho”*⁵. Gero, 1256ko otsailean, erregeak Urduñako forua sinatu zuen aurreko Gasteizko foruan oinarrituta. Beraz, aurrerantzean, hiribildua erregearena izan zen. Hala ere, Urduñaren eta Bizkaiko gainerako hiribilduen artean (jaunen eskuetan zeuden denak) ez zen inolako desberdintasunik sortu⁶.

1284ra arte egon zen Urduña Gaztelaren esku. Urte hartan, Lope Diazen itzuli zioten, eta horrek, fundazioa berretsi ondoren, jaurerriko maiorazkoan sartu zuen behin betiko⁷.

Haatik, gatazkak ez ziren hor amaitu, eta ondorioz, Urduñaren egonkortasunak ez zuen luzaroan iraun. Bizkaiko Jaunek Gaztelako gerra zibiletan hartu zuten parte, askotan jaurerria erabiltzen zuten operazio-etarako, eta jakina, erregeak esku hartu zuen. Antso IV.a, Fernando IV.a, Alfontso XI.a eta Pedro I.aren agintaldietan gertatu zen hori guztia. Aipatutako azken erregeak alkabalak eta herenak ordaintzera behartu zituen urduñarrak, Bizkaiko Tello jaunak hiribildua jaurerriarako berreskuratu zuen arte.

Gertaera horren ondoren ere hamaika gorabehera jasan zituzten Urduñakoek. Behin, erregearen zergalariak Gaztela Zaharraren Merindadean sartu zuten hiribildua, eta kontzejuak eta herritarrek eskaria egin behar izan zioten Enrike IV.ari, hiribildua Bizkaiko jaurerriari itzul ziezaion, Gaztelako fiskaltasuna jaurerrikoa baino askoz ere gogorragoa zen eta. Beste arazo batzuk ere izan zituzten, baina ez hain garrantzitsuak, eta azkenean, hiribildua Bizkaiko jaurerriaren barruan geratu zen betiko. Errege-erregina katolikoen garaian izan zen hori, 1480an⁸. Garai berekoa dugu, halaber, Urduñak gaur egun duen hiri-titulua ere.

Urduñako jarduera ekonomikoak Erdi Aroan

1229an hiri-gutuna jaso ondoren, Erdi Aroko garapen ekonomikoaren oinarriak finkatu ziren. Gutunaren bidez, Gasteizko forua (funtsean Logroñokoaren berdina zen eta merkataritza-jarduerak suspertzen zituen) eman zioten Urduñako kontzejuari, eta hori berebizikoa izan zen hiribildua suspertzen hasteko. Gerora ere etorri ziren, ordea, garrantzi bereko beste pribilegio batzuk, prozesu horretan oso lagungarriak.

1256an, esate baterako, Alfontso X.ak errege-forua eman zien urduñarrei. Foru horri eskerrak, Toledon, Sevillan eta Murtzian izan ezik, herritarrek ez zuten Gaztelako erresuman bidesaririk ordaindu

behar⁹. Agiri hori ikusita argi dago merkataritza puri-purian zegoela Urduñan, bestela ez zen beharrezkoa izango-eta horrelako xedapenik egitea.

Handik urtebetera, Gaztelako erregeak beste pribilegio bat eman zion Urduñako udalerrinari: Ebro ibaiaren ertzeko hainbat hiribilduren (Najera, Ozkabarte, Miranda de Ebro eta Puentelarra), Enkarterrien eta kostaldearen (Balmaseda eta Urdialis) arteko merkataritza-trafikoaren monopolioa. Horrela, merkatariek inguruetan joan-etorriak egiten zituztenean derrigorrez pasa behar izaten zuten Urduñatik. Adibidez, Gasteiztik Urdialisera zihoazenean bertatik joan behar izaten zuten¹⁰.

1288an beste pribilegio bat eskuratu zuen Urduñako herriak: Antso IV.ak azoka antolatzeke eskubidea aitortu zion. Izan ere, Urduña izan zen eskubide hori lortu zuen Euskal Herriko lehen hiribildua. Pribilegioaren arabera, azokak San Migel egunetik zortzi egunera hasi behar zuen, hau da, urriaren 7an, eta hamabost egun iraun¹¹. Ezarri zituen xedapenen artean, bat garrantzitsua izan zen bereziki: azokak irauten zuen bitartean, merkatariek eta salgaiak ezin zuten kalterik jasan, eta era berean, salgaien truke ez zuten ez bidesaririk ez bestelako eskubiderik ordaindu behar. Horiek guztiak pizgarri galanta izan ziren Urduñako merkataritzarako, izugarri erraztu baitzuten beste lurralde batzuetako merkatarien lana, eta zer esanik ez, udalerrian ere salgaien joan-etorriek gorakada ikaragarria izan zuten.

Erregeak merkatua egiteko eskubidea emateak argi erakusten du, herriz herri ibiltzen ziren merkatarien distantzia handiko merkataritzarekin batera, eskualdeko merkataritza ere hedatuta zegoela, eta opa-roa zela gainera. Eskualdeko merkataritzan jarduten zutenentzat, ibiltarientzat ez bezala, behar-beharrezkoa zen urtero soberakinak noiz saldu izatea. Bestetik, herritarrak salgaiak lanaren bidez ordaintzeari utzi eta



URDUÑAKO PLAZA

trukeak jenerotan eta dirutan egiten hasi zirenez, nekazariak gehiago ekoizten eta saltzen hasi ziren dirua irabazteko.

Beraz, urduñarrek Erdi Aroan irabazita-ko dirutzaren iturburuak bertako baliabideak eta hiribilduaren kokapen estrategikoa izan ziren. Lehenago aipatu dugun moduan, Urduña oso leku egokian zegoen, eta laboreetan Bizkaiko gainerako hiribilduetatik bereizteko aukera ematen zion horrek.

Ruzabal Batzarrean abeltzaintza zen jarduera nagusia, leku garaiagoa zen eta; Urduñako lautadan, aldiz, bertako sailei eta klimari esker, Bizkaiko gainerako lurraldeetan apenas ikusten ziren produktuak landatzen zituzten, zerealak esate baterako. Dena den, zerealaren ekoizpena ez zen herritarren beharrak erabat asetzeko adina-

koa, eta kontzejuak beti izan zuen hornidurarekiko kezka.

Mahastiak eta sagarrondoak, berriz, nahi adina zeuden, herritarren beharrak hornitzeko beste. Gainera, hamarrenak ordaindu behar izaten zituztela kontuan hartuta, badirudi ekoizpena handia zela.

Bestalde, demografia hazi ahala, abeltzaintzak indarra galdu zuen, biztanle-igoerari aurre egiteko lur berriak landatu behar izan zituztelako. Hala ere, inguruetan auzo-larre handiak zeudela kontuan hartuta, badirudi abeltzaintza nahikoa hedatuta egon zela beti. Horien adibide dugu Urduñako Zelaia, hirigunearen ondoan dagoena.

Baina, lehen esan dugunez, bertako baliabideak garrantzitsuak baziren ere hiribildua garatzeko, ezbairik gabe, kokapena are garrantzitsuagoa izan zen: penintsularen

barnealdearen eta kostalde atlantikoaren arteko lotunea zen Urduña. Gainera, 1273an Gaztelako Meseta eta 1296an Paduren Ermandadea sortu zirenean (azken hori Santander, Laredo, Urdialis, Gasteiz, Bermeo, Getaria, Donostia eta Hondarribiako kontzejuen artean), berpiztu eta suspertu egin zen Urduñari egokitu zitzaion lotura-



HARRESIZ INGURATUTAKO BIGARREN
ESPARRUKO KUBOA, HIRIBILDUAREN HEGO-
EKIALDEKO ANGELUAN

eginkizun pribilegiatu hura. Erdi Aroan, Gaztelaren eta Bizkaiaren arteko merkataritza-harremanak eta Gaztelaren eta Europa iparraldearen artekoak izan ziren urduñarren arrakastaren oinarriak: lehenengoan zereala eta burdina salerosten zituzten eta bigarrean artilea eta produktu manufakturatutak.

Esanak esan, merkataritzan lotura-eginkizunari eustea ez zen beti erraza izan. XIV. mendean merkataritzaren gainbehera hasi

zen, eta horrek porturik bizienetan (Bilbon eta Portugaleten) ez beste guztietan izan zuen eragina. Bermeoko portuak, esate baterako, demaseko atzerakada izan zuen. Gauzak horrela, Urduñak eginahalak egin behar izan zituen inguruko merkataritzan zuen nagusitasuna ez galtzeko, inguruko hiribilduak ere horretan esku hartu nahian ari ziren eta.

Urduñarrek, ordea, XIV. mendeko egoera latzari aurre egitea lortu zuten, Tello jaunari esker. 1366an, Tello jaunak hiribilduko pribilegioak berretsi eta zergak ordaintzetik salbuetsita utzi zituen herritarrek. Handik aurrera ez zuten ordaindu behar izan ez alkabalarik, ez foru-txanponik, ez mantenuzergarik, ez gerrako gastuetarako hamarrenik, ez bestelakorik¹².

Arazoak arazo, XIV. mendeko gainbehera gogorraren ondoren, XV. mendean susperraldia etorri zen, eta horrek behin betiko bultzada eman zion Urduña hiribilduari. Lehen ere adierazi dugu Gaztelaren eta Bizkaiko Itsasoko kostaldearen eta Gaztelaren eta Europa iparraldearen arteko merkataritza oparoa izan zela XIV. mendera arte, baina ordutik aurrera izugarri aberastu zen, besteak beste, eremu ekonomiko bakoitza ekoizpen jakin batzuetan espezializatu zelako. Gainera, Atlantikoak Mediterraneoak baino indar handiagoa hartu zuen, eta horrek mesede egin zien Bizkaiko hiribildu guztiei eta, bereziki, merkataritzan jarduten zutenei. Bestetik, Urduñatik igarotzen zen bideari berehala kendu zizkioten zergak, hainbat aldiz kendu ere (besteak beste, 1366an Tello jaunak). Badirudi, beraz, Koronak eremu hori sustatu egin nahi zuela.

Labayruren *Historia General del Señorío de Bizcaya* lanean, 1488an Urduñako eta Balmasedako portuetara kostaldetik ekarritako produktuen zerrenda dator: ehunak ziren nagusi, baina metalak, erremintak, espeziak, drogeria-gaiak, zapatak eta sonbreiruak ere heldu ziren¹³. Horrenbeste salgai egonda, jende asko beharko zuten gor-

detzeko, pisatzeko, zaintzeko eta antzeko zereginetarako¹⁴.

Merkataritza-gune nagusiak hiribilduko azokak eta feriak ziren.

Azoketara inguruko bizilagunak etortzen ziren gehienbat; ferietara, berriz, salgai eta saltzaile exotikoak. Aipatu dugun moduan, 1288an Antso IV.ak 15 eguneko feria antolatzeko baimena eman zion Urduñari; bada, datuen arabera, 1492an bi egiten zituzten urtero: bata maiatzean eta urrian bestea. Makina bat salgai pilatuko ziren horrelakoetan, eta bertako bizilagunek ere polito irabaziko zuten, feriara etorritakoei ostatua, jana eta abar ematen.

Hiribilduaren nahia bere esparruko merkataritza ahalik eta gehien kontrolatzea zen, batetik, salmenten gaineko eskubideez baliatzeko (merkataritza aritu eta saltokiak izategatik, salgaiak deskargatzeagatik, pisu eta neurriak erabiltzeagatik... kobratzeko), eta bestetik, behar zuen hornidura ziurtatzeko. Azokak eta feriak ezin aproposagoak ziren horretarako, salgai guztiak leku berean eta batera egoten zirelako.

Behar zuen hornidura ziurtatzeko, Bizkaiko gainerako hiribilduetakoek bezala jokatu zuten urduñarrek ere: inguruetan joan-etorriak egiten zituzten merkatariek hiribildutik pasatzera behartu zituzten. 1257tik Urduñak eskualdeko merkataritzaren monopolioa bazuen ere, horrek ez zituen arazo guztiak konpondu, ez baitzen erraza betearaztea. Gainera, Urduña liskarretan zegoen bere auzokide Aiarako jaunarekin: haren ustez, bere jaurerrira zihoazen produktuek ez zuten zertan Urduñatik pasatu.

Produktuak hiribilduan sartzen zirenean, kontzejuak bi egiteko izaten zituen: kontsumitzailea babestea eta bertako produktuei lehentasuna ematea kanpoko produktuen aldean. Lehen helburua lortzeko, hauek guztiak egiten zituzten: produktuak egoera onean zeuden egiaztatu, pisuak eta

neurriak zuzen jarri iruzurrik ez egiteko, salgaiak biztanle guztiei berdin-berdin eskaini, gero oso garesti saltzeko asmoz produktuak erosi eta erosi ibiltzen zirenei neurria jarri eta abar. Bertakoen alde egiteko, berriz, lehenengo bertako produktuak saltzen zituzten eta gero kanpokoak. Horrela, bertako produktu guztiak saldu egingo zirela ziurtatzen zuten, eta herriko ekoizleek ez zuten galerarik izaten.

Komunikabideak

XIV. mendetik aurrera garapen ekonomiko izugarria izan zuen jaurerriak, eta Bilbo bihurtu zen garapen horren ardatz. Merkatariek hiru bide erabiltzen zituzten Bilborako joan-etorrietan: mendebaldekoa (Balmasedatik), ekialdekoa (Durangotik) eta erdiko (Urduñatik). Bizkaia osoa saiatu zen komunikabideak sustatzen, baina Bilbo nagusitu zen zeregin horretan.

Bilbo penintsularen barnealdearekin lotzeko zeuden hiru aukera horietatik, zailtasunak zailtasun, merkatariek erdiko bidea zuten gogokoen, eta horrek Urduñari egin zion mesederik handiena.

Gaztelarainoko erdiko bidea Bilboko San Anton zubian hasi, Ollarganetik jarraitu eta hegoalderantz abiatzen zen, Nerbioi ibaia-ren ibilguari jarraituz gune garai batetik, ur-goraldi ugarien arriskua sailhesteko. Araba zeharkatu ondoren, Urduñara heltzen zen, eta han, bidaiaria osoko trabarik handienarekin egiten zuten topo merkatariek: seihun metro inguruko desnibela zuen kare-harrizko hormarekin. Horrela, bada, Urduñan mando-bide bat hartzen zuten mendatearen goiko aldera heltzeko. Bihurgunez jositako amaierarik gabeko zazpi kilometro ziren, eta bidaiariek eta animaliek gogaituta eta ahituta bukatzen zuten. Urduña mendatea (g.g.b. 900 m-koa) erdietsitakoan, bideak beheara egiten zuen pixkanaka-pixkanaka Berberana herriraino (600 m, Losa bailara). Gero, Puentelearrara jotzen zuen, eta han, Ebro ibaia zeharkatu

ondoren, Ameyugora, Pancorboko zintzuraren sarreran kokatutako herrira, heltzen



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

zen. Ameyugon bitan banatzen zen bidea: bata Errioxara hartzen zuen eta Burgosera besteak (La Bureba zeharkatu ondoren).

Esan dugunez, urduñarren mesedetan, bilbotarrek erdiko bidea aukeratu zuten Mesetara joateko, eta erdiko bide horretan, igarobiderik laburrena baina zailena. Itzulnguru txiki bat eginda, bazeuden igarobide errazagoak ere: Untzakoa eta Altubekoa, esate baterako¹⁵.

Hirigintza

Bizkaiko Erdi Aroko hiribilduen artean Urduñak du planorik konplexuena. 1256an errege-forua jaso zuenean, orain Antiguako Amaren santutegia dagoen lekuan zegoen kokatuta, baina forua eskuratu ondoren, lautadara, egungo kokagunera, joatea erabaki zuten. Bizkaian ere antzeko joera nagusitu zen, alegia leku garaietatik lauta-

detara joatekoa, batetik, lautadek nekazari-tzarako aukera handiagoak zituztelako, eta bestetik, bideak lautadetatik igarotzen zirelako.

Hasieran, jaurreriko gainerako hiriguneren antzekoa zen Urduña: hiru kale paralelo eta zeharkako kantoiak zituen. Kale eta kantoien arteko gurutzaduren ondorioz, barruan orubeak zituzten etxe-uharte bi-koitzetan zegoen antolatuta. Hasierako hiribilduak Gasteiztik zetorren bidearekin zuen lotura, ez Bizkaiko Itsasora zihoanarekin. Horregatik, kale nagusiek ekialdetik mendebalderako norabidea zuten, Gasteizerako bideari jarraituz. Bidea hiribilduaren erdi-erditik igarotzen zen: Harategi kaletik gutxi gorabehera. Kale/bide horren iparraldean beste bi kale egin zituzten: Artekale eta Andre Maria edo Burdin kalea. Kaleok bost bat metroko zabalera zuten, baina kantoiak nahiko estuak ziren, bi metro ingurukoak. Hiribilduaren lehen harresiak hiru kale horiek eta zeharkako bi kantoiak inguratu zituen. Gaur egun ia ez dago hasierako harresiaren aztarnarik.



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

Andre Maria kaleko ataria edo Atari Iluna eta egungo udaletxearen ondoan dagoen babes-dorrea dira geratzen diren aztarna bakarrak. Hiribildua lautadan egonik, harresia behar-beharrezkoa zen herritarrak babesteko.

Antza denez, denbora batez harresi barruan nahikoa leku zegoen herritarrak

bizitzeko. Baina XIV. mendean arazoak hasi ziren sortzen, Burgosetik Bizkaiko Golkora-ko merkataritzaren gorakadaren eraginez gero eta jende gehiago etorri baitzen bizitzera, eta hiru kaleetan ez zegoen guztientzako lekurik.

Arazo hori konpontzeko taxutu zuten Urduñako egungo planoak. Begiratu batean ez dirudi oso plano koherentea, baina Burgostik kostalderako bidea Gasteizera zihonaren aldean gero eta garrantzi handiagoa ari zenez hartzen, bi aukera zeuden: Burgoserako bidea (orduan hiribilduaren mende-baldetik igarotzen zena) herri barrutik pasaraztea edo hiribilduko planoak bidearen norabidearen arabera egokitzea.

Azkenean, bigarrena aukeratu zuten bi arrazoiengatik: Burgoseko bidera egokitze eta irtenbide errazagoa zelako hirigunea handitzeko premiari begira.

Ez dago oso argi planoaren aldaketa hori noiz egin zuten, baina 1373ko ordenantzetan "barruko hiribildua" eta "kanpoko hiribildua" terminoak erabiltzen dira. Beraz, XIV. mendearen bukaera aldera bazegoen zerbait eraikita jatorrizko hirigunetik kanpo, eta bigarren harresia bukatu gabe zegoen.

Horrela, bada, une jakin batean (segu-rueñez XIV. mendean) handitu egin zuten hiribildua, eta etxe berriak jatorrizko plano-arekiko elkarzut eraiki zituzten. Ez dakigu zehatz-mehatz zabaltze-lanak batera edo ondoz ondoko bi fasetan gauzatu zituzten. Beharbada, lehenengo Zaharra, Frankoak, Orruño eta Donibane kaleak egingo zituzten Bilborako irteeran, bi kantoietan estuk zeharkatzen zituztela, eta handik denbora batera, Burgos, Berria eta Kantarranas kaleak, besteen parean eta hego-ipar norabidean. Herri berriko kaleak zaharrekoen zabalera berbera edo antzekoa zuten; kantoietan ez, ordea. Izan ere, kantoietan berriak hiru metrotik gorako zabalera zuten, lehengoek halako bi.

Bi zabalguneen eta herri zaharreko mende-baldeko harresiaren artean eremu zabala


geratu zen: gaur egungo plaza, ordutik hona udalerrira osoaren ardatza izan dena. Bestalde, atariak egin zituzten herri zaharra eta plaza elkarri lotzeko. Egundak atari bakarra geratzen zaigu: lehen aipatu dugun Atari Iluna. XVI. mendean, atariaren erabileraren inguruan sortutako auzien arabera (geroago adieraziko ditugu horien nondik norakoak), badirudi azaldu dugun antolamenduak mende horretaraino iraun zuela.

zegoela oso hedatuta, eta horregatik esaten da, hain zuzen, Urduñako planoak jaurre-riko berezietakoa dela. 1535ean, sute baten ondorioz, Urduñako txoko guztiak kiskalita geratu ziren, eta berriro eraikitzean Erdi Aroko ereduari jarraitu zioten. Beraz, hiribilduak lehen mendeetan egungo hiriaren oso antzeko egitura izango zuten ziur aski.

Hiribildua zabaltzeko lanak bukatutakoan, hiru multzoen eta plazaren inguruan harresia eraikitzeko beharra zegoela ikusi zuten. Harresi berriaren ezaugarri tekniko-aren arabera badirudi eremu osoa, San Frantzisko atariaren ondoko gunea izan ezik, 1500ekoa dela gutxi gorabehera. Gune horretan kubo zilindriko bat dagoenez, pentsatzekoa da lehenago eraiki zutela¹⁶. Harresia harrizko eraikuntza-lan sendoa da: hainbat lodiera ditu (gunerik estuene-tan metro batetik gorakoa) eta 8 metroko garaiera.

Eskuairatu gabeko harlanduzko bi horma-atalek osatzen dute harresia. Horma-atalak mortairu ugari zementatuta eta barrutik harri txiki erregularrez beteta daude. Kare-harria erabili zuten, inguruetan oso ugaria baitzen. Harria landu gabe dago eta leunena kanpoaldea da¹⁷.

Harresiak ia kilometro bateko luzera zuten, eta kuboak, matakanak eta almenak zituen. Barrualdean sei hektarea inguru zituen, jaurre-riko handienetakoa izango zen ziur aski. Andre Maria eliza kanpoan zegoen hasieran, baina XV. mendeko zabaltze-lanak amaitutakoan, harresiaren



atal bihurtu zen, Erdi Aroan oso ohikoa baitzen elizak hiriguneetako babes-elementutzat hartzea.

Andre Maria elizaren burualdeak gotorleku-itxura bikaina dauka. Kontrahormen arteko adarbe edo erronda-pasabide irtena hiru moldura sendo horizontalen gainean dago. Arabako elizek ere –adibidez Aguraingoak– babes-sistema bera dute. Bizkaian, berriz, ez da horrelakorik ikusten, “andanak” erabili zituzten eta.

Urduñako Andre Maria eliza barne hartzen zuen harresi hartan kale nagusietara ematen zuten bost ate zeuden gutxienez. Bi iparraldean: Orruño, izen bereko kalea Getxa muinoarekin eta Zedelikarekin lotzen zuena, eta Mikel Deuna, kale Zaharretik Bilborako bidera zihoana. Ekialdean, Harategi kalearen bukaeran, Santa Marina atea zegoen, eta Gasteizerako bidera ematen zuen. Hegoaldean berriz, San Julian edo San Frantzisko ateak Burgoserako bidea eta izen bereko kalea lotzen zituen. Azkenik, mendebaldean, Antiguako atea zegoen, santutegirako bidearen hasieran.


Hiribildu ondoko muino batean, gaztelua ere eraiki zuten harresiak eskaintzen zuen babesaren osagarri. Ordutik, Gazteluaren muinoa esaten zaio leku horri. Ez

dakigu noizkoa den zehatz-mehatz, baina 1288rako hor zegoen behintzat, urte hartan Gaztelako Antso IV.ak konkistatu egin baitzuen. Hasieran herritarrak babestea zen gazteluaren zeregina, baina XV. mendearen bigarren erdian Aiarako jaunek hiribildukoak presionatzeko erabili zuten.

Bere unerik gorenean, jaurerriko gaztelurik handiena izango zen ziur aski, baina tamalez, urduñarren eta aiarraren arteko liskar amaigabeak bukatu zirenean, bota egin zuten eta hondarrak beste lan batzuetarako erabili.

Plazari dagokionez aipatu behar da, Gaztelako hiriguneetako elementu bereizgarri hori Bizkaian ez

Harresiarekin ere antzeko zerbait gertatu zen. Aiararren kontrako gatazkak iraun zuen bitartean, hiribildua babesteko balio izan zuen, baina behin gatazkak amaituta koan, hirigunea mugatzeko eta salgaien joan-etorria zaintzeko baino ez zuten erabiltzen. Dena den, urteen poderioz, eginkizun horiek ere bertan behera utzi zituzten eta, gaztelua bezala, hiribilduko eraikuntza-lan ugaritarako erabili zuten, batik bat jauregiak, etxeak, industrializazio aurreko instalazioak eta eraikin erlijiosoak egiteko¹⁸.



URDUÑAKO ANDRE MARIA ELIZAREN OINPLANOA
ETA BURUALDEKO ADARBEAREN ARGAZKIA

Oharrak

1. Canales Cano, A.M.: *Orduña. Estudio Histórico-Artístico*. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1997. 35. or.
2. Rodríguez Lama, I.: *Colección diplomática medieval de La Rioja*. III. liburukia, Logroño, 1979. 102-103 orr.
3. García de Cortázar, J.A.: "*Poblamiento y organización social del espacio vasco en la Edad Media*" Munduko Euskal II Biltzarrean. II. liburukia, 204. or.
4. Iturriza, J.R.: *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Arturo liburudendaren arg. Bilbo, 1967, II. liburukia, 203. or.
5. Crónica del Rey D. Alfonso Décimo, XXXI. kap. BAE, 66, 27. or.
6. Canales Cano, A.M.: *Orduña...* Op. cit. 43. or.
7. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea. Bilbo, 1968. II. liburukia, 17. eranskina, 800. or.
8. Urduñak Bizkaiko jaurerrian izandako egoeraren bilakaera ondorengo lanean azaltzen da Monreal Cía, G.: *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya. (Hasta el siglo XVIII)*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1974. 44-46. orr.
9. Iturriza, J.R.: *Historia General de Vizcaya...* Op. cit. II. liburukia. 203. or.
10. Canales Cano, A.M.: *Orduña...* Op. cit. 45. or.
11. Iturriza, J.R.: *Historia General de Vizcaya...* Op. cit. II. liburukia, 205-206. orr.
12. Canales Cano, A.M.: *Orduña...* Op. cit. 78. or.
13. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Vizcaya*. Op. cit. III. liburukia, 424-431 orr.
14. Canales Cano, A.M.: *Orduña...* Op. cit. 80. or.
15. García Merino, L.V.: *La formación de una ciudad industrial. El despegue urbano de Bilbao*. HAEE/IVAP, Bilbo, 1987.
16. Ikus Bizkaia: *Arqueología, Urbanismo y Arquitectura histórica*. I. liburukia. Deustuko Unibertsitatea-Bizkaiko Foru Aldundia. 1990. 435-436 orr.
17. Canales Cano, A.M.: *Orduña...* Op. cit. 290. or.
18. Salazar, J.I.: "*Transformaciones y permanencias en la muralla de la ciudad de Orduña (siglos XVI-XIX)*" *Historia-Geografía. Cuadernos de Sección*, 21. Tokiko historiari buruzko III. jardunaldiak, Hirigunea historian zehar. 1993.

Plentzia

Fundazio-urtea: 1299

Fundatzailea: Diego Lopez de Haro V.a, Bizkaiko jauna

Forua: Logroñoeko forua

Pribilegioen hartzaileak: Populatzailleak

Kokapena: Butroe ibaiaren ahoaren barnealdeko portuan

Kokalekua: Aldapa txiki batean, uren gainetik

Altuera: 4 m

Biztanleak (2001): 3.643



Plentziako udalerria, Plentzia izenez ere ezagutzen den Butroe ibaiaren behealdean dago kokatuta. Ibaiaren ahotik ibaiaren barnealdera hedatzen da, eta Gortiz, Lemoiz, Gatika, Laukiz, Urduliz eta Barrika udalerriak ditu mugakide. Hedaturaz ez da udalerririk handia, baina ezta txikia ere: 11,7 km² ditu guztira. Inguratzen duten muinoen erliebea leuna da oso. Hain zuzen ere, muino horietako batean zegoen Erdi Aroko hiribildua. Plentzia-Mungia eskualde osoko paisaian ere Plentziakoaren ezaugarri berberak dira nagusi: erliebe leuna eta altuera txikiak.

Bilbok eragin nabarmena du Plentzian, bertatik bertara ez dauden arren. Orain areagotu egin da, gainera, bien arteko harremana, Bizkaiko hiriburuko metroari esker. Ondorioz, Plentziako eraikuntza-lanek erruz egin dute gora, batez ere bigarren etxebizitzaren alorrean.


Plentzia aldeko lehen giza aztarnak aspaldi-aspaldikoak dira, Plentziako itsasa-

darraren eta Armintzaren artean Eneolito-Brontze garaiko silexezko materialak aurkitu baitituzte.

Erromatarren garaiari dagokionez, Adriano enperadorearen agintaldiko txanpon batzuk eta Neronen brontzezko bat ere agertu dira, baina bere testuinguru arkeologikotik kanpo. Bistakoa da, beraz, erromatarrek Plentziako itsasadarrean zehar nabigatu zutela, Nerbioi eta Mundakakoetan bezala. Dena den, ez zuten asentamendu egonkor garrantzitsurik sortu. Izan ere, itsasadarrek ipar-mendebalde norabidea duenez, korrante eta olatu handiak sortzen ziren kanalaren ahoan, eta ondorioz, ontziei kostatu egiten zitzaizkien sartzeara eta irtetea. Nerbioi eta Muskiz itsasadarretan ere arazo berbera zegoen, eta han ere erromatarrek ez zuten portu garrantzitsurik sortu.

Hiribilduaren fundazioa

Plentzia hiribildua 1299 urtean fundatu zuten Placencia izenarekin, eta izen hori



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

PLENTZIAKO UDALERRIA


izan zuen XVI. mendera arte. Urte hartan, Diego Lopez de Haro Bizkaiko jaunak Gaminiz hiribildua berriro sortzea erabaki zuen: *“nuebamente población, et villa en el lugar do la obo fecha Lope Diaz mi Abuelo”*¹. Beraz, 1299ko hiri-gutunaren bidez, bigarren aldiz fundatu zuten hiribildua, aurretik porrot egin zuen eta. Egia esan, ez dakigu benetan zer gertatu zen. Lope Diaz 1236an hil zela kontuan hartuta, hasierako hiribildua urte batzuk lehenagokoa izango zen. Kontua da, Butroe ibaiaren ahoan kokatutako jatorrizko hiribilduaren aztarna bakar bat bera ere ez zaigula geratu.

Hori dela eta, Plentziako hiribilduaren historia XIII. mendearen bukaera aldean hasten dela esaten da. Bilbo baino urtebete lehenago fundatu zuten, beraz. Bestalde, garai hartan portuak barra-barra sortu zituzten jaurren. Ordura arte hiribildu bakarra zegoen kostaldean: Bermeo, porrot egindako Plentziako hiribilduaren urte bertsuetan sortua. Plentzia berriro fundatu eta 1300 urtean Bilbo fundatu ostean, ondo-

rengo portuak sortu ziren kostaldean: Portugalete (1322), Lekeitio (1325), Ondarroa (1327) eta Gernika (1366). Bizkaiko kostaldea ondo hornituta geratu zen, hortaz.

Plentzia hiribilduko hiri-gutunaren bidez, Logroñoko foruaren pribilegio eta askatasunak eskuratu zituzten bertakoek. Zama ugaritatik salbuetsita geratu ziren: *“de pechos, et de todas bereas, tambien de fonsarredas, et enmiendas, et de oturas, et de manerías, como de todas las otras cosas”*. Bizkaiko jaunak, Logroñoko foruaren estatutu juridiko pribilegiatuarekin batera, ondorengo eremuak eman zizkien: *“desde como toma el Bocal de Gorliz ribera de la mar fasta el termino de Santermua dentro, et dende a Andraca et al bado de Arribai de gana fasta el termino de Santa Maria de Barrica, que es ribera de la mar, con todas las anchuras, et egidos, et montes, et aguas, et lugares que en los dichos terminos ha ansi como Don Lope Diaz mi aguelo les concedio et amojonado quando esta Puebla fizo”*. Plentziako biztanleek lurra lantzeko, landatzeko, erosteko eta saltzeko eskubidea zuten, bai eta gizaki libreei zegozkien gainerakoak egiteko ere. Bizkaiko jaunak hiribildu berriari bultzada eman nahi zionez, bertan zituen nekazariak entregatu egin zituen. Lemoiz, Gorliz eta Barrikako monasterioetako nekazariak izan ziren salbuespen bakarrak, ez baitzuen monasterioetakoek lursailak, hamarrenak eta gainerako eskubideak gal zezaten nahi. Bizkaiko jaunak, baina, beste hainbat pribilegio ere aitortu zizkien: Isogiza mendia, bere jabetzakoa izaki, herritarren esku utzi zuen; atezergak, bidesariak, hogeita hamarrenak eta zigorrak ordaintzetik salbuetsi zituen; eta astean behin, larunbatetan, azoka eta, urtean behin, Kandelarioko Santa Maria inguruan, hamabost eguneko feria (zergarik gabea eta libre) antolatzeko baimena eman zien.

Ikusten denez, hiri-gutunaren xedapenetan barnealdeko hiribilduetan nagusi izaten diren gaiak finkatzen dira gehienbat, izan



ere, forua Logroñokoa baita. Badaude, ordea, itsasoari loturiko xedapenak ere, asko ez diren arren. Kostaldeko gainerako hiribilduetako hiri-gutunei erreparatuz gero, Plentziako hiri-gutuna da, Portugaletekoarekin batera, itsasoko jarduerak argien zehazten dituen. Esate baterako, Bizkaiko jaunak baleak harrapatzeko eremua mugatu zuen: *“ballenas matar del agua que corre por medio de Barquero fasta Portugalete”*. Era berean, ontziak nahi zuten lekuan gordetzeko baimena ere eman zien. Abantaila horiei guztiei esker, Plentzia Bizkaiko kostaldeko porturik garrantzitsuenetakoa izan zen Erdi Aroan, bai merkataritzan, bai arrantzan lanetan. Ildo horretatik, jaurerrian gauzatu-tako sutegi-kontaktaren arabera, 1514an 185 su zeuden Plentzian, kostaldeko beste hiribildu batzuetan (Ondarroa, Gernika eta Portugaleten) baino gehiago, beraz².

Asteko azokan eta urteko ferian jarduera ekonomikoak inoiz baino biziagoak izango ziren hiribilduan. Edozein modutan, Erdi Aroaren amaieran, jaurerriko gainerako hiribilduetan bezala, asteko azoka gainbeheran hasi zen, salgaiak egunero saltzen zituzten dendak ere bazeudelako eta horiek biztanleen premiei hobeto erantzuten zitelako. Azoka eliza ondoko plaza irekian egiten zuten, huraxe baitzen lekurik gehien zegoen eremua.

Hiribilduaren egitura fisikoa

Plentzia hiribildua Butroe ibaiaren azken meandroaren ondoan zegoen. Itsasotik oso hurbil egonik, marearen eragina izugarria zen, baina halere, olatuen erasotik babestuta zegoen. Ibai ondoan, hegoaldera ematen zuen malda batean zegoen kokatuta, eta garai hartan jaurerriko hiribilduetan

nagusitu zen eraikuntza-ereduari jarraitu zion. Hiru kale zituen: Goienkale, Artekale eta Bekokale, hirurak itsasadarrarekiko paralelo. Eta kaleok bi kantoik zeharkatzen zituzten.

Bizkaiko hiribildu gehienetan kantoiak oso estuak ziren, beren eginkizun bakarra kaleak elkarrekin lotzea zelako. Bilbo, Urduña eta Markinako hiribilduak ditugu horren adibideak. Plentzian, berriz, kantoiek kaleen zabalera bera zuten, bost pausokoa, hain zuzen. Izan ere, Plentziako kantoien egitekoa ez zen kaleak lortzera mugatzen. Aitzitik, kantoiak ziren hiribilduaren eta ibaiertzaren arteko lotuneak, kaleak itsasadarrarekiko paraleloak baitziren, lehorreko bideen norabideari jarraiki. Adibidez, Mungiako bidea udalerraren ondolik igarotzen da orain, baina orduan, zeharkatu egiten zuen Artekaletik barrena. Beraz, badirudi kantoien eta kaleen zabalerak lotura zuzena zutela hiribilduan betetzen zuten eginkizunarekin³.

Kale eta kantoiez gain, portua eta eliza zeuden herriaren egitura mugatzen. Eliza goi-lautada batean zegoen, eta berori zen Erdi Aroan udaleko bizitzaren ardatza.

Elizaren ondoan, plaza txikitxo bat zegoen, eta esan beharra dago Bizkaiko hiribildu gutxi zutela halakorik. Bilbo, Balmaseda, Durango eta Plentzia dira plazarik handienak zituzten Bizkaiko hiribilduak. Gainerakoetan, plaza izatera heltzen ez zen leku txiki bat zegoen parrokiaren ondoan. Plentzian, elizaren aurreko gunea laua eta gailena zenez, plaza hiriko bizitzaren gune bihurtu zen, bertan gauzatzen baitzituzten ospakizun erlijiosoak (parrokiaren bidez), jarduera ekonomikoak (azoka hantxe egiten zuten), politikoak (Butroetarren gotorlekua eta udaletxea bertan zeuden) eta sozialak (meza-osteetan eta beste hainbatetan herri-tarrak han elkartzen ziren).

Erdi Aroan, bestalde, harresi exentua eraiki zuten hiribildu osoa inguratzeko. Gaur egun ia ez daukagu haren aztarnarik,

baina XIX. mendean gehiena zutik zegoen, Madozen garai hartako grabatuan ikusten denez⁴.

Gaur egun, plazara ematen duen Santiagoko arkuak da zutik dirauen harresi-atal bakarra. Erdi-puntuko arku handia da, XVI. mendean-edo eraikia. Beraz, lehendik zegoen beste baten gainean egin zela esan dezakegu⁵.

Adierazi dugun moduan, Santiagoko arkuak zeharkatu ondoren, plazara heltzen gara, eta bertan daude hiribilduko hiru eraikuntzarik garrantzitsuenetakoak: parrokia, Butroetarren etxea eta dorrea.


Plentziako parrokia Done Maria Madalenari dago eskainita. 1299ko hiri-gutunean Bizkaiko jaunak eliza eraikitzeke agindu zion hiribilduari: *“la Iglesia, que haides de usar a vecindad para los fijos de buestros vecinos ansi como es la de Bermeo; et retengo el tercio de los diezmos de esta iglesia cumplidamente para mi”*. Ez zaigu hasierako eliza haren aztarna bakar bat ere geratu, baina bai XV. mendean burututako handitze-lanen emaitzarinak. Eliza txiki sendo-sendo da, gotikoa eta oso berezia Bizkaiko arkitektura-lanen artean, gehiago duelako Galiziako itsas hiribilduetako elizen tankera hemengoena baino.

Elizak basilika-oinplanoa du, pilareak ebakidura oktagonalekoak dira eta eraikuntza-elementurik nabarmenena fatxada-ko dorre-elizpea da. Babes-dorrea zenez, oso itxura sendoa dauka. Beste eginkizun batzuk ere betetzen zituen, ordea: kanpandorra ere bazen, eta itsasadarreko nabigazioa kontrolatzeko talaia eta itsasargia ere bai. 1522 inguruan eraiki zela uste da, sasoi horretan ibiliko baitziren, nonbait, eraikineko gainerako lanak bukatzen⁶. Martin Saenz de Gareca maisuak eraiki zuen dorrea, eta beharbada, eraikin osoaren zuzendari ere izango zen.

Hasieran egurrezko teilatua zuen, baina XIX. mendean aldatu egin zuten, erabat hondatuta zegoelako. Severino de Achuca-



PLENTZIAKO AIRETIKO BISTA GAUR EGUN ETA ERDI AROKO HIRIBILDUA
País Vasco desde el cielo (Banco Santander, 1993) lanean argitaratutako Plentziaren argazki gainean egindako fotomuntaketa



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez



DONE MARIA MADALENAREN ELIZA

rrok aurkeztu zuen proiektua. Oso proiektu garestia zenez, aldaketa batzuk egin zizkieten benetan gorpuztu baino lehen. 1887tik aurrera hasi ziren eraikitzen. Horrela, bada, Done Maria Madalenaren egungo teilatua zurgintza-lan neogotikoaren eredu paregabea dugu. Viollet le Duc-en marrazkietan dago oinarrituta, eta bertakoen eta etorkinen diruarekin ordaindu zuten.

Elizaren ondo-ondoan Butroetarren dorrea (Torrebarri) dago. 1603an, goitik behera berritu ondoren, leinu horren armari dotorea jarri zioten. Armariaren euskarazko inskripzioa nabarmendu behar da, hizkuntza horretan idatzitako testu epigrafikorik zaharrenetakoa da eta. Gerora, dorreari berrikuntza-lan ugari egin zaizkio zeregin zibiletarako egokitzeko, eta beraz, dagoeneko ez dauka hasierako ukitu militar hura, horrelako hiri-eraikuntzetan hain ohikoa zena.

Azkenik, dorreaz mintzatuko gara. Hiribilduko kale-sarean kokatutako eraikin noble horrek eginkizun publiko ugari bete izan ditu denboran zehar: hasieran, udaltxea izan zen; gero, udal-epaitegia eta postetxea hantxe egon ziren; eta gaur egun, udal-liburutegiaren egoitza da. Arkitekturen aldetik, harlanduzko bolumen kubiko ederra dugu, baoak irregularki banatuta dauzka eta erdi-puntuko arkutik sartzen da barrura. Beraz, horiek guztiak kontuan hartuta, Errenazimenduko arkitektura-lana dugu dorrea. Fatxadako inskripzioak zehaztu du nork eta noiz eraiki zuen: Martin Perez de Placenciak 1562an. Bestalde, hiribilduaren eta errege-erregina katolikoen armariak ere badituenez, argi dago aspalditik izan zela eraikin publikoa.

Plentziako Erdi Aroko etxeei dagokienez, gaur egun ez da haien arrastorik gertatzen, 1437ko sute ikaragarriaren eta hiribil-

duan mendeetan zehar etengabe egin diren berrikuntzen ondorioz. Horregatik, Erdi Aroko iraganaren aztarnak urriak baino urriagoak dira. Garai hartako orube estu eta luzeek, osterak, gaurdaino iraun dute, eta horiekin batera, etxeen atzealdeko baratze batzuk ere bai. Harrizko eta egurrezko etxeen artean berdetasun pixka bat txertatzeko balioko zuten orduan baratzeek.

Hiribildua horrenbeste garatu zenez, harresi barruko barrutia berehala geratu zen txiki, eta kale berriak sortu behar izan zituzten hiribildua zabaltzeko. Sortutako lehen kalea Kalebarria (parrokiaren atzean zegoen kalezulo estu irregularra) izan zen ustez, eta gero, baina handik denbora luze- ra, Portaleta, Artekale eta Barrenkale kaleen luzapenak eta Erribera ingurua eratu zituzten. Hedapen-prozesu hartan Erriberan lortu zuten leku gehien, lehen portua zegoen eremua etxeak egiteko erabili baitzuten. Denboraren poderioz, Astillero plazaren inguruko errebala bihurtu zen hiribilduko bizitzaren ardatz, eliza ondoko plazaren orde. Gainera, azkenean, udaletxea ere bertara eraman zuten, Erdi Aroko hiriguneak behin betiko utzi zion udalerriko gune nagusia izateari.

Portua

Butroe ibaiaren ahoan Plentziako hiribildua sortu zutenean, itsasadarrak baldintza onak zituen nabigatzeko. Itsasontziek barrualdean aingura zezaketen, hau da, itsasoaren eraso bortitzetatik babestuta.

Horrela, bada, Plentziako portua Bizkaiko kostaldeko merkataritza- eta arrantza-gune garrantzitsua izan zen Erdi Aroan, eta Ondarroak eta Portugaletek ez zioten itzalik egin horretan.

Hala eta guztiz ere, denbora igaro ahala, harea kanalaren azpi aldean metatu zen, eta ontziei gero eta gehiago kostatzen zitzairen hiribilduraino heltzea. Iturrizak dioenez, XVIII. mendearen amaieran Barrika hasieran zegoen harrizko zubiaren arkuetan lotzen zituzten ontziak. Garai hartan, portua ezer gutxi zen: Bekokale parean zegoen urbazterreko horma bat baino ez. Ondorengo urteetan, hainbat hobekuntza egin zitzaizkien arren, ez ziren nahikoa izan, harea etengabe ari baitzen pilatzen. Azkenean, Delmasen hitzetan, XIX. mendearen erdialderako ontziek ez zuten hiribildura iristerik, eta ondorioz, Plentziak arrantzale-herri izateari utzi behar izan zion. Orduan, armarriko ontzia zen sasoi batean hiribildua portua izan zela gogorarazten zuen bakar⁷.

Egoera tamalgarria zen arren, Plentzia 2. mailako portu izendatu zuten 1888 urtean, eta hori ikusita, udalak kanalean hobekuntza-lanak egitea erabaki zuen, herriaren jatorrizko marinel-izaera berreskuratzeko. XIX. mendearen amaieran ekin zitzairen lanari, eta XX. mendean Butroeren itsasadarrak lehengoratzeko eta suspertzeko lortu zuten: orain kirol-ontzi txikiak behinik behin ibil daitezke bertan, airetik bistan ikusten den bezala.



Santiagoko arkua elizako plazaren sarreran dago, eta antzina hiribildua inguratzen zuen harresiaren lekukoa da. Harresiak inguruko nekazaritzamundutik bereizten zuen hiribildua, eta era berean, bertako biztanleen estatutu juridiko pribilegiatua nabarmentzen zuen. Hiribilduaren sinbolo hori azkenean desagertu egin zen, hainbat arrazoi zirela medio: Aro Modernoan babes-zeregina galdu zuelako, urteen joanean hondatu egin zelako, hirigunea handitu egin behar izan zutelako eta eraikuntza-lan batzuetarako aprobetxatzen hasi zirelako. Santiagoko arku zeharkatzen duten bisitariak, garai batean Plentziara etortzen zirenei, harresi barruan zer zegoen ez zekitela, leku hartan bertan sortzen zitzaizkien sentipenen lekuko izaten dira.

Oharrak

1. Hiri-gutuna ondorengo lanean ikus daiteke: Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea. Bilbo, 1968. II. liburukia. 804-805 orr.
2. Ikus García de Cortázar, J.Á.: *Vizcaya en el siglo XV. Aspectos económicos y sociales*. BAK, Bilbo, 1996, 72. or.
3. Ikus García de Cortázar, J.Á.: "Las villas vizcaínas como formas ordenadoras del poblamiento y la población". *Las formas del poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1978. 98-99 orr.
4. Madoz, P.: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Madril, 1845-1850. Vizcaya-Bizkaia. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. Ambito-Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1990. 159. or.
5. Ikus *Bizkaia. Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. II. liburukia. Deustuko Unibertsitatea-Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1990, 586-587. orr.
6. Done Maria Madalena elizari eta hiribilduko gainerako monumentuei buruz gehiago jakiteko, ikus *Bizkaia. Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. II. liburukia. Op. cit. 587-588 orr. eta *Arquitectura y Desarrollo Urbano. Bizkaia*. Madril, 1977. 157. or.
7. Plentziako itsasadarrean egindako lanei buruz gehiago jakiteko, ikus Ciriquiain-Gaiztarro: *Los puertos marítimos del País Vasco*. Txertoa, Nafarroa, 1986. 221-223 or.

Bermeo

Fundazio-urtea: 1236 aldera

Fundatzailea: Lope Diaz de Haro eta haren emazte Urraka andrea

Forua: Logroño-ko forua

Pribilegioen hartzaileak: Populatzai-leak

Kokapena: Mundaka itsasadarraren ahoaren ezker aldean

Kokalekua: Uren gainean kokatutako aldapa txiki batean

Altuera: 25 m

Biztanleak (2001): 16.938



Bermeoko udalerrria Bizkaiko kostaldearen ipar-muturrean dago, Mundakako itsasadarraren sarreraren gainean. Guztira 33,31 km²-ko hedadura du eta erliebea oso gorabeheratsua da. Sollube mendia dugu punturik garaiena (663 m) eta bertatik kostalderaino izugarritzko aldapak daude.

Kostaldea hainbat gogortasun-mailatako material karetsuz dago osatuta, eta materialon arabera, itsaslabarrak, senaia arrokatuak eta irla txikiak (Izaro eta Aketxe adibidez) daude han-hemenka, eta penintsulak ere bai: Gaztelugatxe esate baterako. Hareazko hondartzak dira falta zaizkion elementu bakarrak, ibaietako uraren eraginez sortutakoak baino ez baitaude. Horren adibide dugu, besteak beste, Artigas ibai txikiaren ahoaren inguruko hondartza: Erdi Aroan, bertan zegoen Bermeoko portua. Kostaldean, gainera, Matxitxako lurmuturra dago, euskal kostaldearen ipar-muturra.

Sollube menditik kostaldera dauden aldapa gogorren ondorioz, udalerriko uribilgurik gehienak laburrak eta emari erlatibo handikoak dira.

Historiaurreko aztarnak urriak dira Bermeon: Peru Arestiren baseritik hurbil dauden hiru tumuluak eta Garbola mendia ondoan aurkitutako silex-material batzuk.

Erromatarren garaiko txanponak eta *terra sigillata*zko hondarrak ere agertu dira, Kristo ondorengo II. mendekoak. Erromatarrek gure kostaldean egin zuten kabotaia-nabigazioaren lekuko ditugu; izan ere, udalerrian ez zen asentamendu erromatar egonkorrik egon, ustez behintzat.

Goiz Erdi Arotik aurrerako testigantzak ugariagoak dira, baina iturriak ez dira arkeologi aztarnak, dokumentuak baizik. Gaur egungo udal-barrutia hiru monasteriok antolatzen omen zuten:

– San Migel eliza. Tenplu hori 1051tik edo zegoen, eta handik hogeita hamabi

urtera Donemiliaga Kukulako monasterio errioxarrari eman zioten.

– Gaztelugatxeko San Joan. Iñigo Lopez Bizkaiko jaunak eta haren emazte Toda andreak Zianno monjeari laga zioten 1053an, eta geroago, San Juan de la Peña abate-txe aragoarrari.

– Almikako Santa Maria. Hori ere Donemiliaga Kukulako monasterioari laga zioten 1093-an.

Badira beste aztarna interesgarri batzuk ere: aspaldiko alkarzar baten aurriak, alegia. Bermeoko portuaren ondoan, Zarra-goiti mendiaren gailurrean, zegoen, eta noizkoa den finkatzerik ez dagoen arren, badakigu XIV. mendearen erdialderako bertan behera utzita zegoela.

Hiribilduaren fundazioa

Bizkaiaren egoera errotik aldatu zen XII. mendearen erditik aurrera: ordura arte kanpoaldeko probintzia izandakoa penintsulako barnealdearen eta kostalde atlantikoaren arteko lotune bihurtu zen. Joera-aldaketa horren ondoren, Bizkaiko lurraldea hiribilduz betetzen hasi zen. Helburua bikoitza zuten: batetik, merkataritza-fluxua erraztea, eta bestetik, jarduera horri etekina ateratzea. Hasieran lau hiribildu fundatu zituzten barnealdean (Balmaseda, Urduña, Otxandio eta Lanestosa); kostaldean berriz, bakarra (Bermeo).

Ez dakigu, zehazki, hiribildua zein urte-tan fundatu zuten, baina 1236rako sortuta zegoen¹. Alfontso X.a Jakitunak, 1277ko abuztuaren 12an, Orozko bailarako Untzuetan gazteluaren esparruan zela, berretsi egin zuen fundazioa. 1285ean, berriz, Lope Diaz jaunak, fundatzailearen ilobak, berre-

tsi zuen, eta hiribilduaren barrutia handitu zuen.

Horrela, bada, Bizkaia Atlantikoko merkataritza-fluxurako igarobide bihurtu zenez, Bermeo izan zen lehen portua, eta bertan ontziratzen zituzten itsasoaz garraiatutako salgai guztiak. Dena den, XIII. mendearen azken urteetan eta XIV.aren hasieran, lehiakideak ere sortu zitzaizkion, eta Bermeok galdu egin zuen itsas jardueretan zuen nagusitasuna.


1299an Plentzia fundatu zuten Butro ibaiaren ahoan; handik urtebetera Bilbo, Nerbioi itsasadarrean; eta 1322an Portugalete, hori ere Nerbioi itsasadarrean. Azkenik, 1325ean Lekeitio eta


1327an Ondarroa fundatu zituzten, lehena Lea itsasadarrean eta bigarrena Artibaikokan. Beraz, Bizkaiko kostaldea, ordura arte hutsik zegoena, arrantzan eta merkataritzan jarduten zuten hiribilduz bete zen.

Portu horien sorrerak erabat suntsitu zuen ordura arte Bermeoko hiribilduak merkataritzan zuen monopolioa, eta jakina, hiribilduko oparotasunaren gainbehera ekarri zuen. Baina, zalantzarik gabe, Bilbo izan zen gainbeheraren eragile edo iturburu nagusia.

1300ean, Diego Lopez de Haro jaunak hiri-gutuna eman zien Bilboko populatzaileei, eta horrela, pribilegio garrantzitsuak lortu zituzten, besteak beste, Logroño-ko forua.

Bilboko hiri-gutuneko pribilegioak izugarrizko laguntza izan ziren hiria garatzen hasteko, baina benetako bultzada Maria Bizkaiko andreak eman zion 1310ean. Orduantxe hasi zen Bermeo baztertuta geratzen.





BERMEO XIX. MENDEAREN ERDIAN

Madoz, P.: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico*.

Maria andreak, besteak beste, honako hau agindu zuen: Pancorbotik Bermeora arteko bidea egiten zutenek, Urduñatik igarota, Bilbotik pasa behar zutela derrigorrez (*“el camino que va de Orduña a Bermeo que pasa por Echevarri que vaya por aquella villa de Bilbao e non por otro lugar”*). Gainera, Areetatik Bilbora zihoan bidean salerosketan edo tratuan ibiltzea debekatu zuen: *“ninguno non sea osado de tener compra ni venta ni regateria ninguna en todo el camino que va de Areta fasta la villa de Bilbao”*. Agindua betetzen ez zutenak *“gaizkiletzat”* hartuko zituztela eta hiriko merioek eta probestuak aldean zeramaten guztia (*“todo quanto les fallasen”*) kendu ahal izango zietela gaineratu zuen².

Salgaiak Bilbon ontziratuz gero, merkatariek egun osoa aurreratzen zuten Urdu-

ñatik kostalderako bidean. Ondorioz, normala denez, Bermeoko hiribilduak arian-arian galdu egin zuen jaurerriko hiribilduen artean merkataritzan izandako nagusitasuna. Horregatik, arrantza-portua izatera mugatu zen, eta bizibide horrek tinko dirau oraindik ere³.

Arazoak arazo, Bermeoko hiribilduak beti izan zuen aparteko lekua Bizkaiko jaurerrian, protokoloaren aldetik behinik behin. 1476an, esate baterako, Fernando errege katolikoak berretsi egin zuen Bermerori aspaldi eman zioten *“Bizkaiko Buru”* titulua, eta 1602ra arte eutsi zion, Bilbok eta Bizkaiko beste erakunde batzuek titulua kentzeko presionatu zuten arte. Hala eta guztiz ere, Bermeok Bizkaiko Batzar Nagusietan boto eta jarleku nagusia izaten jarrai-

tu zuen, eta gainera, Bermeoko ordezkaria hitz egiten hasten zenean gainerakoek txapela kendu behar izaten zuten.

Hiribilduko arrantza Erdi Aroan

Bizkaitarrek seguruenez bikingoekin ikasi zituzten nabigazioaren nondik norakok, "Iparraldeko gizonak" marinel trebeak zirenez, askotan etorri baitziren hemengo itsasora. Dena den, gure kostaldean batik bat XIV eta XV. mendeetan piztu zen arrantzarako interesa, eta ordurako, bikingoen bisitez ez ziren inondik inora oroitu.

Mende haietan arrantza jarduera ekonomiko garrantzitsua bihurtu zen. Ondorioz, marinel herriak (Bermeo, Bilbo, Plentzia, Lekeitio...) izugarri garatu ziren. Orduan sortu ziren lehen arrantzale-kofradiak, eta garai hartakoak dira, halaber, zenbait hiribildutako kontzeju-zigiluetan dituzten arrantza-munduko irudiak: Bermeoko zigiluak, adibidez, txalupa eta balea ditu.


Hiri-kontzejuak lan eskerga egin zuten arrantza-kontuetan, barrualdeko hiri-kontzejuak bezalaxe, gogotik saiatu baitziren beren itsas barrutiak defendatzen. Hona hemen adibide bat: Elantxobeko eta Ibarangeluko arrantzaleei agindu zieten, balea harrapatzera joandakoan beren jurisdikzioko uretatik ez ateratzeko; bestela, harrapatutakoa hiribildura eraman, zatitu eta parrokiari eta kontzejuari zegokiena eman behar izaten zieten⁴.

Bai arrantza-mota daude: baxurakoa eta alturakoa. Garai hartan agian bien artean bereizketa handirik ez egin arren, baxurako arrantzan herri guztiak aritzen ziren eta bizilagun

guztiek laguntzen zuten nola edo hala. Alturako arrantzan, ostera, askoz ere konplexuagoa zenez, benetako arrantzaleak behar izaten zituzten oso itsaso urrutetara joateko, Irlandara eta Terranovara kasu. Horra zer dioen Bermeoko San Pedro arrantzale-kofradiaren 1353ko ordenantzen 70. atalak: "los que fueren a pescar a Irlanda o a otras partes pague para la iglesia mayor, de cien uno, de lo que pescaren"⁵.

Esanak esan, baxurako arrantzan ez ziren geratzen hiribilduen inguruan, Galiziako kostalderaino ere heltzen baitziren, kabotaia-nabigazioaren bidez.

Garai hartan harrapatzen zituzten espezieei dagokienez, itsaso ondoko hiribilduetako berrien bidez lortzen da informaziorik onena. Horrela dakigu, adibidez, Bilbon, Portugaleten eta Gernikan era guztietako arrainak harrapatzen zituztela: urraberuak, erlak, barbariak, mubleak, lupinak, mihi-arrainak, lentoiak, estatxoak, muxarrak, papardoak, itsas aingirak, krabak, toilak, arraiak, samak, txitxarroak, legatzak, txelba hortzandiak, gurbinak, meroak...⁶. Hitako Artzapezaren "Maitasun Onaren Liburuan" ere Bermeoko arraina aipatzen da: "arenques e





BERMEO, AIRETIKO BISTA

Argazkia: *Atlas Básico Santillana*, Madril, 1986

vesugos (que) vinieron de Bermeo". Bestetik, espezie horiekin batera, balea ere aipatu behar dugu, balearen arrantza oso garrantzitsua izan baitzen. Lehen esan dugunez, kontzejuaren zigiluan bertan ere balea dago.

Itsasontziak arrantzatu ondoren portura etortzen zirenean, arrain batzuk herrikoei ematen zizkieten etxean jateko, baina gehienak penintsulako barnealdera eramaten zuten. Hainbat metodo erabili ohi zituzten arraina ez usteltzeko: gatza, limoi-ura, lehortzen uztea (arrain gatzartua) eta ketzea. Geroago, eskabetxetan sartzen hasi ziren.

Erdi Aroan arrain asko hartzen zuten Bizkaiko portuetan, esperientziaren poderioz hobetutako arrantza-tekniketan oinarrituz. Bi arrantza-metodo erabiltzen zituzten funtsean: amu bidezkoa eta sare bidezkoa. Lehenengorako beita behar izaten zuten eta lemorratzarena zen preziatuena, Bermeoko San Pedro arrantzale-kofradiaren ordenantzen 81. atalean adierazten den moduan⁷. Sare bidezko arrantza askoz ere emankorragoa zen, baina aurretik sareak josi egin behar izaten ziren. Bizkaiko Berant Erdi Aroko dokumentuetan sare-mota bat baino gehiago aipatzen dira: tresmaila eta

traina esate baterako. Tresmaila, elkarrri jositako hiru sarek (erdikoa besteak baino zarratuagoa) osatzen zuten, eta bertikalean urperatzen zen, behealdean lotutako pisu batzuen bitartez. Traina, ekortzeko sarea, zirkuluerdia eratuz urperatu eta gero ontzitik jasotzen zuten.

Bermeoko kofradiak erabat araututa zuen sare horien erabilera: portu nagusian eta oinez bakarrik erabil zitezkeen. *“Ordenamos que ninguno ni algunos nuestros cofrades no sean osados de echar en el puerto mayor train ni red sin licencia de los mayordomos, con pinaza, salvo a pie, so pena de doscientos maravedís”*⁸.

Pinaza zen Bermeon eta Bizkaiko Golkoaren ekialde osoan gehien erabiltzen zen arrantzuntzia, oso arina eta erraz lematzekoa baitzen. Ontzi espezializatuak ere erabiltzen zituzten, hala nola, baleontziak.

Nola arrantzagatik hala merkataritzagatik, ikaragarrizko interes ekonomikoak zeuden itsasoaren inguruan, eta jakina, horrek liskar ugari eragiten zituen. Bermeon sortutako auzirik gogorrena Mundakako elizatearen kontrakoa izan zen, XV. mendearen bukaeran eta XVI.aren lehen urteetan. Bermeoko San Pedro arrantzalekofradiak arrantzarako ordutegiak, kofradiakoek ez ezik, gainerako bermeotarrek eta hiribilduaren inguruetara etortzen ziren beste jurisdikzio batzuetako marinelek ere betetzea nahi zuelako piztu zen liskarra. Mundakarrek berehala salatu zuten Bermeoko jarrera: *“porque la dicha villa no tiene ninguna jurisdicción en el mar, porque todo el distrito y jurisdicción de la mar que confina con la costa de Vizcaya es de la jurisdicción de la Tierra Llana, porque la jurisdicción de la mar sigue al termino y jurisdicción de la tierra con quien confina, y todo lo de esta Vizcaya es jurisdicción de la Tierra Llana y del Fuero de Vizcaya, a excepción de las villas, que no tienen jurisdicción, la que mas de ellas, en un tiro de ballesta desde las cercas”*. Beraz,

argi eta garbi adierazi zieten ez zeudela batere ados (itsas jarduerak norbaitek zuzentzekotan, Mundakako elizateak zuzendu behar zituela ere iradoki zuten). Elizateko bizilagunek ere ondorio garbi askoa atera zuten: bermeotarrek ez zuten mundakarrei agintzeko eskubiderik, ezta mundakarrek bermeotarrei agintzekorik ere. Gizalegez, herri bakoitzak nahi duen moduan arrantzatu eta baliatu behar du itsasoaz⁹.

Nolako ika-mika gogorrek sortu ziren ikusita, argi dago garai hartan arrantza oso garrantzi handiko jarduera zela jaurrean, eta jurisdikzioak horregatik saiatu zirela, gogotik saiatu ere, itsas esparruaren erabilera eskusiboa lortzen. Bermeoko San Pedro arrantzalekofradiaren 1353ko ordnantzek ezin hobeto erakusten dute errealtate hori. Gainera, kontuan hartu behar da arrantzalekofradiak demaseko indarra zutela garai hartan, ez baitziren itsasoko kontuez soilik arduratzen: arrantza arautzeaz gain, arrantzaleen jokabide erlijiosoak, behartsuei (alargun, umezurtz, ezinduei...) emandako laguntza, kideen gain zituzten eskumenak... oso zorrotz behatzen zituzten. Kontuak kontu, Erdi Aroan arrantza zen Bermeoko jarduera bereizgarria eta nagusia, eta ildo horretatik, ulertzekoa da San Pedro arrantzalekofradiak horrelako jarre-ak izateak beren esparru ekonomikoa defendatzeko.

Hiribilduaren egitura fisikoa Erdi Aroan

Erdi Aroan, Bizkaiko hiribilduen egitura nahiko erregularra zen oro har, kale eta kantoien arteko ebakiduren ondorioz dama-jokoaren taularen antzeko plano sortzen baitzen. Erliebe leuneko tokietan, hala nola Durangon, Bilbon eta Gernikan, plano erregularra taxutu zuten. Aitzitik, erliebe gorabeheratsuko lekuetan, adibidez Bermeon eta Ondarroan, plano baldintza topografikoetara egokitu behar izan zuten. Bermeoko plano erregularra da goiko



aldean, baina beheko aldera jo ahala, malda gero eta handiagoa denez, desitxuratu egiten da.

Kaleak antolatzean sestra-kurbei jarraitu zitzairen, gutxi gorabehera hego-mendebaldetik ipar-ekialderako norabidean. Kantoiak, berriz, goialdetik itsasertzerako bidean kokatu zituzten, euri-urak eta hondakin-

urak eraman zitzaizten. Hauek ziren kale batzuen izenak: Carnicería Vieja (egungo Nardiz tar Jon), Cestería (Hurtado de Mendoza), Herreros (San Frantziskoko portalea), Pescadería (Bidebarrieta), La Rochele (Torronteroko eskila)... Erdi Aroko herritarren bizibidea eta jatorriak zein ziren adierazten dute.



SANTA EUFEMIA ETA
PORTU ZAHARRA

ERDI AROKO HIRIGUNEKO
KALEETAKO BAT



PORTUAREN IKUSPEGIA ERTZILLA DORREAREN
ONDOTIK

Ipar-ekialdean hiribilduko portua, egungo Portu Zaharra, zegoen senaia natural oso itxi batean, Santa Eufemia elizaren oinetan.

Bizkaiko Erdi Aroko gainerako hiribilduek bezala, Bermeok ere harresi sendoa zuen. Alfontso XI.ak agindu zuen berori eraikitzea 1334an (Lekeitioko hiribilduan ere urte berean eman zuen agindua), eta ziur aski urte hartan bertan hasiko ziren eraikitzen. Bukatu, oster, 1353an bukatu zuten, Tello jaunak obrak amaitzeko alkar zaharreko harriak eman zizkienean. Gaur egun geratzen den horma, segurueenez XV. mendeko konponketa-lanetakoa, kare-harrizko aparailu bikoitz handia da, eta tarreak zaborrez beteta dauzka. Lau metro ditu luzetara eta bi zabaletara. Goialdean adarbea dago.

Harresiak zazpi ate baino gehiago zituen, baina batek bakarrik iraun du zutik: Doniene kalearen irteeran dagoen San Joan Portaleak. Kubo itxurakoa da, eta kanpotik zorrotza eta barrutik eskartzanoa den arkuak osatzen du sarrera.

Erdi Aroan, Bermeoko etxeak egurrezko eraikuntza ahulak ziren, jaurreriko gainerako hiribilduetakoen antzekoak. Gehienek bi solairu zituzten, eta bebarrua, produktuak (lastoa, koipeak...) gordetzeko. Merkatarien etxeek zuloa izaten zuten beheko solairuko kale aldeko horman, bezeroei, kanpoan zeudela, salgaiak saltzeko. Zurezko eskaile-ra batetik igotzen zen goiko solairura. Hantxe ematen zuten eguna etxeok, sukaldea ere gehienetan bertan egoten zen eta. Oso altzari gutxi izaten zituzten: ohea (hainbat laguntzat ere izan zitekeen), arropak eta beste gauza batzuk gordetzeko kutxatzarra eta jarleku jarraitua jatorduetan esertzeko.

Erdi Aroko hiribilduetan noiznahi pizten ziren suteak, jakina; eta ez da harritzekoa nolako eraikuntzak ziren, etxeak elkarrengandik hurbilegi zeudela eta barruetan

sua hartzeko moduko produktuak gordetzen zituztela kontuan hartuta. Bermeon, esate baterako, 1297an, 1347an, 1360an, 1422an eta 1504an hiribildu osoa erre zen suteen ondorioz.

Hiribilduaren hasierako urteetan, baratzek ere egongo ziren orubeen atzealdeetan, familiek animaliak hazi eta produktuaren bat edo beste landatzeko, eta horrela, merkatura gutxiago joan behar izateko. Edonola ere, herritarren kopurua handitu ahala, hutsune horiek bete egin zituzten etxebizitzekin, hazkunde demografikoari erantzun ahal izateko.

Eraikin bereziak

Hiribilduak sute eta berrikuntza ugari jasan baditu ere, oraindik orain baditu historiaren eta artearen ikuspegitik balio handikoak diren zenbait eraikin¹⁰.

Santa Eufemia eliza

Santa Eufemia eliza da Bermeoko hiri-elementurik aipagarrienetakoa. XV. mendean beste tenplu baten gainean egindako eraikuntza gotikoa dugu. Gangadun nabe bakarra du, ataletako gurutzeria sinplea da, baina burualdeak, oktagonala denez, gurutzeria erradiala dauka.

Giltzarrietako apaingarriak apartak dira benetan: motibo erlijiosoak eta buru koroatu bikainak. Eraikin sendoa eta bateratua da eliza. Dorrea oinaldean dago, Ebanjelioaren ondoan. Beranduago eraiki zuten, 1782an, eta darion estilo barroko ezin zorrotzago hori egileari, Juan de Iturbururi, zor zaio.

Elizak, balio artistikoaz gain, balio sinbolikoa ere badu. Gaztelako errege-erreginek Foruen zina egin behar izaten zuten, eta horretarako ezarrita zegoen ibilbidearen azken gunea Bermeoko eliza zen, hain zuzen. Errege-erregina katolikoak izan ziren foruei men egin zieten azkenak.

San Frantzisko komentua

Bizkaiko lehen komentua, San Frantziskorena, Bermeon sortu zuten 1357an, eta bizirik dirau oraindik ere. Dena den, egun-


Bermeok ekonomia oparoa zuen, nonbait, erakunde erlijioso bat mantentzeko gai zen eta.

Ertzilla dorrea

Dorretxe hau XV. mendearen hasierakoa bide da. Bermeoko familia noble baten bizitoki izateko eraiki zuten.

Lursaila bera eta hiri-planoa hain korapilatsuak direnez, oinplano hautsia egin behar izan zioten. Beraz, ez dauka zerikusirik Bizkaian ohikoak diren dorretxe kubikoekin. Horretaz gain, badu beste dorretxeetatik bereizten duen beste ezaugarri bat ere: euskarri-sistema. Errege-erregina katolikoek aurpegidun pilaretxoek eusten dute.

Gaur egun, berrikuntza handiak egin eta gero, Arrantzaleen Museo bihurtu dute Ertzilla dorretxea.




Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

SANTA EUFEMIA ELIZA

go eraikina XV eta XVI. mendeen artekoa da. Nabe bakarra eta luzexka du, teilatua modernoa da eta alboak hiribilduko familiarik aberatsenak lurperatzeko erabilitako kaperaz josita daude.

Zalantzarik gabe, klaustro gotikoa da balio arkitektonikorik handiena duen elementua. Lau arku-multzok inguratzen dute: lorategi aldekoak arku zeihar beheartuak dira, eta ertzetakoek, horiek ere zeiharrek, motibodun (fraideak eta eskultura alegorikoak) mentsulak dauzkate oinarrian. Egoitza balio artistiko urriko eraikin modernoa dugu.

San Frantzisko komentua hain goiz sortu izanak argi asko erakusten du garai hartan Bermeo oso hiribildu garrantzitsua zela jaurerrian; izan ere, jakinekua baita frantziskotarrek hiribildurik oparoenetan irekitzen zituztela komentuak dirudunen limosnak eskuratzeko. Beraz, XIV. mendearen erdiko urteetan, nahiz eta Bilbo eta kostaldeko beste portu batzuk lehiakide gogorrak izan,



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

SAN FRANTZISKO KOMENTUA



EZKERRALDEAN ERTZILLA DORREA PORTU ZAHARRAREN GAINEAN

Oharrak

1. Hiri-gutuna eman zutenen kronologiatik (Lope Diaz, emazte Urraka eta seme Diego eta Alfontso) ateratzen da ondorio hori. Jatorrizko agiria desagertuta dago, baina Lope jaunak –Lope Diazen ilobak- 1285ean egindako berrespena gorde egin da. Ikus García de Cortázar, J.Á.: *“Las villas vizcaínas como formas ordenadoras del poblamiento y la población”*. *Las formas del poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1978. 79. or.
2. Bilboren 1310eko bigarren fundazioaren testua lan honetan dago: Guiard, T.: *Historia de la Noble Villa de Bilbao*. I. liburukia 2. argitalpena. Faksimilea. Bilbo, 1971. 21-23. orr.
3. Ikus Ruíz de la Peña, J.I.: *“Exclusivismo local de las villas norteñas bajomedievales. El ejemplo de Bilbao”* *Las formas del poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1978. 252. or.

4. Ciriquiaín-Gaiztarro, M.: *Los vascos en la pesca de la ballena*. Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, Donostia, 1961. 132. or.
5. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. II. liburukia. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea. Bilbo, 1968. 820. or.
6. Ikus García de Cortázar, J.Á.; Arizaga, B.; Ríos. M.L. eta del Val, I.: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Haranburu. Donostia, 1985. 101. or.
7. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Op. cit. II. liburukia. 820-840. orr.
8. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. II. liburukia. 837. or.
9. Ikus García de Cortázar, J.Á.; Arizaga, B.; Ríos. M.L. eta del Val, I.: *Vizcaya en la Edad Media*. Op. cit. 110-111. orr.
10. Eraikin hauen azterketa zehatzagoa jasotzeko *Bizkaia. Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. II. liburukia. Deustuko Unibertsitatea-Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1990. 333. or.

Lekeitio

Fundazio-urtea: 1325

Fundatzailea: Maria Diaz de Haro Bizkaiko andrea

Forua: Logroñoeko forua

Pribilegioen hartzaileak: Kontzejua

Kokapena: Lea ibaiaren ahoan

Kokalekua: Itsasoaren gaineko alda-pa txiki batean

Altuera: 10 m

Biztanleak (2001): 7.357




Lekeitioko hiribildua izen bereko udalerrian dago, Bizkaiko kostaldearen ekialdean. Udal-barrutia oso txikia da $-1,8 \text{ km}^2$ -koa, eta hauek ditu mugakide: iparraldean Bizkaiko Golkoa, ekialdean Mendexa eta hegoalde eta mendebaldean Ipazter. Markina-Ondarroa eskualdean dago Lekeitio. XIV. mendean, eskualde horretan, Lekeitio (1325), Ondarroa (1327), Markina (1355) eta Gerrikaitz (1366) fundatu zituzten.

Erliebeari dagokionez, Otoio eta Lumentxa mendiak, malda leunekoak eta altueraz txikiak, eta Lea ibaia, bokalean itsasadar bihurtzen dena, dira bi elementu nagusiak. Lea ibaia Illuntzar mendizerraren magalean sortzen da, eta 20 km-ko ibilbidea ere egin gabe, Bizkaiko Golkora isurtzen ditu urak, ezker-eskuin Lekeitio eta Karraspio hondartzak eta aurrealdean San Nikolas irla dituela. Baliteke Lekeitio izena Leatik etortzea: "Lea kai", hau da, Learen kaia. Dena den, auzi horretan era guztietako interpretazioak daude.

Hiribilduaren inguruetan giza okupazioaren aspaldi-aspaldiko aztarnak daude: Goi Paleolitokoak ere badira eta. 1920ko hamarkadan T. Aranzadik eta J.M. Barandiaranek eremu horren ikerketa sistematikoa gauzatu zuten lehen aldiz, eta historiaurretik hasi eta erromatarren garaira arteko hainbat aztarna aurkitu zituzten, hain justu, Lumentxa mendiko leize-zuloan¹. Handik mende batzuetara, Maria andreak hiribildua *fundatu* zuen ordurako populatuta zegoen leku batean, hiri-gutunean bertan adierazten denez. Okupazio hura ez zen izan, ordea, hasierako jarraipena. Hortaz, 1325. urtea baino lehen giza talde bat bertan bizi zen jadanik (ez dakigu zenbaterainoko garapena zuen), eta ondorioz, hiribildua ez zen berriaren berriz sortu: fundatze-lana han zegoen biztanleriari foruak ematera mugatu zen, zenbait abantaila juridiko eta ekonomikoren bitartez garatzen laguntzeko.

Fundazioaren aurrekoak eta Erdi Aroan izandako garapena

1325eko fundazio-gutunean Maria Diaz de Haro Bizkaiko andreak argi eta garbi esaten du, han bizi den populazioari pribilegioak ematea dela bere helburua. Ezer gutxi dakigu asentamendu horretaz, baina Maria andreak hesi bat, Andre Mariaren Zeruratzearen eliza eta bere jabetzako jau-regi batzuk aipatzen ditu.



LEKEITIOKO UDALERRIA

Hiribildu izendatu aurreko urtean, Bermeok erregearen erresumetan zituen garraio- eta arrantza-frankizia berberak eman zizkion Alfontso XI.ak Lekeitiori. Beraz, kostaldeko asentamenduak bazuen nolabaiteko garapena²; seguruenez, jaurreriak XIII. mendean izandako hedapenarekin batera garatuko zen Lekeitio bera ere. Loraldiak XIV. mendearen lehen laurdenera arte iraun zuen, eta garai hartan jaso zuen Lekeitio forua, Bizkaia goitik behera astindu zuen krisialdia etorri baino lehen.

Itsasaldeko hasierako enklabe hartako bizilagunek funtsean itsas jarduerak zituzten ogibide. Badirudi arrantza zela jarduera nagusia, eta merkataritza, osagarria. Edozein modutan, lehorreko jarduerak ere bazuten garrantzi ekonomikoa, bai nekazaritzak bai abeltzaintzak.

Maria andreak Bizkaiko jaunek kostaldean hiribilduak sortzeko hartutako politikari jarraitu zion. Horren bidetik fundatu zuen hiribildua 1325ean. Bermeo, Plentzia, Bilbo eta Portugaleteren ondoren etorri zen Lekeitio, Bizkaiko portu-hornikuntza osatzeko. Lekeitio toki paregabearen zegoen: Ondarroa oraindik sortu gabe egonik (1327an fundatu baitzuten), Lekeitio zen Bermeo eta Gipuzkoaren arteko portu bakarra. Horregatik, Bizkaiaaren ekialdeko merkataritza mendebalderantz erakartzeko balio izan zuen.

Foruari esker, Lekeitio Bizkaiko gainerrako portuen baldintza berberak eduki zituen garatu ahal izateko. Horrela, bada, ordenamendu juridikoak Logroño Forua zuen oinarri, Lurralde Irekitik bereizteko, baina gai zibil eta kriminaletan nahiko eskasa zen. Gabeziak gorabehera, berebizikoa izan zen biztanleriaren garapen ekonomikoa bultzatzeko. Logroño Foruarekin batera, hiribilduak lurralde-eremu zabala jaso zuen: *“del un cabo fasta Arexucaondo, é dende al horto de Ategueren, e dende allí a Idoyeta, é de Idoyeta á cima de Igoz; é de otro cabo al rio de Manchoaran fasta Puente Sausatan por do se parte con Amallo é con Hondarroa: é del otro cabo de Igoz hasta la mar; é de leya fasta la mar; é de la Iglesia de San Pedro de Bedarona, dende en fasta Arrileugana”*³. Hitz batean, egungo Lekeitio udalerrria eta egungo Ipazter, Gizaburuaga, Amoroto eta Mendexa elizateak bereganatu zituen hiribilduak. Geroago azalduko dugunez, urteen joanean murriztu egin zen eremu zabal hura, hiribilduaren eta inguruko baserriarren artean sortutako gatazken eraginez.

Hortaz, hiri-gutunean jaso zituen pribilegioei esker, 1325etik aurrera izugarri bizitu zen Lekeitioren jarduera ekonomikoa. Bizkaiko jaurreria leku ezin hobean zegoen, alde batean penintsularen barnealdea eta bestean Mediterraneo eta Atlantikoaren iparraldea (Frantzia, Ingalaterra, Flandes...) zituela, portuen bitartez merkataritza suspertzeko. Eta barnealdea ordura arte jaun eta jabe izan bazen ere, poliki-poliki portuek izugarritzko boterea erdietsi zuten.

Dena den, XIV. mendeko krisialdia igaro ondoren, XV.ak hedapen ekonomikoa ekarri zion jaurreiriari, eta Bizkaiak gogor heldu zion. Ordurako lekeitiarren ogibide nagusia itsasoa zen, arrantza eta merkataritza, alegia, eta jarduera horien garapenetik sortu zen XV. mendean San Pedro arrantzale-kofradia, herriko eta inguruko elizateetako arrantzaleak eta merkatariak biltzeko asmoz. Kofradiaren ordenantzen arrastorik ez dago; beraz, ez dakigu egon ziren ala ez, baina badira Bermeo eta Debako arrantzale-kofradiei hainbat gairen inguruan (merkataritza-fleitak, prezioak, soldatak...) ⁴ egindako galdeketak eta beste zenbait dokumentu. Esatekoa da, XVI. mendearen hasieran kofradiak horrenbeste kide zituenez, lau zuzendari izendatu behar izan zituztela. Ezbairik gabe, itsas jardueretan hasten ziren herriak asko gartzen ziren.

Lekeitiarrek diru-sarrera politikak lortu zituzten itsas jardueren bitartez. Gainera, pirateri ekintzak ere aipatu behar dira, izugarri hedatu ziren eta. Egia esan, Bizkaiko piraten indarkeriaren oihartzuna, Atlantikora ez ezik, Mediterraneoara ere heldu zen, eta oso entzute handia hartu zuten. Berdin zitzaien herritarrei zein atzerritarrei lapurtzea. Juan Iñiguez de Zuñiga lekeitiarrek, esate baterako, Burgoseko Juan de Salvatierrari egin zion lapurretan Galiziako kostaldean. Galiziako produktuak erosteko zermatzen marabedi guztiak kendu zizkion burgostarrari ⁵.

Laburbilduz, XV. mendean merkataritza eta arrantza ziren Lekeitioko ekonomiaren eragileak. Itsasoa ogibide zuten herritarrak (bale arrantzaleak, upelagileak, arotzak eta ontzigileak) asko ziren, baina baita dendariak ere. Hiribilduko kale ezin estuagoak dendaz josita zeuden, bizilagunen behar guztiak (jana, arropa, tresnak...) asetzeko. Etxeetako lehen solairua izaten zen denda. Bestalde, emakumeen lana funtsezkoa omen zen hiribilduko ekonomiarentzat: sareak josi, lihoa irun eta etxe-osteetako baratze txikiak (gero eta gutxiago zeuden, herriko hazkunde demografikoaren ondorioz) lantzen zituzten.

Beraz, garapen ekonomikoa bideratzen jakin bazuen ere, Lekeitiok porrot egin zuen inguruko landa-eremua antolatzeko orduan. XIV. mendean, Lekeitioko landa-eremu-tako biztanleak baso zabalak ustiatzen jarduten zuten. Baina gutxi zirenez, ez zuten indarririk hiribilduak ezartzen zituen xedapenei aurka egiteko. XV. mendean, abeltzaintzan ez ezik, nekazaritzan ere hasi ziren, eta horretarako, lurraldea zatitzeari ekin zioten lurrari probetxu handiagoa ateratzeko. Kontua da pixkana-pixkana lur hori beraiena zela sentitzen hasi zirela, eta azkenean, muzin egin ziotela hiribilduko aginteari. Lekeitioko landa-eremuko lau elizateek (Amoroto, Gizaburuaga, Ipazter eta Mendexa) gogotik borrokatu zuten hiribilduaren nagusitasunaren kontra, eta azkenean, 1519an, beren elizak parroki eliza bihurtzea lortu zuten. Horrek independenteak zirela esan gura zuen. Beraz, Bizkaiko beste hiribildu askok bezala, Lekeitiok galdu egin zuen Lurralde Irekiaren kontrako borroka.

Hiribilduaren egitura fisikoa Erdi Aroan

Hiribildua 1325. urtea baino lehen

1325eko hiri-gutunaren bidez Maria andreak ondorengoak eman zizkien Lekeitioko populatzaileei: *“la yglesia de Sancta*

Maria de Lequeitio con so çimiterio [...] Otrósy, les do mas todo lo que es dentro de la çerca, que era de Sancta Maria e mio [...] salvo ende que tomo para mi los mis palaçios que son en Lequeitio, çerca de la dicha yglesia, e vna plaça ante ellos, aquella que vieren que cunple”.

Maria andreak aurretik zegoen herri-gunea aipatzen du hiri-gutunean, eta antza



denez, eliza, jauregi batzuk, harresia edo hesia eta plaza zeuzkan. Baina, non zegoen hiribildua sortu aurreko gunehori?

Gonzalez Cembellin-en ustez, egungo Abaroa kaleak eta Dendari kalearen hasierak bere baitara bildutako zirkuluerdi-formako gunea sortzen zuten, eta baliteke hura izatea jatorrizko hirigunearen kokalekua. Toponimian ere Campillo edo Uriarte (“horma barneko herri-gunea”) terminoa agertzen da leku hori izendatzeko⁶. Dirudienez, hasieran kale bakarra (oraingo Gerrikabeitia) zegoen, eta beharbada, zeharkako kale estu bat (gaur eguneko Berriotxa) ere bai. Andre Mariaren Zeruratzearen eliza plaza parean zegoen, Maria andreaken pribilegioan azaltzen denez.

Harresiak eremu hori guztia inguratzen zuen, andreaken jauregiak (eliza ondoan),

herriarren etxebizitzak eta Andre Mariaren Zeruratzearen eliza barruan hartuz. Eliza harresiaren atala izango zen seguruenik, sendoa zenez, herritarrek hobeto babesteko balio zuen eta.


Honako ibilbide hau zuen harresiak: elizatik Lumentxa mendira zihoan, egungo Santo Domingo komentua barruan hartuz (bereizketa-hormaren atal bat lehen harresiaren hondarra da), eta handik Uriarte jau-regiraino. Bertan, bihurtzea egin eta behe-rantz jaisten zen berriro, Andre Mariaren Zeruratzearen elizara heldu arte. Ez dakigu nolako perimetroa zuen. Ustez, hiru ate zituen: bat eliza ondoan (Elexatearen aurrekoa, 1510etik dokumentatua), beste bat Gerrikabeitia eta Dendari kaleen bidegurutzean eta azkena Berriotxa irteeran. Harresia sendoa zen, baina ez oso garaia.

Hiribildu berria

1325eko hiri-gutunaren ondoren, Lekeitio izugarri aldatu zen populaketaren aldetik. Urte hartan bertan, hirigunea zabaltzea egin zuten Campillo inguruko asentamenduaren parean, hau da, senaiaren kontrako aldean. Leku hori haizetik hobeto babestuta zegoen, eta bestetik, egokiagoa zen portulanetarako, urertzean arroka-gunea zegoelako.

Bizkaiko gainerako hiribilduetan bezala, Lekeitio kaleak taxuz antolatuta zituzten. Kale guztiak aldapa behera jaisten ziren itsasoraino, hego-mendebaldetik ipar-ekialderako bidea eginez: Apalloa, Uribarria (orain Azpiri), Intxaurren, Berdera (egun Bergara), Atxabal eta Zaldundegi (egun Narea).

Beraz, hiribildua bi multzotan geratu zen banatuta: batetik, Andre Mariaren Zeruratzearen elizaren inguruko herri zaharra, eta bestetik, sei kale erregular paraleloz osatutako gunehori. Bien artean hareatza handia zegoen eta ontziak egiteko erabiltzen zuten; horregatik deitzen zaio gaur egun Ontziolaren plaza.



Velilla Iriondok dioenez, badiara jaisten ziren sei kale horiek kantoiak ziren kaleak baino gehiago. Bere ustez, Igualdegi, Trinidad eta Arranegi ziren benetako kaleak⁷. Edonola ere, hobe da haien egitekoari erreparatzea, eta ez izenari; izan ere, nahiz eta kantoi gisa sortu, benetako kaleak baitziren. Plentziara joko dugu hori guztia hobeto ulertzeko: han, kaleen orde, kaleen zabaleta bereko kantoiak jaisten dira itsasorantz. Lekeition, dena den, kontuan izan behar da etxeetako fatxadek sei bide horietara ematen dutela, kaleetan (eta ez kantoietan) ohikoa denez.

Denbora batez herri berria babesik gabe egon bide zen. 1334an, Alfontso XI.ak, orduko Bizkaiko Jaunak, berretsi egin zuen hiri-gutuna hango bizilagunei laguntzeko eta harresia sustatzeko asmoz. Hortaz, baliteke erregearen xedapen hori izatea Lekeitioko bigarren harresia eraikitzeko pizgarria.

Harresiak herri-gune berri osoa inguratu zuen, 8 metrorainoko erronda-pasabidea utziz. Ingurabide horretan daude, hain zuzen, gaur egungo Igualdegi, Trinidad, Narearen mendebala, Arranegi Zabala, Arranegi, Guzurmendi plaza, Gamarra plaza eta San Kristobal plaza. Mapan ikusten denez, trazatu irregularreko leku zabala geratzen da harresiaren eta hego-mendebaldeko azken kale erregularraren (Apalloaren) artean. Gonzalez Cembellinen iritziz, beharbada hasieran plazaren bat egon zen, nahiz eta gero baratzetarako eta azkenik eraikinetarako erabili. Eraikinok Azkue kalearen –gainerakoekiko perpendikularra, eta ez paraleloa– inguruan antolatu zituzten.

Ez dakigu zehazki zenbat atari zituen harresiak, iritziak ez baitatoz bat. Ziurak diren bakarrak ondorengo hauek dira: Apaltoa ataria (izen bereko kalearen mendebaldeko muturrean, Gernikarako irteeran), Bidaia Onaren Andre Mariaren ataria edo San Pedro ataria (Arranegi Zabala kalearen

ipar-muturrean) eta Ontziolaren ataria (Apaltoa atariaren kontrako muturrean).

Antza denez, herri-gune berriko biztanleria Campillo ingurutik hurbilen zegoen eremuan pilatu zen nagusiki, eta azken bi kaleak (Atxabal eta Narea) erdi okupatuta baino ez zeuden.

Horrela, bada, XIV. mendean bi gune independente zituen hiribilduak, eta bakoitzak bere harresia. Ez dakigu zernolako lotura zegoen bien artean. Azkuen, behintzat, ez dirudi ataririk egon zenik herri berria Campillo inguruarekin lotzeko. Hala ere, ez da normala biak erabat bereizita egotea, eta seguruenik egongo zen batek bestera joateko modurik, nahiz eta horren berri ez izan.

Errebalen hazkundea

Bizkaiko gainerako hiribilduetan bezala, errebalak Lekeitioren hazkunde ekonomiko eta geografikoaren adierazgarri dira. Hasierako guneak berehala bete zirenez, hiribilduko bizimoduan parte hartzen zuten askok errebaletara joan behar izan zuten bizitzera.

Seguruenez, bigarren harresiaren barruko guneak beteko ziren lehenik, erronda-pasabide zabalean leku asko baitzegoen. Okupazioa XV. mendearen erdia aldera hasi zen. Ordukoak ditugu Arranegi kaleko etxeak (lehen aipamena 1486an), portutik gertuen daudenak. Bestalde, 1487tik aurrera “Plaza” zenari “Plaza Zaharra” esaten hasi zitzaizkion; beraz, badirudi Arranegi Zabala eta Guzurmendi plazak (Arranegi kalearen mutur banatan zeudenak) sasoi hartakoak direla⁸. Velilla Iriondoren iritzia oso bestelakoa da, ordea. Bere ustez, Arranegiko etxeak dauden lekuan errebala zegoen lehen, eta gero, zati bat harresiak inguratu zuen⁹.

XV. mendearen azken aldera, Igualdegi eta Trinidad kaleak populatu zituzten. Hasierako erronda-pasabidean eraiki zituzten eta Apaltoa atariaren bidez ateratzen



LEKEITIOKO AIRETIKO BISTA

Argazkia: FOAT. País Vasco, desde el cielo.

ziren kanpora. Horiekin batera, Narea kalea (hasieran erdi-okupatuta egondakoa) eta Apalloaren eta herri zaharraren arteko ustezko espazio irekia (Azkue kalea) populatu zituzten.

Edonola ere, hasierako herri-gunearen ondoko eremua hartu zutenean zabaldu zen benetan hiribildua. Eraikin berriak Dendari kalearen inguruan kokatu ziren, hau da, Markinarako bidean. Dendari kalearekin batera, Beasko eta Luenga kaleak ere hartu zituzten ardatz. Etxebizitza-gune berri hark harresia izan omen zuen barruko herritarrak babesteko, eta itxuraz, Atea ataritik ateratzen ziren kanpo aldera.

Atea ataritik Markinarako bideari jarraituz beste errebal bat sortu zuten 1486an: Atea errebala.

Errebalek ez zuten lagundu bi hiriguneeen arteko komunikazioa hobetzen; aitzitik, bereizketa areagotu egin zen, ez

zutelako hurbilketa ahalbidetu. Hiru plaza sortu zituzten bi gune nagusien artean, hots, herri zaharrak eta Dendari inguruko errebalak osatzen zuten multzoaren eta herri-gune berriaren eta zabalduaren artean: San Kristobal plaza, Gamarra plaza eta Plaza Zaharra. Ez da batere normala bi hiribilduen artean hainbeste leku geratzea hutsik; bien arteko lotura saihestu nahi zutela ematen du, nahiz eta zaila den arrazoia argitzea. Bizkaiko jaurerrian, behinik behin, ez zen horrelakorik gertatu.

Hiribilduan egindako azken aldaketak: suhesia, hirugarren harresia eta kanpoko errebalak.

Suteak ohiko ezbeharrak ziren Erdi Aroko hiriguneetan; izan ere, etxeak egurrezkoak izateaz gain, hurbilegi egoten ziren. 1442ko suteak, esate baterako, hiribilduko etxe asko eta asko erre zituen, nola pribat

tuak (normalean ahulagoak), hala publikoak.

Horrelako gertaera tamalgarrietatik ahalik eta gehien babesteko, 1490ean suhesia egiteko baimena eskatu zioten herritarrek koroari, sutea piztuz gero, ez zedin herri osora zabaldu. Azpiri eta Intxaurren kaleen arteko kandolan eraiki zuten, portu ondora heltzean zertxobait okertuta. Guztira 7 metroko altuera zuen (garai hartako etxeek baino gehiago), eta ongi landutako harlandua erabili zuten eraikitzeko.

Bi atari egin zizkieten herri-gune berriaren alde batetik bestera igarotzeko: bata Trinidad kalean (Trinitatearen atea) eta bestea Arranegi kalean (San Nikolas Tolentino edo Piparrenportalean). Handik mende batera (1595) sekulako sutea piztu zen herrian, baina suhesiak ederki bete zuen bere egitekoa: hiribilduaren hegoaldea erabat kiskalitzen; iparraldean ez zuten, ostera, kalterik izan suhesiari esker.

Suhesia eraikitakoan beste obra publiko bati heldu zioten: hirugarren harresiari. Bi herri-guneek behingoz bat egitea zen helburua. Harresia aurreko biak aprobeztatuz eraiki zuten, hau da, babesik gabe zeuden lekuak baino ez zituzten harresiz inguratu. Beraz, harresi berriak Dendari inguruan sortutako hirigune osoa inguratu zuen, Santo Domingo komentutik hasi eta bigarren harresiko Apaltoa atariraino.

Bi ate egin zizkieten hiribildua kanpoaldearekin lotzeko: Atea ataria (lekuz aldatuta) eta Zumaseta ataria. Lehen harresiaren eta hirugarrenaren arteko gontzean Torrezar izeneko dorrea dago gaur egun.

Beste atal bat ere harresitu zuten: Ontziolako ataritik Andre Mariaren Zeruratzearen elizarainokoa. Hortaz, Plaza Zaharra eta Ontziolako eremua bereizita geratu ziren.


Harresia eraiki eta handik gutxira, kanpoaldeko errebalak eratu zituzten, Erdi Aroko azken ezaugarri aipagarriak. Errebalik handiena Arranegitik aurrera eraiki

zuten, Bidaia Onaren Andre Mariaren ataritik hasita (Ezpeleta kalean). Gaur egun Leniz dorrea eta Likona dorrea ditugu garai haren lekuko. Hirigunea Atea eta Elexatea atarrietatik aurrera ere handitu zuten, baina errebal horiek ez ziren oso handiak izan.

Eraikinak

Hiribilduetako ohiko etxeen tankerakoak ziren Lekeitioko Erdi Aroko eraikin gehienak: orube estu eta sakona zuten oinarrian, bi solairu eta teilatu-gailurra fatxadarekiko paraleloa. Zurezkoak ziren batik bat. Suteen eta etengabeko berrikuntzen ondorioz, ez da Erdi Aroko etxe bat bera ere geratzen. Baina egungo etxeetan egon badaude garai hura gogorarazten duten elementu arkitektonikoak, batzuk dotoreak (besteak beste, Ezpeleta kaleko 29. zenbakian eta Bergara kaleko 15.ean) eta beste batzuk errustikoak (Azpiri kaleko 15. zenbakian). Azpirikoaren egitura edilizioa, esate baterako, XVII. mendekoa izan arren, ez du alde handirik Lekeitioko ia hirigune osoan Erdi Aroan nagusi izango zenarekin.

Aitzitik, jauntxoek bizilekuek, gotorretxeek, gehiago iraun dute, aldaketa sakanak izan dituzten arren. Hiri-gotorleku haietatik lau daude gaur egun zutunik. Uriarte dorrea Erdi Aroan eraiki zuten, baina gerora izen bereko jauregia egin zioten inguruan, eta horixe da gaur egun kanpotik ikusten duguna. Jatorrizko zulo batzuk eta arku faltsudun sarrera hor daude oraindik. Hasieran bi solairu baino ez zituen, baina XVI. mendean hasieran beste bi gehitu zizkieten. Aldaketa barrokoek itxura militarra kendu zioten bizileku bihurtzeko. Beste horrenbeste gertatu zen Adan de Yazarren dorrearekin eta Likonarekin: horiek ere hiri-jauregi bilakatu zituzten, jadanik babesteko premiarik izan ez zutenean. Azkenik, Campilloko Turpin dorrea aipatu behar dugu. Harlandu griseko hiri-jauregia da, eta egituraz Errena-



LEKEITIOKO HIRIBILDUAK ERDI AROAN IZANDAKO BILAKAERA

zimendukoa izan arren, kutsu gotikoa dario¹⁰.

Arkitektura erlijiosoari dagokionez, bi eraikin aipatu behar dira: Andre Mariaren Zeruratzearen eliza eta San Frantzisko komentua.

Andre Mariaren Zeruratzearen elizan bi eraikuntza-aldiren emaitzak daude, argi eta garbi: batetik, jatorrizko tenplu gotikoa, eta bestetik, XIX. mendeko konponketa-lanetan erantsitako arkupea eta girola¹¹.

Jatorrizko eliza XV eta XVI. mendeen artean eraiki zuten, hiri-gutunean aipatzen denaren gainean. Burualde poligonaleko hiru nabe ditu altuera ezberdinetan. Erdikoaren indarra arbotanteen bidez kanporatzen da. Gurutze-gangaz dago estalita. Por-


tada nagusia da elementurik aipagarriena; sortzez Gernikakoaren antzekoa da.

XIX. mendearen amaiera aldera, goitik behera berritu zuten eliza: abside poligonalek kendu eta girola egin zioten, arkupe berria eraiki eta hondatuta zeuden elementu ugari konpondu. Pascual Abaroak emandako dirulaguntzarekin gauzatu zituzten lanok. Eliza zeharo berritu arren, emaitza harmoniatsua lortu zuten; izan ere, lanak arkitektura gotikoa ondoen ezagutzen zuen orduko arkitekto batek zuzendu baitzituen: Casto de Zavalak.

Santo Domingo monasterioa, hasieran eraikin gotikoa zen arren, barroko bihurtu zuten 1745ean Ignazio Iberok burututako aldaketa sakonen bitartez.



AZPIRI KALEKO 15. ZENBAKIA
Argazkia: Bizkaia, Arqueología, Urbanismo y
Arquitectura Histórica.



LEKEITIOKO ANDRE MARIAREN
ZERURATZEAREN ELIZA

Oharrak

1. Aranzadi, T. eta Barandiarán, J.M.: *Exploraciones en la cueva de Santimamiñe (Basondo, Cortezubi)*. 3ª memoria. *Yacimientos Azilienses y Paleolíticos. Exploraciones en la caverna de Lumentxa (Lekeitio)*, Bilbo, 1935. Beste honetatik jasota Arribas, J.L. eta Berganza, E.: “*Los primeros pobladores de la cuenca del río Lea*”. Lekeitio. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1992. 13-27 orr.
2. Ikus Enríquez Fernández, J. eta Sesmero Cutanda, E.: “*Andanzas y desventuras de una villa costera en la Edad Media*”, Lekeitio. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1992. 31. or.
3. Ikus hiri-gutuna ondorengo lanean; Enríquez Fernández, J.; Hidalgo de Cisneros Amestoy, C., Lorente Ruigómez, A. eta Martínez Lahidalga, A.: *Colección documental del Archivo de la Cofradía de Pescadores de la villa de Lekeitio*. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1991. 11-23. orr.
4. Ikus Enríquez Fernández, J. eta Sesmero Cutanda, E.: “*Andanzas y desventuras de una villa costera en la Edad Media*”, Lekeitio. Op. cit. 41-45. orr.
5. Archivo General de Simancas-Registro General del Sello., 1480, XII, 247. fol. Ondorengo lanean aipatzen da: Arizaga, B.; García de Cortázar, J.Á.; Ríos, M.L. eta del Val, I.: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Haranburu, Donostia, 1985, 254. or.
6. Ondorengo artikuluan argi eta garbi azaltzen da nolako antolamendu eta bilakaera izan zituen Erdi Aroan Lekeitioko populazioak: González Cembellín, J.M.: “*La evolución urbana de la villa*”. Lekeitio. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1992. 143-171. orr. Horri jarraituz deskribatu dugu Lekeitioko hiriaren Erdi Aroko egitura.
7. Velilla Iriondo, J.: *Arquitectura y Urbanismo en Lekeitio. Siglos XIV a XVIII*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1996. 95. or.
8. González Cembellín, J.M.: “*La evolución urbana de la villa*”. Op. cit. 154-157. orr.
9. Velilla Iriondo, J.: *Arquitectura y urbanismo en Lekeitio...* Op. cit. 175-176. orr.
10. Ikus Bizkaia. *Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. II. liburukia. Deustuko Unibertsitatea-Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, Bilbo, 1990. 154-156. orr. eta zehatzago Velilla Iriondo, J.: *Arquitectura y urbanismo en Lekeitio...* Op. cit. 242-313. orr.
11. Ikus Barrio Loza, J.Á.: “*El paisaje construido*”. Lekeitio. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1992. 189-195. orr.

Ondarroa

Fundazio-urtea: 1327

Fundatzailea: Maria Diaz de Haro andrea

Forua: Logroño-ko Forua

Pribilegioen hartzaileak: Nekazari jakin batzuk

Kokapena: Bizkaiko kostaldearen ekialdeko muturrean, Artibairen ahoaren ondoan

Kokalekua: Aldapa batean, Artibai itsasadarraren gainean

Altuera: 8 m

Biztanleak (2001): 9.732



Ondarroako udalerrria Oiz mendiaren magalean sortzen den Artibai ibaia-
ren ahoan dago. 3,6 km²-ko hedadura baino ez daukanez, Bizkaiko herririk txikienetako da. Bi alderdi ditu: kostaldea (bertan dago hirigunea) eta barnealdea, baserri-eremua.

Erliebeari dagokionez, altuera txikiko udalerrria da, punturik garaienak 200 metro besterik ez ditu eta. Hala eta guztiz ere, erliebea erabakigarria izan da udalerrriaren eta, batik bat, lehengo hiribilduaren habitaterako. Artibai ibaia-
ren gainean oso malda gogorak daude, bereziki ahoaren inguruan. Horregatik, hiribildu marinelak eginahalak egin behar izan zituen itsasadarraren ibilbide gorabeheratsura egoki moldatzeko, eta ondorioz, Bizkaiko beste hiribildu batzuek (Gernika, Durango, Markina...) ez bezala, Ondarroak oso plano irregularra du.

Hiribildua fundatu aurretik, hau da, 1327a baino lehen, nekazari-arrantzaleen


bizitoki zen herri-gune txiki bat ei zegoen Antiguako Amaren ermitaren inguruan, itsasadarra ezkerraldetik ixten duen kaimutur harritsuan.

Hiribilduaren fundazioa

1327. urtean idatzi zuen Maria Diaz de Haro Bizkaiko andreak Ondarroako hirigutuna, eta Amalloa eta Gorozikako nekazari Pedro Gonzalez de Arancibiak Ondarroako ermandadean izandako jabetzak eman zizkien hiribildua populatzeko.

Ordurako Bermeo, Plentzia, Bilbo eta Lekeitio fundatuta zeuden, eta Artibai itsasadarra kostaldeko lekuri proposenetakoa zen beste hiribildu bat sortu eta bi helburu lortzeko: batetik, arrantza sustatzea, eta bestetik, Jaurerria indartzea, garai hartan penintsulako barnealdearen eta Europako kostalde atlantikoaren arteko lotunea baitzen. Bizkaiko kostaldean portuak sortzeko prozesua handik hogeita hemeretzi urtera bukatu zuten, Mundakako itsasada-

rean, Bermeoren eta Lekeitioren artean, Gernika fundatu zutenean.



ONDARROAKO UDALERRIA

Beraz, Ondarroa interes ekonomikoek eraginda sortu zuten gehienbat, aurreko hiribildu guztiak bezalaxe. Baina Ondarroa izan zen arrazoi ekonomikoen ondorioz fundatutako azken hiribildua, gero Areatza eta beste guztiak nekazariak babesteko premiari erantzuteko eratu zituzten eta. Gernika dugu salbuespen bakarra, hiribildu hori ere funtsean arrazoi ekonomikoengatik fundatu baitzuten.

Ondarroaren kokagunea paregabea da itsas jardueretarako, eta Maria Andreak ere jarduerok ahalik eta gehien bultzatzeko sortu zuen ziur aski hiribildua; baina hala ere, Ondarroako hiri-gutunean ez da ia ezer aipatzen nabigazio-kontuez edota itsasoko behar orokorrez. Egia esan, kostaldeko gainerako hiribilduetako gutunetan ere, Plentzia eta Portugaletekoetan izan ezik, ezer gutxi aipatzen dira itsasoari lotutako gora-beherak. Ciriquiain-Gaiztarrok dioenez,

1327ko pribilegioa lehorreko pribilegioa da, hau da, etxaldeak, baratzeak, mahastiak, errotak, mendiak... dira gai nagusiak, eta ez portua, itsasontziak, arrantza...¹.

Zortzi urte geroago, ordea, Juan Nuñez de Larak, Maria Lopez de Haro Bizkaiko Andre berriaren ezkontideak, hiribilduaren bi aldeak lotzen zituen egurrezko zubitik igarotzen zen ontzi bakoitzari bost txanpon ordainarazteko baimena eman zien erregidoreei, hiribilduaren fundazioaren pribilegioa berretsi zuenean. Beraz, itsas jarduerak bazuten ordurako nolabaiteko garrantzia, eta Bizkaiko jaun-andreak ere hasita zeuden -agian ez oso nabarmen, ordea- jardueron alde egiten.

Juan Nuñezek hiribilduari emandako pribilegioak bazuen beste xedapen onuragarri bat ere: *“por os facer mas bien y mas merced tenemos por bien que la nuestra renteria de Amallo que sea de aqui adelante para en todo tiempo dentro en la villa de Ondarroa en aquel lugar que quisieren los que tuvieren las nuestras renterias e que ninguno non sea osado de facer carga ni descarga fuera de la villa”*. Gerora, Felipe II.aren agintaldira arte, jaun eta errege guztiak berretsi zuten xedapena: zama-lanak hiribilduan egitea zuen helburua, kontzejuak hobeto behatu eta zaintzeko eta iruzurkerietarako aukerak murrizteko.

Abantailak abantaila, eta etengabeko berrespenak gorabehera, ez dirudi xedapena benetan bete zenik, aita Henaok XVII. mendean esandakoak aditzera ematen duen moduan: *“a media legua de la villa está su rentería, adonde sube la mar; y mucho más arriba por la ría, que baja de su puerto, un pedregal y descargadero, donde cada año se desembarcan más de ochenta mil quintales de vena para la labor de diez herrerías mayores y otras tantas menores”*.

Juan Nuñez de Lararen pribilegioa jaso eta urte gutxira, 1338an hain zuzen, Ondarroa eta Lekeitioren artean sortutako auzi bati esker jakin dugu materialak artean Amalloako kanalean kargatzen eta deskar-

gutzen zituztela. Ondarrutarren asmo baten ondorioz piztu zen liskarra, Lekeitioko biztanleek portuan, Amalloako errenterian edo bere itsas jurisdikzioko edozein lekutan zamaturako egur edo merkantzien truke zerga ordaintzea nahi zutelako, hain zuzen. Lekeitiarrak, ordura arte zamalanengatik inolako zergarik ordaindu ez zuten, ez zeuden ordaintzen hasteko prest. Azkenik, Lope Garcia de Salazar mailegariak alkatebatzorde izendatu zuen Joan eta Maria jaun-andreen izenean, eta batzordeak, bi hiribilduetako aitonen seme batzuekin batera, honako erabakia hartu zuen: Lekeitioko eta Amalloako biztanleek ez zuten zertan inolako zergarik ordaindu zamengatik, betiere berriro saltzeko gauzak ez bazeramatzaten, *“sino para su casa ó su nao, ó su pinaza, su viña ó seto”*².

Kostaldean egonik, Ondarroak, barnealdeko hiribilduek ez bezala, aberastasun-iturri oparoa zuen: arrantza. Goiz Erdi Aroan Bizkaiko Jaurerria itsasoari nahikoa bizkar emandako bizi ondoren, Berant Erdi Aroan errotik aldatu zen dena, eta nola hiribilduetan (Portugaleta, Bilbo, Plentzia, Bermeo, Gernika, Lekeitio eta Ondarroan) hala kostaldeko beste herri-gune batzuetan (Santurtzi, Barrika, Gorniz eta Mundakan) arrantzari ekin zioten. Arrantza jaun eta jabe bihurtu zen kostaldeko hiribilduetan. Hain zuzen garrantzi handia, eze kontzejuetako zigiluetan ere arrantzari lotutako motiboak sartu zituzten. Ondarroakoan, esate baterako, hiribilduko zubiarekin batera, balea agertzen da, ontzi bat atzetik due-la³.


Ondarroan bertakoek jateko behar zutena baino askoz ere arrain gehiago harrapatzen zuten, soberakinak barnealdera –Jaurerrira eta Gaztela aldera– eramaten zituzten. Arraina batetik bestera eramateko joan-etorriak etengabeak ziren. Hainbat metodo erabiltzen zituzten arraina harrapatu eta handik denbora batera ere jateko moduan egon zedin: limoi-ura, berez le-

hortzen uztea (arrain gatzartua), ketzea edota, bereziki, gatzetan jartzea. Seguruenik, eskabetxea izango zen beranduen asmatutako metodoa. Horrela, barnealdeko biztanleek arraina, behar-beharrezko elikagaia izaki, jateko aukera izan zuten, eta kostaldeko hiribilduek, hala nola Ondarroak, probetxu ederra atera zioten eskari handi horri.

Ondarroaren itxura fisikoa Erdi Aroan

Planoa, babes-sistema eta zubia

Bizkaiko hiribilduen artean Ondarroak du planorik irregularrenetakoa, Artibai




PORTUKO ETXEAK ETA SANTA MARIA ELIZA

itsasadarraren ezaugarri fisikoen ondorioz. Hiribilduaren planoan ikusten den moduan, Artibairen ezker aldean uraren mailatik metro gutxira 50 metroko harkaitz itzela dago. Gauzak horrela, hirigunea magalaren hegoaldean kokatu zuten, Andre Mariaren elizan bat egiten duten hiru kaleen inguruan.

Hiru kaleak (Kale handi, Iparkale eta Goiko kale) aldapan zeuden, eta eskailera-dun kantoiak egin zizkieten goiko kaleetakoek portuko kaietara jaisteko modua izan zezaten.

Jatorrizko hirigunetik Jaurerriko barnealdera joateko Artibairi jarraitu behar zitzaien, eta Gipuzkoara jotzeko hiribilduko zubia zeharkatu behar zen.



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

Hegoaldeko magala jendez bete zenean, iparraldekora joan ziren. Hango kaleak ere Andre Mariaren elizan elkartzen ziren. XVI. mendean, oster, Amalloako erreteria aldera hedatu zuten hiribildua.

Juan Nuñez de Larak 1335ean emandako fundazio-pribilegioa berretsi zenean, eskubide jakin batzuk aitortu zitzaizkien ondarrutarrei, hesia eraikitzeke aukera izan zezaten. 1334ko gertakarien (Alfontso XI.aren tropak herrian sartu ziren) antzekorik berriro ez egokitzea zen kontua. Horrela, bada, harresi exentua egin zuten, baina urteen joanean hiribilduak hainbeste sute eta hondamendi jasan zituztenez, ez da arrastorik ere geratu. Zubi zaharraren irteeran dagoen atea harresiarena zela diote, baina uste ustela dugu hori, benetan Aita Pietatekoaren ermitaren arkupea da eta. Ermitak ematen zien ongiatorria Gipuzkoa-

tik zetozenei, baina seguruenik ez zuten aparteko babes-zereginik izango.

Zubia dugu herriko beste funtsezko elementu bat. 1335etik dago zutunik, baina garai hartan zurezkoa eta profil zuzenekoa zen (orain profil hautsia du). XVII. mendera arte iraun zuen horrela, urte hartan hiribilduko erregidoreek zubi berria eraikitzea nahitaezkoa zela erabaki baitzuten⁴. 1689ko uztailaren 24ko bilkuran hartu zuten erabakia, arrazoi hauetan oinarrituta: zurezko egitura ez zen batere sendoa, eta ibaiak gora egiten zuenean edo itsasbehera eta itsasgoretan sarri apurtzen zen. Gainera, herriko iturri bakarra zubiaren beste aldean zegoenez, zubia jausten zenean herritarrak estu eta larri ibiltzen ziren haraino heltzeko, eta derrigorrez joan behar zuten ur bila.

Sasoi hartan udalaren fondoak ez ziren oso mardulak, eta Berriatua elizatean

zituen lursail batzuk saltzea erabaki zuten *“en consideración de los motivos tan justos y utilidad tan conocida”*. Berehala eraiki zuten zubi berria, erregidoreek adierazitako beharrari erantzunez; baina uraren erasoari aurre egiteko zubi zaharra baino askoz ere sendoagoa izan arren, hurrengo mendeetan ere behin baino gehiagotan jasan zituen kalte larriak. Horregatik, 1857an berriro eraiki zuten, 1794ko abuztuaren 28an tropa frantsesek eragindako sutearen ondoren hiribilduan gauzatu behar izan zituzten beste hainbat eraikuntza-lanekin batera. Eta horixe da, hain zuzen, herri marinela honetan gaur egun daukaten zubia, hiribilduaren ezaugarri ere bilakatu dena.

Portua


Herri marinela izanik, portua zen Ondarroako funtsezko elementuetako bat, bertako merkataritza- eta arrantza-lanen arrakastaren giltzarria.

Ondarroaren barruko portua nahikoa estua da gaur egun, elkarren jarraian egin diren bideratze-lanen ondorioz; Erdi Aroan, ostera, ez ei zen horrelakoa, inondik inora. Askoz ere zabalagoa zen eta marea-aren gorabeheren mende zegoen. XIX. mendeko grabatuan ikusten den moduan, itsasgoran Andre Mariaren elizaren oinetaraino heltzen zen ura, eta orduan, ontziak hara eramane eta zirrindoletan lotuta uzten zituzten. Gero, itsasbeheran, hondarra baino ez zen geratzen alde guztietan, ubidean izan ezik, eta mugikortasuna ia erabat mugatzen zen. Horrek, baina, bazuen alderdi on bat ere: ontziak lehorrean geratzen ziren, hondarretan hondoa jota.

XVIII. mendean, zamalanak errazteko, harrizko *“mihi”* antzeko batzuk ezartzen zituzten itsasadarraren ertzetan, marinelek ontziak lotu ahal izateko. Baliteke mihi horiek Erdi Aroan ere erabili izana, baina ez dago kontu hori argitzen duen daturik. Iturriaren arabera, atrakaleku nagusia zubi

zaharra zen, ontziak sokekin lotzeko zirrindolak zeuden eta.

Xehetasun horiek guztiak kontuan hartuta, bistakoa da Ondarroako portu natura-



ANDRE MARIAREN ELIZA XIX. MENDEAN
Madoz, P.: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico*

lean ontziz ibiltzea lan nekeza zela, mareen eta hondar-metaketen ondorioz. Ibilgua hain aldakorra izanik, gune egonkor guztiak erabiltzen zituzten ontziak lotzeko: itsasadarrean tinkatutako mihiak, zubiko uztaiak, Andre Maria elizaren oinarriak (guztietan egokienak)...


XIX. mendera arte ez zuten itsasadarra bideratzeko lanik egin. Mende hartan, nabigatzeko arazoak etengabeak zirela ikusita, erregidoreek behar-beharrezkoa iritzi zioten bideratzeari, eta horrela, XIX eta XX. mendeetako lanen ondoren, Ondarroako portua goitik behera aldatu zen, bai barrualdetik (bi ibaiertzak bideratu zituzten) bai kanpoaldetik (olatu-horma eta kai handiak egin zituzten).

Eraikinak

Itsasadarraren gaineko haitz handiaren malda oztopo ikaragarria zen kaleak taxutzeko eta, zer esanik ez, etxeak eraikitzeko. Bizkaiko hiribilduek ezaugarri zuten

moduan, Ondarroako orubeak estuak ziren, baina horri beste arazo bat gehitu behar diogu: etxe-barruetan egitura mailakatuak sortu behar izan zituzten aldapa handia menperatzeko, eta ondorioz, etxe batzuek alde batean bi altuera dituzte eta bestean sei ere bai.

“Hiribilduko etxe” edo herri-etxe haietako batek ere ez du zutik iraun. Hori hiribildu askotan gertatu da, baina batez ere Ondarroan eta sute handiak izan dituzten gainontzekoetan. Egungo etxe batzuetan badago hondar txikitxoren bat edo beste: Agirretar Txomin kaleko etxe batek garai hartako arku zorrotza du, Kale handiko 12. zenbakiko ateburu batean karaktere gotikodun merkataritza-ezkutua dago eta Iparkaleko 1. zenbakiko etxearen behealdea ere sasoi hartakoa da. Erdi Aroko bestelako eraikuntza batzuek, oster, bi dorretzek eta Andre Maria elizak, egundaino iraun dute.



Likona dorretxea, esate baterako, Bizkaiko hiri-dorretxerik peto-petoenetakoa dugu⁶. Bizkaiko hiribildu gehienetan dorretxeek hiri-esparru estuetara moldatu behar izan zuten, eta ondorioz, ez ziren beste etxeak baino askoz handiagoak. Arazoak arazo, Likonatarrek hiri-dorretxe ideala

eraikitzea lortu zuten: handia, sendoa eta exentua.

Likonatarrek familia boteretsua ziren, eta itzal handikoak Gipuzkoan ere. Azkenean, Gipuzkoa urrats bira zuten, bertara joan ziren bizitzera. Ondarroan oso leku zabala eskuratzea lortu zuten, hiru orube gotikoren bestekoa gutxi gorabehera, eta hantxe eraiki zuten hizpide dugun etxe paralelepipedoa. Dorretxea asko nabarmetzen da inguruko eraikinen artean, lursail oso malkartsuan eta erabat isolatuta dagoelako. Kare-harrizko silarrixka erabili zuten eraikitzeke, baina eskantzu eta molduretan harlandua dauka. Mendez mende aldaketa nabarmenak egin zizkieten: bao gotiko batzuk estali, handiagoak egin eta lau isurkiko teilatu zaharraren ordean bi isurkikoa jarri zuten.

Ekialdeko fatxadaren ondoan, jatorri ezezaguneko harrizko horma garai-garaia dago. Baliteke ondoko beste dorretxe baten hondarra izatea, edo agian, etxea porturantz handitzeko lanen lekuko amaitu gabea.

Jatorrizko egituraren zati handi bati bere horretan eutsi dion beste eraikin bat Etxandia dorrea dugu. Ez da erraza benetan dorrea ala hiribilduetako ohiko etxeen luxuzko aldaera den jakitea, eta era berean, litekeena da hasieran dorrea izatea eta gero hiri-jauregi bihurtzea. Dena dela, behesolairuko antolamenduak Erdi Aroko hiribilduetako ohiko merkataritza-etxeen atariak dakartzkigu gogora. Berez goiko solairuak harriz jantzita daude, nahiz eta gaur egun dena, oraindik hor dirauten bao gotiko ugariak izan ezik, luzituaz estalita egon.

Dorretxeek balio handia badute ere, are handiagoa du Andre Mariaren elizak, herriko monumentu-eraikinik garrantzitsuenak. Gaur egun itsasadarraren ertzetik nahiko aldunduta dago, baina ia oraintsura arte urertzean egon da kokatuta.

Tenplua eraikitzeke lanak 1480an hasi eta XVI. mendean bukatu zituzten. Jatorriz-



LIKONA DORREA

ko fabrikatik behealdeko terraza eta kanpoko hormak baino ez zaizkigu geratu; izan ere, fatxada eta nabeen barnealdeak XVIII eta XIX. mendeetako berrikuntza sakonen ondorio dira⁷.

Estiloa Bizkaiko gotikoa den arren, nahikoa berezia da, hiru nabeetan altuera bertuko hiru atal baitaude, teilatu beraren azpian. Horregatik, eta burualde laua duelako, oso itxura trinkoa du kanpotik, eta


herriko etheen artean argi eta garbi nabarmentzen da. Gainera, ezponda baten gainean dagoenez, nagusitasun-itxura are gehiago indartzen da.

Nabeak izugarri homogeenak dira, eta horrela, barrutik zabal-zabala dela ematen du. Kare-harrizko silarriz eta hare-harriz dago osatuta, baina bi materialok hanhemenka, inolako ordenarik gabe, erabili zituzten.

Erdiko nabeen gurutze-gangak daude gurutze-formako pilareen gainean; aldamentako nabeek, oster, ertz-gangak dituzte. Dekorazioak aparteko aipamena merezi du, oso aberatsa eta orijinala baita, batez ere elizaren iparraldeko hormaren burualdean kokatutako "segizioa", XV. mendeko estilo borgoinarreko hamabi irudiz osatua. Baoak ere azpimarratzeko modukoak dira, ugarriak eta handiak izateagatik. Horregatik guztiagatik esaten da Ondarroako eliza Bizkaiko onenetakoa dela "Errege-erregina katolikoen" estiloa delakoaren baitan.

XVIII. mendearen erdian, Larrazak eta Zubillagak goitik behera berritu zuten eliza, Ignacio Iberoren egitasmoari jarraituz. Eraikina oso hondatuta zegoenez, gangak bota eta beste batzuk egin behar izan zituzten fabrika berriko sei pilare handiren gainean.

1852an, Mariano Jose de Laskurainek hiribilduko udaletxe zaharra erantsi zion fatxada nagusiari, eta jatorrizkoa estalita geratu zen. Hala eta guztiz ere, emaitza aparta izan zen, Laskurainen fatxada berria proiektu neoklasiko ederra eta ikusgarria baita benetan.



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez



ANDRE MARIAREN ELIZAREN OINPLANOA ETA ONDARROAREN IKUSPEGIA MENDE HASIERAN. Orduantxe hasi ziren portuko urak bideratzeko lanak egiten, herriko kaleak Artibaitik urruntzeko. Horrenbestez, ontziak elizaren zimenduei lotzeari utzi zioten.

Oharrak

1. Ikus Ciriquiain-Gaiztarro, M.: *Los puertos marítimos del País Vasco*. Txertoa argitaletxea, Donostia, 1986. 179-180 orr.
2. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea. Bilbo, 1968. II. liburukia. 340-341 orr.
3. Bizkaiko jaurreriko arrantza-kontuez gehiago jakiteko, Arizaga, B.; García de Cortázar, J.Á.; Ríos, M.L. eta del Val, I.: *Vizcaya en la Edad Media*. Haranburu, Donostia, 1986, 94-117 orr.
4. Hiribilduko portuari eta zubiari buruz gehiago jakiteko, ikus Ciriquiain-Gaiztarro, M.: *Los puertos marítimos del País Vasco*. Op. cit. 180-187 orr.
5. Madoz, P.: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Madril, 1845-1850. *Vizcaya-Bizkaia*. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. Ámbito-Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1990. 153 or.
6. Ikus *Bizkaia: Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. II. liburukia. Deustuko Unibertsitatea-Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1990. 211-212 orr.
7. Ikus *Bizkaia: Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. Op. cit. II. Liburukia. 39 eta 212-213 orr. eta *Arquitectura y Desarrollo urbano. Bizkaia*. Madril, 1997. 94-96 orr.

Areatza

Fundazio-urtea: 1338

Fundatzailea: Juan Nuñez de Lara eta emaztea, Maria Diaz de Haro Andrea

Forua: Logroñoeko Forua

Pribilegioen jasotzaileak: Populatzailak

Kokapena: Ibaizabalen adarra den Arratia ibaiaren bailaran

Kokalekua: Arratia ibaiaren eta adar baten artean dagoen zelaigunean

Altuera: 170 m

Biztanleak (2001): 1.031



Areatzako udalerrria (lehen Villaro) Arratia-Nerbioi eskualdean dago, Bizkaiko probintziaren hego-ekialdean. Iparraldean Bilbo Handia du mugakide, ekialdean Durangaldea eta hegoalde eta mendebaldean, Ubidea mendatea zeharkatu ondoren, Araba.

Herria Arratia bailaran dago eta hainbat mendi ditu inguruan: Upo (605 m), Murga (608 m) eta Arranatz (1.009 m). Oso mendi garaiak ez izan arren, oztopo gogorak ziren joan-etorrietarako, eta horregatik, bide gehienak ibaiaren arroaren inguruan daude.

Aspaldi (1338an) sortutakoa den arren, inoiz ez du izan benetako hiri-bizitarik. Aitzitik, Arratia bailarako gainerako herriek bezala, oraintsu arte nekazaritza eta abeltzaintza izan dira bizibide nagusiak. Gaur egun, lanbide horiei eusten zaien arren, badaude industriak ere, Nerbioi aldeak gainezka egin ondoren etorritakoak.

Hiribilduaren fundazioa

Ondarroa (1327) eta Areatzaren (1338) fundazioen artean aldaketa sakona gertatu zen Jaurrean, eta horrek berebiziko eragina izan zuen hiribilduak fundatzeko prozesuan. Ondarroa fundatu arte, jarduera ekonomikoak sustatzeko neurrien bidez herri-guneei bultzada ematea zen fundatzaileen helburu nagusia. Maria Andreak, ordea, Ondarroa fundatzean, ordura arte bezala "eskuzabal" jokatu eta hiri-gutuna baserri-gunean bizi ziren guztiei eman beharrean, nekazari jakin batzuei baino ez zien aitortu bertan bizitzeko eskubidea. Handik gutxira, Joan Nuñez eta Maria jaun-andreek Areatza fundatu zutenean, honakoa xedatu zuten: beren nekazariak hiribildura bizitzera joanez gero, ez zirela izango frankoak eta libreak, gainerako herritarrak bezala. Hau da, *"...e este fuero e estas franquezas e libertades e terminos e anigas como dicho es vos damos francamente asi a los que oy dia sodes vecinos e*

*moradores en la dicha villa de Haro como a los que han de venir de aqui adelante para siempre jamas, salvo los nuestros labradores que non vengan y a poblar...*¹. Gerora fundatutako hiribildu batzuetan, inguruko nekazariak ukatu egin zieten, besterik gabe, bertara bizitzera joateko eskubidea.

Bizkaiko Jaurerrian XIV. mendean izandako krisialdi larriaren ondorioz, jaun-andreek jarrera aldatu behar izan zuten ezinbestean. Bertiko moduan, krisialdiak etenarazi egin zuen demografiaren hazkundea, eta despopulazioaren eta errenta-galeraren ondorioz, jaun-andreek eta landa-eremueta-ko aitonen semeek arazo larriak izan zituzten. Horregatik, Ondarroa eta Areatza fundatu eta gero, trabak jartzen hasi ziren nekazariak lurra utzi ez zitzaizten, bestela errentak galduko zituzten eta. Beste jaurerri batzuetako edo koroaren menpeko nekazariak ez zieten inolako oztoporik jartzen, jakina, jaunei ez baitzien kalterik egiten². Elorrioko hiri-gutunean argi eta garbi azaltzen da hori guztia: jaurerriko nekazariak mugak finkatu zituzten Eloorria bizitzera joateko; beste jaurerriakoei, oster, zergapekoak ez zituztenei (*“de los nuestros pecheros”*), askatasun osoa eman zieten³. Areatzan ez zen horrelakorik gertatu, nekazariak bertara bizitzera joateko eskubidea aitortu zieten eta, baina hala eta guztiz ere, ez zituzten gainerako bizilagunen abantaila fiskalak izan.

Beraz, Ondarroa fundatu zenetik, jaun-andreak zalantzan ibili ziren: batetik, lurraldea hiribilduen bitartez nahi zuten antola-

tu, eta bestetik, nekazarien errentak galtzeko beldur ziren.


Hiri-gutunean adierazten denez, 1338ko abuztuaren 15ean fundatu zuten Joan Nuñez eta Maria Bizkaiko jaun-andreek

Bilboko hiribildutik. Herri berriari *“Haro”* izena eman zioten, eta hortik dator Villaro.

Gutuneko lehen xedapenen arabera, hiribildu berriko biztanleak, nekazariak izan ezik, zazpi urtean aske geratu ziren betebehar orotatik: *“de todo pecho e de todo pedido e de fondado e de fonsadera e de ayuda e de servicio e de toda servidumbre del dia de oy que esta carta es fecha en adelante fasta siete annos complidos*

que se fagan”. Zergarik gabeko epe horren helburua hiribildua populatzen laguntzea zen, eta behin populatutakoan, herritarrei harresia eraikitzeak erraztasunak ematea, garai hartan oinarrizko hiri-elementuak baitziren, eta behar-beharrezkoak ere bai herritarrek babesteko.

Ondoren, Joan eta Maria jaun-andreek honako barruti hau eman zioten hiribilduari: *“desde Sant Bartolome fasta en la tejera d’Arenasa a los campos d’Aquinate, e desde Aberacha, e dende a Ygorriaga e dende a Guyluçeburu, dende ariba, e dende a Sant Gubero, e dende a Hurquizcaburuyn e dende a Çelayburu”*. Horrekin batera, beste hau ere jaso zuten herritarrek: *“la dehesa de Gorordo [...] por do parte del vn cabo con los de Alexabetia e con el monesterio de Çeanori fasta el agua, por do es dado por villa, fasta en Sant Bartolome e fasta en Boliuar”*. Gainera, Juan Martinez de Berrando, Juan Sanchez de Bolivar eta Juan de Sendoaren oinetxeak (jaunaren nekazariak ziren) eman zizkien, eta trukean, hirurei gainerako herritarren zerga-salbuespenak eta askatasunak aitortu zizkien.



Hiribilduaren barrutia finkatu eta gero, biztanleek zein pribilegio juridiko eta ekonomiko izango dituzten zehazten du gutunak. Pribilegio juridikoei dagokienez, Logroñoeko Forua eman zieten populatzaileei, eta muga hau ezarri zuten: alkate, zinegotzi, preboste, eskribau eta justizi agintariek bertakoak behar zutelara izan.

Abantaila ekonomikoak, berriz, lau ziren:

- Hiribilduko populatzaileek Bizkaiko jaurerrian ez zuten bidesaririk, hogeita hamarrenik eta kalte-saririk ordaindu behar, gainerako hiribilduetakoek ere ez zituzten ordaintzen eta.


- Larunbatetan merkatua egiteko eskubidea eta bertara etorritakoen babesia.

- Bilbotik eta Bermeotik Gasteizera zihozazenek hiribildutik pasa behar zuten, baldin eta bizkaitarrak ez baziren.

- Bertakoek baino ez zuten Arratiako lurretan salerosketan aritzeko eskubidea.

Abantaila horiek guztiak kontuan hartuta, eta gainera, bailarako herri-gune bakarra izanik, Arratiako ardatz bihurtzeko aukera guztiak zituen Areatzak. Baina abantailak abantaila, Bizkaiko beste hiribildu askok bezala, ez zuen ia inolako garrantzi eta eraginik izan jaurerrian. Bertatik igarotzen zen bideak zerikusia handia izan zuten horretan, barnealdera zihoazanak, hala nola, Kadagoa (Balmasedatik), Nerbioi (Urduñatik) eta Durangaldekoak (Durango eta Otxandiotik) askoz ere

garrantzitsuagoak baitziren. Gutxi aukeratzeko zuten Ubideko pasabidea, eta hiribilduak berak ere ez zuen oso gogor joko-



AREATZAREN KOKAPENA ERDI AROKO
IBILBIDEETAN

tu bidearen gain zituen eskubideak beteazteko.

Ahulezia horren ondorioz, bestalde, lanak izan zituen hiri-gutunean jasotako lurralde-barrutiei eusteko. Arazo berbera izan zuten Bizkaiko beste hiribildu askotan ere. Areatzaren eta Orozkoko bailararen artean liskarrak sortu ziren aipatutako gaia zela eta. 1516an, Joana erreginak bi entitateek lurraldearen mugen inguruan zuten auzia konpontzeko agindu zion Bizkaiko



AREATZAKO HIRIBILDUAREN IKUSPEGIA



korrejidoreari, mugarri-faltak ez zezan bien artean istilurik sortarazi. Dagoen informazioak ez du argitzen Areatzak gatazkaren ondorioz lurrik galdu zuen ala ez, baina jaurerriko hiribilduen eta Lurralde Irekiaren arteko ika-mikak etengabeak izan ziren mendez mende. Gehienetan Lurralde Irekia izan zen garaile, baita hiribildu boteretsuen aurka (Bilboren kontra, esate baterako) aritu zenean ere.

Erdi Aroaren bukaera aldera, Areatza baserri-herria zen artean. 93 sutegi besterik ez zituela, Bizkaiko hirugarren hiribildurik txikiena zen, Errigoitiren eta Lanestosaren ondoren⁴. XIX. mendean ere 74 _ sutegi baino ez zituen, Madozek dioenez⁵. Gaur egun Igorre bihurtu da eskualdeko industri hiri-

buru, eta Areatza erabat zokoratuta dago. Dena dela, guneko historiko interesgarria da Erdi Aroko garapenik txikieneko herriak benetan nolakoak ziren jakiteko.

Hiribilduaren hirigintza-egitura Erdi Aroan

Areatza erraz babesteko moduko lekuan fundatu zuten, Arratia ibaiaren eta bere adar Gorbeiaeren arteko penintsula antzekoan.

Areatzako planoak urrundu egiten da hiribilduetako ohiko antolamendu zurrutetik, lurzorua berezko ezaugarrietara besteak baino askoz ere gehiago moldatu baitziren. Horrela, kale bat bihurtuta taxutu zuten, Arratia ibaiaren bihurtun jarraitzeko. Planoak bi kale nagusi eta kantoi

bakarra ditu. Kaleek hego-ipar norabidea dute gutxi gorabehera, eta kantoia elizan (mendebaldeko muturrean) hasi eta Arratia ibaiko zubiraino heltzen da. Kale batean San Bartolome elizara doan igarobide txiki bat dago, eta igarobidearen amaieran, elizaren ondoan, plaza, herriko eraikinik balio-tsuenak dauden gunea.

Han, merkataritza-trafikoa hiribilduaren barrutik igarotzen zen, hain zuzen, mendebaldeko kaletik barrena. Eliza ondotik pasatzen zen, beraz, eta iparralderantz eginez, Gorbeia ibaia zeharkatzen zuen zubitik. Areatza bi ezaugarri erreparatuta antolatu zuten: batetik, lursailari, kaleetako bat bihurtuz, eta bestetik, funtzionalitate ekonomikoari, kaleak merkataritza-trafikorekin norabidearen arabera taxutuz.

Hiribilduak demografi dentsitate eskasa zuenez, orube ugari geratu ziren bete gabe, eta hasieran baratzetarako erabili zituzten, bertakoentzako elikagaiak lortzeko. Geroago, ordea, jauregi eta etxe handiak, Gortazar jauregia kasu, eraiki zituzten hutsik zeuden orube askotan. Gortazar jauregiaren beheko gorputza XVI. mendekoa da, goikoa, adreiluzkoa, XVII.ekoa eta pintura barrokoak XVIII.ekoak. Udaletxea, P.L. Bengoechearen lan neoklasikoa, XIX. mendean erdialdekota da.

Esanak esan, San Bartolome eliza eta Errukiñe kaleko 2. zenbakiko etxea dira Erdi Aroko iraganaren lekukorik garrantzitsuenak. Lehena, XIV. mendean hasi eta XIX.ean bukatutako tenplu xumea da, eta bigarrena, Erdi Aroko etxeen erako eraiki-

na, XVI. mendeko igeltsuztatu mudejarra duena⁶.

Hiribildutik hurbil (Arratia ibaia zeharkatzen zuen zubiaz bestaldera), klausurako moja frantziskotarren komentua egin zuten 1620an.

1992an, Elias Mas, Blanca Brea, Pino Urgoiti eta Inma Muguerza arkitektoek Birgaitze Plan Berezia gauzatu zuten, hiribildua babesteko; izan ere, eraikin xumeak dituen arren, herria baloratu eta babestu beharreko hirigintza-multzoa da.



GORTAZAR JAUREGIA

Oharrak

1. Hiri-gutuna ikusteko, Enríquez Fernández, J.: *Colección documental de los archivos municipales de Guerricaiz, Larrabezúa, Miravalles, Ochandiano, Ondárroa y Villaro*. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1991.
2. Ikus García de Cortázar, J.Á.ren "Las villas vizcaínas como formas ordenadoras del poblamiento y la población". *Las formas del poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*. Bizkaiko Aldundia, Bilbo, 1978.
3. Iturriza y Zabala, J.R.: *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. II. liburukia. Edición Rodríguez Herrero. Librería Arturo argitaletxea. Bilbo, 1967. 253-258. orr.
4. Ikus García de Cortázar, J.Á.: *Vizcaya en el siglo XV*. BAK. Bilbo, 1966. 72 or.
5. Ikus Madoz, P.: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Madrid, 1845-1850. *Vizcaya-Bizkaia*. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. Ámbito-Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1990. 205 or.
6. Ondorengo lanetik bildutako datuak: *Arquitectura y desarrollo urbano*. Bizkaia. Madril, 1997. 215 or.

Markina

Fundazio-urtea: 1355

Fundatzailea: Tello jauna

Forua: Bilboko forua (Logroñoko Forua)

Pribilegioen hartzaileak: Aitoren semeak eta populatzaileak

Kokapena: Durangotik Ondarroarako bidean

Kokalekua: Lautadan, Artibai eta Urko ibaien artean

Altuera: 72 m

Biztanleak (2001): 4.708



Markina hiribildua Markina-Xemein Udalerrian dago. 1952an Markina-ko hiribilduak eta Xemein elizateak bat egin ondoren hartu zuen izen hori, eta 1969an Ziortza-Bolibarko herrixka atxiki zitzairen. 63,8 km²-ko hedadura du eta Artibai ibaia-aren arroan dago. Artibaik Bizkaiko ipar-ekialdea zeharkatzen du, eta eremu handi hori mendiz inguratuta dago hegoaldean, ekialdean eta mendebaldean, eta itsasoari zabalik, iparraldean.

Udalerriaren hegoaldean Oiz mendia (1.025 m) dago, Artibai eta Ibaizabal ibaien arroen arteko muga. Bestalde, Oiztik bi mendi-adar ateratzen dira eta itsasorako bidean Artibai ibaitik Leara bitarteko eremua (mendebaldetik) eta Artibaitik Deba ibaira artekoa (Gipuzkoan) mugatzen dituzte.

Aipatutako ezaugarrien ondorioz, Markina-Xemein udalerria nahiko isolatuta egon da beti, inguruko eskualdeetara heltzeko zailtasun nabarmenak izan baititu.

Kostaldearekin ez du, ordea, horrelako arazorik izan. Dena den, trabak ez dira inoiz erabatekoak izan, betidanik egon direlako inguruko eskualdeetara iristeko iraganbideak, esate baterako: San Migel Gipuzkoara joateko, Muniketa (Trabakua) Durangora heltzeko eta Mereludi gaina Lekeitiora abiatzeko.

Artibai ibaia higidura-lan eskerga egiten du Oiztik behera amildu eta urak azkenean Ondarroan isuri arte. Horregatik, bai eta materialen gogortasunagatik ere, oso bailara estua eratu da. Artibairen adarrak Urko (Markinan egiten dute bat) eta Amaltoa dira, eta biek ibilbide perpendikularra dute ibaiarekiko.

Antzina, hariztiz eta pagadiz jositako ingurua zen, baina arian-arian desagertu egin ziren, mendeetan zehar horiez baliatu ziren burdinola ugarien ondorioz. Gaur egun Monterreyko pinua da jaun eta jabe udalerriko paisaian.

Hiribilduaren fundazioa

Markinako hiribildua Bizkaiko Tello jaunak sortu zuen 1355eko maiatzaren 6an, eta “Villaviciosa de Marquina” jarri zion izena. Markinaren fundazioa beste aldi baten abiapuntua izan zen Bizkaiko hiribilduak sortzeko prozesuan, arrazoi ekonomikoen ordez, sozialak nagusitu baitziren. XIV. mendearen erdiko urteetan demografi arazo larriak izan zituzten, krisialdi orokorraren ondorioz. Markinan, bestalde, arriskuan zeuden beti Gipuzkoako aitoren semeen erasoaldiengatik, eta horietatik babesteko eskatu zioten Bizkaiko jaunari hiribildua eraikitzeko baimena Markinako merindadeko aitoren semeek. Baiezko erantzuna lortzeaz bat, ekinean hasi ziren Artibai eta Urko ibaien artean kokatutako Aspiltza izeneko lekuan: *“Et yo el dicho Don Tello por quanto los dichos hijos dalgo de la dicha Merindad me piden cosa que es mio servicio, et por esta razon de que la dicha Villa fue poblada bedaran el dicho paso a los de Guipuzcoa et non abran lugar para entrar á facer robos, nin otros males, nin danos en la dicha mi tierra de Vizcaya tobelo por bien: et por facer bien et merced a los dichos hijos dalgo de la dicha merindad tengo por bien que pueblen la dicha Villa en el dicho Campo de Aspiltza, que es en el dicho Valle, et la cerquen, et la fortalezcan lo mas que ellos podieren para mi servicio...”*¹.

Dena den, Jaurerriko arazo sozial eta demografiko larrien eraginez, aurreko hirigutunek ezaugarri izandako eskuzabaltasuna izugarri murriztu zen, eta nekazariak izan ziren kaltetuenak. Ordura arte, nekazariak ez zuten inolako mugarik hiribilduetara bizitzera joateko; Tello jaunak, ostera, Markina fundatzean argi asko zehaztu zuen bere zergapekoak ziren Bizkaiko nekazari batzuk ez zutela horrelakorik egiterik izango: *“que non entren á poblar nin a morar en la dicha Villa algunos de los mis labradores de tierra de Vizcaya que agora son mios pecheros, nin ninguno de ellos, porque yo non*


pierda los pechos et pedidos, et derechos que de ellos he de haber...”.

Halaber, garai hartan Jaurerria jasaten ari zen krisialdi gogorra zela eta, hamar orube huts baino ez zizkion eman hiribilduari: Aspiltzako lautada, Alsobi, Altzalei, Zuminaga, Darretai izeneko bi, Barendako bi, Olaigi eta Murua.

Bizkaiko jaunak orube horiei Igoz eta Olabaso mendiak eta barruti hau gehitu zizkien: *“desde el monte que ganó Lope de Iturreta fasta Olabarriaga et desde Berengarai fasta el dicho monte Igoz, que es de la goarda del Merino”*.

Hiribilduko lurrek ez zuten batasunik edo osotasunik, elkarri atxikitako eremu sakabanatuak ziren, eta inguruko elizateek (Xemein eta Etxebarriak) beren lurrak mugatu ahala mugatu zituzten Markinakoak ere. Hiribilduaren barrutian, Bizkaiko jaunaren lursailak ez ezik, aitoren semeenak ere sartu zituzten, baina horiei ez zien inolako kalterik egin, kontuan hartu behar baita beraiek eskatu zutela estatutu berria.

Hiribildu berriei lur jakin batzuk ematea guztiz ohikoa bazen ere, Markinako hiri-



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

- Markina hiribildua
- Xemeingo elizatea
- Etxebarriko elizatea
- Ziortzako elizatea

HIRIBILDUAREN ETA INGURUKO ELIZATEEN BARRUTIAK ERDI AROAN
Iturria: Lozano Villamor, F.A.: *Markina-Xemein*, 29. or.

gutunean azalpenak eman zituen jaunak: *“los que moraredes en la dicha Villa non podie-redes y facer sin termino en que paciesen et bebiesen las aguas los buestros ganados, et por esto poderse hiermar la dicha Villa...”*. Ikusten denez, jaunaren desio nagusia hiribildua populatzea zen. Ez dago 1348ko izurrite beltzak Jaurerrian eragindako ondorioei buruzko zuzeneko daturik, baina pentsatzekoa da jauna beldur zela lurraldea ez ote zen despopulatuko, Markinako hiribildua baita izurritearen ondoren fundatu zuten lehena².

Beraz, ordura arteko hiribilduak arrazoi ekonomikoengatik fundatu zituzten arren, Markinan beste arrazoi batzuk nagusitu ziren: lurraldearen despopulazioa saihestea eta merindadeko biztanleak Gipuzkoako aitonen semeen erasoaldietatik eta, oro har, bando-kideen arteko borroketatik babestea.

Markina izenak berak ere Gipuzkoarekiko “marka” edo muga dela adierazten du. Gipuzkoa aldean 1346tik “Villamayor de Marquina” (oraingo Elgoibar) zegoenez, denbora batez “Villaviciosa de Marquina” edo “Markina berria” edo “txikia” esan zioten “handitik” (Elgoibartik) bereizteko. Azkenean, jendea Markina deitzen hasi zitzaion, besterik gabe³.

Horrela, bada, hiribildua sortu ondoren Gipuzkoarekiko muga indartu egin zen, ekialdetik etortzeko igarobide bakarra zen gune horretan elkarren ondoan bizi ziren biztanleentzat errazagoa baitzen aitoren semeen oldarraldiei aurre egitea: *“que non habian otro Lugar por do entrar sino por el campo que dicen de Aspiltza, por la cual dicha entrada habian entrado por muchas veces en los tiempos pasados fasta aqui los de tierra de Guipuzcoa et habian fecho muchos robos, et furtos, et fuerzas, et muchos males et daños en los mis basallos, et en la mi tierra de Vizcaya...”*.

Edonola ere, arrazoi militarrez gain, interes ekonomikoak ere egon ziren, baina ez ziren izan hiribilduetan bezain garran-

tzitsuak. Markina Durango aldetik kostalderako bidean zegoenez, hiribildukoek merkataritza-trafikoan parte hartzeko aukera zuten.

Bestalde, Markinaren sorrerak bete-betean baldintzatu zuen lurraldearen antolamendua. Han-hemenka sakabanatutako asentamendu ugari osatutako baserri-eremu hartan hirigunea sortu zuten. Jende dezente bizi zen bertan, eta hiribilduetako jarduera ekonomiko bereizgarriak hasi ziren hedatzen, hala nola, merkataritza eta artisautza. Gainera, Lurralde Irekian ez bezalako gobernu-erak izan zituzten hiribilduan: lehenbizi Logroñoko Forua, gero Alcalako Ordenantza eta, zertxobait geroago, Erresumaren Legeak.

Erdi Aroko biztanleria eta ekonomia

XIV. mendeko atzeraldia ondoren, XV. mendean, batik bat azken urteetan, susperraldia heldu zen Jaurerrira. 1479an Markinako udalak hutsik zegoen azken etxea, Burumendiakoa, alokatu eta hainbat lursail banatu zituen herrikoen artean. 1494an, Markinako biztanleek Errege-erregina Katolikoengana jo zuten egurrik ez zutelako kexatzera. Handik urtebetera, hiribilduak biztanle batzuk hartuta zeuzkaten herri-lurak berreskuratu zituen. Gertakari horiek guztiek argi erakusten dute hamabosgarren mendearen azken urteetan demografiak gora egin zuela⁴. 1514ko sute-gikontaktetik ere ondorio bera ateratzen da, 228 su baitzeuden. Horren arabera, Markina Bizkaiko zortzigarren hiribildurik handiena zen, Bilbo, Durango, Lekeitio, Bermeo, Urduña, Elorrio eta Balmasedaren ondoren⁵.

Markinako hiribildua fundatu arte, eta gerora ere urte askotan, abeltzaintza izan zen ingurueta jarduera nagusia, lurraldeak ez baitzuen nekazaritzarako aukera handirik ematen. Basoak hain ugariak izanik, leku asko zegoen behi-, txerri- eta ardi-aziendak hazteko. Hiri-gutunean ere bera-

riaz aipatzen da hiribilduak tokia behar zuela ganaduek bazkatu eta ura edateko.

1355ean hiribildua fundatu zutenean, izugarri handitu zen bertakoen zereal-eskaria, gehienbat XV. mendean biztanleriak izandako hazkundearen ondorioz. Premia horri erantzutearren, ganaduentzako erabiltzen zituzten lursail asko nekazaritzarako hartu zituzten. Dena dela, abeltzaintzaren atzerakada horretan, nekazaritzak ez ezik, burdinolen gorakadak ere izan zuten zerikusia. Burdinolek barra-barra behar zuten egurra eta hiribilduko baso-eremua murriztu egin zen arian-arian.

Egia esan, Erdi Aroan burdinolak ziren Markinako merindadeko eta Ziortzako monasterioaren inguruetakoko ekonomiaren oinarrietako bat. 1413an bi burdinola zeuden, Antxia eta Ansotegi; mende-amaieran, berriz, hamaika: Otaola, Amallobieta, Plazakola, Obekola, Ubilla, Laris, Agorria, Ibarra, Iruzubieta, Andonaegi eta Urrusolo⁶. Burdinazko barrak egiten zituzten. Armagintza zen Markinako jarduera bereizgarria, eta besteak beste, arnes bikainak egiten zituzten. 1505ean, Gaztelako koroak 1.250 arnes eskatu zizkien: *“fechos a la çuiça, con su çerbilera açerada, con su barbote e un piastron azerado con cada dos launas anchas que desçiendan tanto como la delantera de un arnes e medio braon e una goarda e medio cañon guarneçido con sus correas e estopas e ibiletas e los otros aparejos, que non le falte cosa alguna que se den a prueba de un puñal azerado e de un buril azerado, provandolo en todo lo delantero que es en el encuentro e en toda la çerbilera”*⁷.

Tamalez, XV. mendeko oparotasunak gainbehera jasan zuen XVI.lean, Europako labe garaien eraginez Bizkaiko betiko labe baxua zokoratuta geratu ondoren. Muskizko burdina –horixe erabiltzen zuten Markinan– bikaina zen oso, eta egokiagoa labe baxuko sistemarentzat, baina lan handia zuenez, burdina, primerakoa izan arren, garestiagoa ere bazen. Aipatu bezala, labe

garaien eraginez garai latzak izan zituzten burdinoletan, baina armagintzan, bereziki, gorriak ikusi zituzten eta XVI. menderako ia erabat desagertu zen. Hona hemen gertakari adierazgarri bat: 1574an Felipe II.ak burdina urtuzko artilleria Ingalaterran eskatu zuen, eta bere arbasoek euskal arnesgileei enkargatu zieten beti gerra-materiala⁸.

Oro har, hiribildua sortutakoan inguruko eremuak berrantolatu egin behar izan



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

MARKINA, XEMEIN, ETXEBARRIA ETA
ZIORTZAKO XV. MENDEKO BURDINOLAK

zituzten, eta halaber, nekazaritzari, artisautzari eta merkataritzari ateak zabaldu.

Artisautzan, ofizio berekoak gremioen antzeko elkarteetan bildu ohi ziren, beren interesen alde egiteko. Hiru mailatako langileak zeuden: artisaumutilak edo apendizak, ofizialak eta maisuak. Lehenengoek denbora bat ematen zuten maisuarekin lanbidea ikasten, eta gero, ofizial izendatzen zituzten. Artisaugehienak ofizialak ziren. Azkenik, maisugaiek azterketa egin behar izaten zuten, beste maisu batzuen aurrean edo maila handiagoko lanbide-erakundeek izendatutako epaimahaikideen aurrean. Horren adibide ditugu, besteak beste, eskribauak: Koroak berak zehazten zuten zenbat kobratu behar zuten eta merindade bako-

tzean zenbat egon zitezkeen gehienez. Adibidez, Markinan 1495etik aurrera eta Antzinako Erregimen zahar osoan bost eskribau egon ziren⁹.

Maisuak gremioetako oligarkia ziren. Horregatik, hamaika gatazka sortu ziren ofizialen eta maisuen artean. 1499an, esate baterako, Markinako armagin ofizialek greba egin zuten soldata igotzea nahi zutelako¹⁰.

Merkataritzari dagokionez, kanpo-merkataritzan jarduten zuten Bizkaiko hiriguneak ez bezala, Markina eta beste hiribildu txiki asko inguruko beharrak asetzer mugatu ziren.

Hiribilduaren itxura fisikoa

Markina hiribildua berriaren berriz eraiki zuten Aspiltza ibar zabalaren lautadan, eta hiriaren trazatua erraz taxutu zuten, beraz. Hiru kale paralelo (Guen kalea, Erdiko kalea eta Okerra kalea) egin zituzten, zeharkako beste kale batean amaitzen zirenak (Zehar-kalea). Lavedanek "arrainhezurraren" eskema deitzen dio Bizkaiko beste leku askok ere (Bilbo, Durango, Gernika edo Mungiak) ezaugarri duten egitura horri. Dokumentu zaharretan beste izen hauek agertzen dira: Susera, de suso edo Somera kalea (Guen kalea); erdiko kalea edo Artekale (Erdiko kalea); Yusera, Baxera edo Barrenkale (beheko kalea, orain Okerra); eta zeharrekoa (Zehar-kalea).

Plano erregular horretan nahiko kanto estu batek mozten zituen hiru kale paraleloak. Erdi Aroko hiribilduetan, kaleak elkarri lotzeko eta batetik bestera itzulunguru handiegirik ez eman behar izateko egiten zituzten kantoiak. Markinan beste eginkizun bat ere izan zuen: udaletxea eraiki arte, bertan biltzen zen batzuetan kontzejua. Biltzarrok ez ziren seguruenik kantoian bertan egingo, kantoia eta Erdiko kalearen artean eraiki gabe zegoen txoko batean baizik¹¹. Ez dago garbi kantoia Okerra kalearen parean mozten zen ala gaur egun hu-


tsik dagoen orubetik (XIX. mendean hutsik zegoen, Coelloren irudian ikusten denez) jarraitzen zuen¹². Ziur aski, Erdi Aroan Okerra kalea gurutzatu ondoren, bertako orubeen atzealdetik harresiaren bitarteko erronda-pasabideraino jarraituko zuen.

Bi kaleren eta kantoia arteko espazioari etxe-uharte deritzo. Etxe-uharteak hedadura bereko ataletan zatituz sortu zituzten orubeak. Oso estuak eta sakonak ziren, 6 metroko zabalera eta 12ko sakonera baituzten.

Hasieran, orubeek etxea eta, atzealdean, baratze edo biltegia izaten zuten, baina biztanleria handitu ahala, baratzeak etxeak eraikitze erabiltzen hasi behar izan zuten. Arian-arian, baratzeak kanpoaldera eramane zituzten. Bestalde, Erdi Aroan babes-harresia eraiki zuten orubeen inguruan, garai hartan oinarrizko elementua baitzen hiriguneetan. Lehen adierazi dugun bezala, merindadeko bizilagunak Gipuzkoako aitonen semeen erasoetatik babesteko sortu zuten Markina nagusiki. Horregatik, hiri-gutunean bertan harresia eraikitze berariazko baimena eman zieten populatzaileei, eta gastuak ordaintzen laguntzeko, jaunak hamabi urtez atzeratu zien zergak ordaintzeko betebeharra. Egia esan, makina bat eginkizun zituen harresiak. Biztanleria babesteaz gain, kontrollekua ere bazen; gainera, eraikin-multzoari batasuna eta kohesioa ematen zizkion, eta hiribildua inguruko landa-eremutik bereizten zuen.

Gaur egun ez dago Erdi Aroko harresiaren arrastorik. Edonola ere, egungo planoari erreparatuta argi asko antzematen da non zegoen. Mugartegui dioskunez, jatorrizko harresiaren abiapuntua Solartekua etxeen (Mugartegi etxe-jauregia dagoen lekuan zeuden) mendebaldeko muturra zen. Gero, Okerra kaleko etxeen atzealdetik jarraitzen zuen ekialdeko muturreraino eta Zeharkaletik Ibita dorretxera, orain Vega hotela dagoen lekura, abiatzen den. Dorretxean,

Markina



arku baten eta bertako atariaren bitartez, Arrate etxearen ertzetik zetorren hormazatiarekin egiten zuen bat. Handik, Elixabarriko San Pedro parrokiaren mendebaldeko

eremu osoa hartuz, Solartekua etxeetara heltzen zen berriro¹³.

Hiribilduko etxeen eta harresiaren artean erronda-pasabidea zegoen herritarrak

babesteko¹⁴. Baina Jaurerrira bake-garaiak heldu zirenean galdu egin zuen betekizun hori, eta pixkana-pixkana eraikuntzek hartu zuten harresiaren lekua, etxebizitza-eskasiari aurre egiteko. Azkenean, erabat desagertu zen.

Harresiak hiru ate zituen kanpoko alde-
rantz. Lehenengoa, Goiko portalea, Guen
kalearen irteeran zegoen, Durangorako
bidean. Arkua zuen gainean, eta dokumen-
tuen arabera, 1625ean eta 1719an konpon-
ketak egin zizkioten.

Bigarren atea Irureta portalea zen eta
Etxebarriko elizaterantz ematen zuen Ze-
har-kalearen amaieran zegoen, Ibita dorre
zaharraren ondoan.

Hirugarrena, Orueta portalea, Zehar-
kalearen bukaeran zegoen, Ondarroarako
bidean, Garakate dorrearen ondoan.

Atariak zurezko orri sendoak zituzten,
baina badirudi 1411ko sutean kiskalita
geratu zirela. Horra zer agindu zuen Luego
lizentziatuak 1514an hiribildura etorri
zenean: *“Otrosy por quanto yo hallo que en la
dicha villa no ay puertas aviendo nescesidad
dellas mando al concejo, alcalde, justicia y regi-
dores de la dicha villa que para el dia de San
juan de Junio próximo que viene hagan puertas
de tabla que sean buenas e sean fuertes con sus
barras de yerro so pena de cinco mil maravedis
para los reparos de la dicha villa la mitad y la
otra mitad para el acusador”*. Baina markina-
rrek ez zuten agindua bete, atea egitea ez
zitzaielako, nonbait, beharrezkoa iruditzen.
1579an behinik behin agindua betetzeke
zegoen, urte hartan atea egitea erabaki
baitzuten udalak biztanleak izurritetik
babesteko.

Ateak, hiribildua babesteko osagaiak ez
ezik, bilera-guneak ere baziren, hiribilduan
ez baitzegoen leku ireki zabalik. Hasieran
Goiko portalearen ondoan bazegoen lekua,
baina gerora Elixabarria ermita egin zuten
bertan. Irureta portaleak, “hiribilduko
hariztira” (egungo Zelaira) ematen zuen,
eta, hiribilduan ez zegoenez plaza handirik,

azoka eta bestelako ospakizunak hantxe
egiten zituzten.

Kale, plazatxo eta harresiaz gain, elizak
ziren Markinako eremu publikoaren lauga-
rren osagaiak. Markinako hiri-gutunaren
arabera, inguruan zegoen Xemeinganeko
Andre Mariaren monasterioa erabiltzeko
eskubidea zuten herritarrek, baina monas-
terioak Jaunari ordaindu ohi zizkion 1.200
marabediak beraiek ordainduko zituzten
aurrerantzean. XV. mendearen bukaeran,
monasterioaren ondoan Xemeingo Andre
Mariaren eliza, udalaren jabetzakoa, hasi
ziren eraikitzen. Gaur egun, Euskadiko
monumentu nazional dago izendatuta, eta
euskal gotikoa delakoaren (XVI. mendea)
lanik bikainenetakoa da. Bizkaiko hiribildu
gehienetan ez bezala, eliza ez zegoen ez
hiribilduaren barruan, ez ondoan, nahikoa
urruti baizik.

Esanak esan, aipatzekoa da Markinako
parrokia zenbait urtez herri barruan egon
zela. Xemeingo Andre Mariaren parroki-
aren jabetza zela-eta Markinako hiribildu-
aren eta bi Ahaide Nagusiren (Barroeta eta
Ugartetarren) artean sortutako auzian
Ahaideek monasterioaren sarreran dorre
militarrak eraikitzea erabaki zuten, bilauek
elizkizunetara joaterik izan ez zezaten.
Gauzak horrela, herritarrek San Pedrori
eskainitako parrokia eraiki zuten hiribil-
duaren barruan (Goiko portalearen ondo-
an). Handik aurrera, San Pedro parrokiak
jaso zuen lehen Xemeingo Andre Mariari
ordaintzen zioten dirua. Beraz, ermita ez
zen aurretiaz taxututako egitasmu baten
emaitza izan, Ahaide Nagusiekin sortutako
liskarren ondorioa baizik.

XV. mendean, ermita, parrokia ez ezik,
hiribilduko kontzejua biltzeko tokia ere izan
zen. Nabe bakarreko eraikina zen, eta ganga-
dun estalkia eta bao bakarreko kare-harrizko
kanpai-horma zituen. 1848an bota egin
zuten, oso egoera kaskarrean zegoelako.

Hiribilduaren espazio publikoa azertu
ondoren, eremu pribatuaren nondik nora-

koak aztertuko ditugu, hots, etxebizitzaren gaiari helduko diogu.

“Hiribilduko etxea” zeritzana izan zen Markinako eta, oro har, Bizkaiko hiribildu guztietako eraikuntza-mota bereizgarria. Etxe estuak ziren, luzexkak, eta bi isurkiko teilatua zuten kale aldera. Salbuespenak salbuespen, etxeen artean mehelinak zeuden: Antxia eta Ansotegi dorreek (lehengo Ibarra eta Munibetxeak) eta Zehar-kaleako 6. zenbakikoak (orain botata dago), mehelinen orde, korridoreak zituzten ondoko etxeetatik bereizteko. Ez dago ziur esaterik, baina baliteke Erdi Aroko egitura bereizgarria korridorea izatea edo, behinik behin, korridoreak mehelinak adina erabiltzea.

Etxeak normalean bi solairukoak ziren: behekoa merkataritza edo artisautzarako erabiltzen zuten, eta goikoa bizitzeko. Etxe askok atzealdean baratzea zuten, lehen ere esan dugunez. XV. mendera arte batik bat zura erabili zuten eraikinetan, eta ondorioz, 1411ko sute ikaragarrian hiribildu osoa erabat kiskalita geratu zen. Horregatik, pixkanaka harria erabiltzen hasi ziren, eta horri esker, suteen arriskua murriztu eta solairu gehixegoko etxeak egin ahal izan zituzten.

Markinako beste eraikuntza tipikoak dorretxeak ziren, bertako nobleziaren bizilekuak. XIV eta XV. mendeetan, Jaurren hain hedatuta egon ziren aitoren semeen dorretxeak hiribildura eraman zituzten. Baina hiribilduetako dorretxeek landa-eremuak baino muga gehiago zituzten, orubeen egiturara egokitu behar zuten eta. Gehienak bi oruberengainean eraiki zituzten, hiribilduko etxeak bezain estuak ez izateko. Hasieran itxura militarra (almenak, gezi-leihoak...) zuten arren, denboraren poderioz, eraikin zibilagoen funtzionaltasunera jo zuten: leihoak handitu egin zituzten barruko geletan argia sartzeko, eta balkoiak ezarri zituzten. Dorretxeak hiri-jaurerri bihurtu ziren.

Markinako dorretxeak harresitik hurbil eraiki zituzten: ondoan, baina ukitu gabe. Dorretxeak –eta ez biztanle guztiak– babestea zen helburua. Salbuespen bakarra Ibita dorrea dugu (desagertuta dago jadanik), harresiaren osagaia zen eta.

Hauek dira oraindik zutik dirauten dorreak:

Garakate dorrea: Okerra kaleko 2. zenbakian dago, Orueta portalearen ondoan (desagertuta dago). Harresiko errondapasabidea orubeentzat hartu ahala, dorretxearen oinak, kaleko beste etxeenak bezala, aldaketak izan zituen. Lehen solairuan harlanduzko horma ederrak eta dobela handiko bi bao ditu.

Kareagaetxea dorrea: Orain jauregi barrokoa da. Erdi Aroan Okerra eta Erdiko kalearen arteko etxe-uhartearen amaieran zegoen, hain zuzen, egungo Karmengo Amaren plazaren ondoan.

Antxia eta Ansotegi dorreak: Ibarra eta Munibetxea dorre zaharrak Guen kalean ondoz ondo zeuden bi orubetan eraiki zituzten. Kasu bakarra da Bizkaian.

Garakate dorrea da Erdi Aroko itxurari gehien eutsi diona. XV eta XVI. mendeetan hiribilduko eskribauen, Ruiz de Ibarratarren, bizilekua izan zen. Dorretxearen fatxada nagusiak du Errenazimenduaren eraginik handiena; atzekoan, berriz, elementu arkaiko asko daude: besteak beste, arku zorrotzak baoetan eta matakana, seguruenik behar militarrekin baino gehiago higie-ne-kontuekin zerikusia zuena.

Ansotegi dorreari Antxiakoari baino askoz ere aldaketa gehiago egin dizkiote. Gaur egun harlanduzko fatxada baino ez da geratzen, eta horrek ere konponketa ugari ditu.

Hiribilduko barrualdea zabaltzeko eta inguruko baserritarrak bertara joaten hasi ahala, harresitik kanpo eraikitzeari ekin zioten. Horrelaxe sortu ziren Erdi Aroko errebalak, harresitik at egon arren, hiribilduarekin harreman estu-estua zuten ere-

muak. Hiribildua ez bezala, errebalak ez zituzten aurrez antolatuta sortu, eta horregatik ez dute plano arrazionalik.

Errebaletara gizarte-talderik baxuenak joaten ziren bizitzera, eta gainera, hiribil-



MARKINAKO PLANOA
XV. MENDEAREN AMAIERAN

du barruan bizi zirenen handinahikeriak jasan behar izaten zituzten. Hamaika istilu sortu ohi ziren batzuen eta besteen artean. Errebalak harresi barruko esparruaren eta landa-eremuaren arteko lotune ere baziren.

Dirudienez, Markinako bi errebal Erdi Arokoak dira izatez, gehienbat XVI. men-



IBARRA EDO ANTZIA DORREA

detik aurrera garatu diren arren. Bata goikoa edo Karmengoa da: antzina Susoko errebala zen eta Goiko portalearen ondoan zegoen, Durangorako bidearen inguruan. Besteari "behekoa" deitzen zioten antzina, eta orain, berriz, Artibai. Ondarroarako bidearen inguruan zegoen, Orueta portaletik hasi eta Artibaiko zubiraino heltzen baitzen.

Oharrak

1. Hiri-gutunaren testu osoa irakurtzeko, Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea. Bilbo, 1968. II. liburukia. 841. or.
2. García de Cortázar, J.Á.: "Las villas vizcaínas como formas ordenadoras del poblamiento y la población". *Las formas del poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1978. 90-91. orr.
3. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Op. cit. II. liburukia. 371. or.
4. Lorenzo Villamor, F.A.: *Markina-Xemein. Estudio Histórico-Artístico*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1996. 32-33. orr.
5. García de Cortázar, J.Á.: *Vizcaya en el Siglo XV*. BAK, Bilbo, 1966, 72. or.
6. Erdi Aroan Markina aldean zeuden burdinolak aurkitu eta mapan kokatzeko, lan hau erabili dugu: Lorenzo Villamor, F.A.: *Markina-Xemein...* Op. cit. 104-106. orr.
7. AGS, CC, Pueblos, Marquina, L^o 11. Iturria: Lorenzo Villamor, F.A.: *Markina-Xemein...* Op. cit. 108-109. orr.
8. Ikus Bilbao, L.M.: "Crisis y reconstrucción de la economía vascongada en el siglo XVII" Saioak. *Revista de Estudios Vascos*. 1. zenb., Donostia, 1977. 165. or.
9. Ikus Lorenzo Villamor, F.A.: *Markina-Xemein...* Op. cit. 113-114. orr.
10. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Op. cit. III. liburukia, 41. eranskina, 733-734. orr.
11. Hiribilduaren itxura fisikoa ikusteko, Lorenzo Villamor, F.A.: *Markina-Xemein...* Op. cit. 176. or. eta *Bizkaia. Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. II. liburukia. Bizkaiko Foru Aldundia-Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1990. 168-195. orr.
12. Madoz, P.: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Madril, 1845-1850. *Vizcaya-Bizkaia*. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. Ámbito-Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1990.
13. Mugartegui, J.J.: *La Villa de Marquina: Monografía Histórica*. Echeguran eta Zulaica. Bilbo, 1927, 9. or.
14. Ikus Lorenzo Villamor, F.A.: *Markina-Xemein...* Op. cit. 176-177. orr.

Gernika

Fundazio-urtea: 1366

Fundatzailea: Tello konde jauna

Forua: Logroñoeko Forua

Pribilegioen hartzaileak: Populatzailleak

Kokapena: Oka edo Mundakako itsasadarrean, Durangotik Bermeorako bidean

Kokalekua: Lautadan, itsasadarraren ondoan

Altuera: 20 m

Biztanleak (2001): 15.264



Gernika herria Gernika-Lumon dago, 1882an Gernika hiribilduak eta Lumoko elizateak bat egin ondoren sortutako udalerrian.

Oka ibaiaren ezker aldean dago, itsasotik nahiko hurbil. Erliebea leuna da, eta txikia altueraz, kostaldea hamabost bat kilometrorra egon arren, herria itsas mailatik 20 metro eskasera baitago. Marea hiribildua baino zertxobait gorago heltzen denez, antzina herriaren sarreraraino joan zitezkeen ontziak, baina gerora itsasadarrean harea metatzen hasi zen eta nabigazioa bertan behera utzi behar izan zuten, ezinezkoa zelako. Gernikako portuak betirako utzi zion jardunari.

Adierazi dugun moduan, hiribildua Oka itsasadarraren ondoan dago, Kosnoaga mendiaren ekialdeko hegalean dagoen malda txiki batean. Bertatik ibar osoa ikusten da. Herriaren izenak berak argi adierazten du non zegoen kokatuta: "muinotxo" nahi du esan.


Giza okupazioaren lehen aztarnak Burdin Arokoak dira, Kristo aurreko II. mendeak gutxi gorabehera. Kosnoaga mendian agertu ziren, eta harresi bikoitzez gotortutako esparru bati dagozkio. Gastiburun ere garai bereko tumulu-multzoa aurkitu zuten.

Erromatarrek ere utzi dute lekukotasunik: zeramikak eta Trajanoren brontze bat, egun Bilboko Euskal Museo Arkeologiko, Etnografiko eta Historikoan dagoena. Gernika Foruko portutik hain hurbil egonik, ez da harritzekoa, inondik inora, erromatarren aztarnak aurkitu izana, kontuan hartu behar baitugu Foruko portua dela erromatarrek Bizkaiko kostaldean gehien erabili zutenetako bat. Goiz Erdi Aroari buruzko datuak, oster, urriak dira oso. 1051ra arte ez dugu inolako xehetasunik, baina urte hartako agiri baten arabera, badirudi Arabako gotzainak Gernika eta Lumoren gain zituen eskubideak Busturiako Axpeko Andre Mariaren monasterioari dohaintzan eman zizkiola.

Dena den, hiribildua fundatu aurretik merindadeek Gernikan egiten zituzten baztar nagusiak, Antiguako Andre Mariatik hurbil zegoen haritzaren ondoan, hain zuzen.

1366: Gernika hiribildua fundatu zuten urtea

Gernika hiribildua Bizkaiko Tello kondeak fundatu zuen 1366ko apirilaren 28an *"con placer de todos los vizcainos"*.



GERNIKAKO UDALERRIA

Jatorrizko agiria Gernikako Juntetxean dago eta Aldundiarena da. Hiri-agiriari esker, Bizkaiko Jaurerriko hirigunerik pribilegiatuenetakoa bihurtu zen Gernika, eta ordutik aurrera, Lurralde Irekikoaz bestelako erregimen juridikoa izan zuen.

Gutunaren bidez, lehenik eta behin, Logroñoeko Forua lortu zuten, aparteko tresna jarduera ekonomikoak garatzeko. Gernikarrek salerosketetan askatasun osoz aritzeko eskubidea zuten, eta gainera, foruaren arabera aurrerantzean frankoak izanik, Jaunaren eskubide askoren mendekotasunetik eta haren zuzeneko kontroletik aske geratu ziren. Hiribilduan beren gobernu-organoak finkatzeko eskubidea ere aitortu zieten.

Gernikako hiri-gutunean hiribilduko lehen populatzaileak aipatzen dira. 30 izan ziren guztira, eta itxuraz, betiko etxeak (eskualdean barrena han-hemenka sakabatuak) utzi eta hiribilduan eraikitako berrietara etorri ziren bizitzera¹. Jaunak ondorengo udal-barrutia eman zion hiribilduari: *"de Busturia al monte de Apratiz por los caminos de Bizcarra a Monchica et dende a Santa María de Idiubalzaga et dende a Guerequiz et dende a la herrería de Morga et dende a Arechalaba et a Ocheta Aldana et dende a Urrea et dende a Bardian et dende a Astorkuia et dende las cabas de Gaztiburru et a la ferreria de Homa et dende a Arteaga"*². Barrutia berehala murriztu zen, ordea, Errigoiti, Gerrikaitz eta Larrabetzu hiribilduak sortu zituztenean sail horietako batzuk eman zizkietelako.

Hiribilduak pribilegio gehiago ere eskuratu zituen, Logroñoeko Foruaz eta lurralde-barrutiaz gain. Horietako bat Mundakako itsasadarrean nabigatzeko askatasuna izan zen: *"mando que non dedes portazgo nin treintazgo et mado que en Portuondo nin en la barra de Mundaca nin en toda la canal deis fasta esta mi villa de Guernica precio ninguno de nabe nin de Bagel nin de otra mercaduria que benga et baia de este Lugar de Guernica o salgan sus mercaderias mostrando recauda que viene a esta villa de Guernica o que ban de ella..."*.

Gainera, jaunak debekatu egin zuen Okatik Busturiako Axpera zihoan galtzadan merkataritzan aritzea, salerosketa guztiak hiribilduan gauza zitezten, eta Durangotik Bermeorako bidea hartzen zutenentzat nahitaez Gernikatik (*"et non por otro Lugar"*) igarotzeko betebeharra ezarri zuen.

Lumoko San Pedro monasterioaren hamarrenak ere hiribilduaren esku utzi zituen, etekinak lor zitzan. Eta are gehiago, zortzi urtez zergak ordaintzetik salbuetsita geratu ziren, ziur aski, berariaz aipatzen ez den arren, harresia eraiki ahal izan zezaten.

Azkenik, astean behin (asteazkenetan, hain zuzen) merkatua egiteko baimena eman zien gernikarrei.

Oro har, Gernikako hiri-gutuna ez dator bat, inondik inora, garai bertsean fundatutako gainerako hiribildutakoekin. Markinan, Elorrion eta Gerrikaitzen, esate baterako, hiribildua sortzeko arrazoi nagusia landa-eremuko biztanleriaren babes-premiari erantzutea izan zen, bai eta populazioaren hazkundera bultzatzea ere, krisialdi sozial eta demografiko larria ari baitziren jasaten. Gernikan, berriz, jarduera ekonomikoak sustatzea izan zen helburua: kostaldearen eta Bizkaiko Jaurerriko barnealdearen arteko merkataritzagune garrantzitsu nahi izan zuten bihurtu.

Hiri-gutunak adierazten duenez, "Puerto de Guernica" izeneko lekuan fundatu zuten hiribildua. Bestalde, Bermeo, Plentzia, Bilbo, Lekeitio eta Ondarroaren ondoren Gernika fundatu zutenean, bukatutzat jo zuten Bizkaiko kostaldea hiribilduz hornitzeko prozesua. 1366an Okako itsasadarrean kokatu zuten portua, Durangaldetik zetozen salgaiak kostalderantz, eta alderantziz, kostaldekoak barnealderantz bideratzeko.

Jaurerrian ordura arte fundatutako portu guztietan bezalaxe, ekonomia izan zen Gernika hiribildua sortzeko arrazoi nagusia, Tello Jaunaren erabakian gizarteari eta demografiari lotutako nondik norakoek ere seguruenik zerikusia izan arren.

Gernikaren garapena Berant Erdi Aroan

Berant Erdi Aroko kontuak aztertzeko, bi alderdi nagusiri erreparatu behar zaie: batetik, lortutako

aurrerapen ekonomikoari, eta bestetik, Bizkaiko Jaurerriko Batzar Nagusien kokaleku izanik bete zuten eginkizun politikoari.

Erdi Aroan jarduera ekonomikoak puripurian zeuden Gernikan, bai kokalekuari bai hiri-gutunean aitortutako abantaileri esker. Zalantzarik gabe, merkataritza eta burdina izan ziren Gernikako ekonomiaren bi ardatzak.

Portuak berebiziko bultzada eman zion merkataritzari. Fundatu ere ontziak bertaraino hel zitezkeelako fundatu zuten Gernika, lehenago zehaztu dugunez. Gainera, bi portu izan zituen: Susokoa (Artekalen) eta Yusokoa (hiribilduaren hegoaldean). Eta Ondarroan bezala lotzen zituzten ontziak: eraikinen horretan itsatsitako uztaietan³.

Zubia ere bazuten, agian lehengo ubide naturalen baten ordeztu eraikia, Bilboko San Anton zubiaren antzera.

Alabaina, portua, hiribilduko jarduera ekonomikoetarako behar-beharrezkoa izan arren, berehala geratu zen zokoratuta, ezinbestez geratu ere, hareametaketen ondorioz XV. mendetik aurrera ontzientzat gero eta nekezagoa baitzen nabigatzea. Ontziak Oka itsasadarretik igartzeko zituzten arazo larrien frogak XV. mendearen amaieran kanala hobetzeko aurkeztutako proiektua dugu. Gernika eta Bermeo arteko distantzia zuen helburu. Izan ere, bi herriak lotzen zituen itsasadarra lau legoa luze zen, baina lerro zuzenean legoa eta erdi baino ez zuen.

Beraz, proiektuaren arabera, ibilbidea laburtuz gero ur gehiago sartuko zen itsasadarrean, eta ondorioz, murriztu egingo zen



bi hiribildu marinelen arteko distantzia. Errege-erregina katolikoek proiektua jaso eta Loarte lizentziatua bidali zioten, bideragarritasuna, kostua eta ondorioak azter zitzan⁴. Baina azkenean, asmo onak hutsean



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

GERNIKAREN KOKAPENA DURANGO ETA BERMEO BITARTEAN

geratu ziren, lanak ez baitziren gauzatu. Eta Gernikako portua bertan behera geratu zen halabeharrez.

Gernikako Erdi Aroko ekonomiaren beste ardatzari, burdinari, dagokionez, portuaren ondoko errenteria da aipatzekoa.

Kontzejuak kudeatutako eraikin publikoa zen. Burdinazko produktuak bertara eramaten zituzten, pisatzera, eta Bizkaiko Altxortegiaren eskubideei zegozkien zergak ezartzea⁴. Itsasadarraren eskuinaldean omen zegoen, hiribildutik oso hurbil, "Errenteriako zubia" zelakoa zeharkatu ondoren. Inguruko burdina hantxe biltegi-ratzen zuten balantza handi batean pisatu arte. Hauek dira Gernikako errenteria erabili zuten burdinoletako batzuk: Morga, Ziloniz (ibaiaren ezker aldekoak biak), Oma, Zendokiz, Katukorta, Uharka, Arra-

tzu, Sastodezales, Ororoaga eta Gorgorza (eskuinekoak). Gernikak eta bertako errementeriak, hortaz, Okaren arloan ekoiztutako ia burdina guztia monopolizatu zuten, eta metal horren gaineko kontrola, ordura arte Bermeoren eta Lekeitioen (batik bat lehenengoaren) esku zegoena, eskuratu.

Lehenago adierazi bezala, Erdi Aroan Gernikak bazuen beste funtsezko eginkizun bat: Jaurerriko Batzar Nagusiak bertan biltzen ziren. Batzarren goren aldia Aro Modernoa izan arren, Erdi Aroaren bukatetik bilera gehienak Gernikan egiteko ohitura nagusitu ondoren, hiribilduak besteek baino itzal handiagoa lortu zuen nolabait, hango bileretan Jaurerri osoan eragina zuten erabakiak hartzen ziren eta. Batzarrek diru-iturri bikainak ere baziren, jakina.

Batzar Nagusietan Bizkaiko Lurralde Irekia eta hiribilduak biltzen ziren, baina Durangaldeak eta Enkarterriek eurei eragiten zieten gaiak aztertzen zirenean bakarrik joan behar zuten nahitaez⁶.

Gernika XV. mendearen amaieran bihurtu bide zen Batzarren ohiko bilgune, aurretik batzar-leku izandakoak (Aretxabaleta eta Idoibalzaga, esate baterako) eta izaten saiatutakoak (Larrabetzu kasu) alde batera utzi ondoren. Esanak esan, aipatzekoa da bileren gunea, Gernikako haritza, hiribildutik oso hurbil egon arren, berez Lumoko elizatearena zela.


Hiribilduaren egitura Erdi Aroan

Gernikak oso hirigintza-plano erregularra eta sinplea zuen, beharbada Jaurerriko hiribilduetako onenetakoa, Bilbo eta Durangokoekin batera. Ia maldarik gabeko lekua izanik, eta berriaren berriz eraiki zutela kontuan hartuta, plano erraz asko taxutuko zuten.

Gernikako Erdi Aroko hiriguneak itsasadarraren gaineko malda txiki-txiki batean kokatutako lau kale paralelo zituen: Goien-



GERNIKAREN IKUSPEGIA XIX. MENDEAREN ERDIA ALDERA
Iturria: Madoz, P: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico...*



**GERNIKAKO HIRIGUNE HISTORIKOAREN
AIRETIKO IKUSPEGIA**



GERNIKAKO ANDRE MARIAREN ELIZA



kalea, Plazako kalea, Artekalea eta Barrenkalea. Bide nagusia hiribilduaren mendebaldetik zihoan eta goiko aldetik inguratzen zuen.

Erdi Aroan denez, artisau-tailerrez eta bidaiarientzako ostatur beteta zeuden kaleak. Plazako kalea zen guztietan garrantzitsuena. Izenak berak adierazten duenez, zabalgunea zuen eta bertan egiten zuten asteko azoka. Alondegia edo zerealaren biltegi publikoa ere han zeuden.

Lau kaleak kantoï batek moztzen zituen zeharka: Andramari kantoïak. Elizan zuen abiapuntua eta Oka ibaiko zubiraino heltzen zen, hirigune osoa zeharkatu ondoren. Planoa, beraz, sinplea zen oso, eta egokia Durangotik Bermeorako bidearen inguruko merkataritza-beharretarako.


Kaleek eta kantoïak sortutako etxe-uhartetan hedadura bereko orubeak zatitu zituzten zurezko etxeak eraikitzeko. Etxebizitza gehienek bi solairu izango zituzten: behekoa merkataritza-lanetarako eta goikoa bizitzeko. Etxe gotikoek ezaugarri duten profil luzexka nagusitu zen, batik bat biztanleriaren gorakadaren ondorioz orubeen atzealdeko baratzak etxeak handitzeko edo bitan banatzeko erabiltzen hasi zirenean.

Hiribildua eraiki zutenean harresia egin zuten inguruan, biztanleak babesteko eta hiri-esparrua zedarritzeko. Ez dakigu ia ezer harresi hartaz. Ustez, lau ate zituen: Artekaleren sarreran eta irteeran, Plazako kalearen Durango aldeko sarreran eta Erreteriarantz ematen zuen kantoïaren irteeran.

Hiribilduko esparrua jendez gainezka geratu zenean, errebala egin zuten kanpo aldean. Punturik gorenean zegoen, harresiaren eta Juntetxearen artean. Batzuetan aipatu izan da bazegoela “arrabal susero” izeneko errebal bat ere (San Joan elizatik aurrera), baina lur horiek elizatearenak ziren, eta ez hiribilduarenak.


Gaur egun, ordea, ezer gutxi geratzen da Erdi Aroko hiribildutik. Batetik, 1521eko sute izugarrian hiribildua eta bertako zurezko etxe guztiak zeharo kiskali ziren, eta beharbada, gerora plana zertxobait aldatuko zuten bideak zabaldu eta hiribildu-barruko joan-etorriak errazte aldera. Bestetik, Gerra Zibilean 1937an jasandako bonbardaketa ikaragarria aipatu behar da. Gernika goitik behera berreraiki behar izan zuten, eta jatorrizko antolamenduari neurri handian eustea lortu bazuten ere, Erdi Aroko kutsua galdu egin zuen. Gertakari tamalgarri hartan eraikin gutxik iraun zuten zutik, eta iraun zutenek ere kalte larriak jasan zituzten. Andre Mariaren eliza gotiko-errenazentista dugu eraikin horietako bat.

Gernikako Andre Mariaren eliza hiribilduko eraikinik baliotsuena da, ezbairik



GERNIKAKO ANDRE MARIA

gabe. Bost ataletan banatutako hiru nabe ditu, eta abside ortogonalak. Alboko nabek oso sakonera txikikoak dira, eta episto-



ERDI AROKO HIRIBILDUETAKO ETXE
ETA ORUBEEN OHIKO BILAKAERA

laren aldean, estriboen artean, kapera baxuak daude. Estalkia gurutze-gangez osatuta dago. Hasierako asmoa eliza gotikoa egitea zen; izan ere, lehen proiektua XV. mendearen erdikoa da. Baina behin eta berriro atzeratu zuten, eta azkenean, Errenazimenduaren eragina nagusi zenean bukatu zituzten lanak. Kutsu errenazentistaren adierazleak ditugu, besteak beste, hormen erdialdetik gorako aurretiko bistak eta euskarri exenttuak. Portada gotikoa da, eta bertako inskripzioaren arabera, 1449koa. Bizkaiko beste eliza gotiko handi batzuetan bezala (adibidez Bilboko Santiago eta Lekeitioko Andre Mariaren elizan) portada da elementurik nabarmenenetako, bai tamaina eta kohesioagatik, bai eskulturaren aberastasunagatik. Elementu errenazentistak Elorrioko Andre Mariaren elizaren antzekoak dira, eta horregatik uste da maisu berbera, Marin de Omar, ibili zela bietan⁷.

Oharrak

1. Ikus Aguirre Gandarias, S.: *Gernika medieval y postmedieval a través de los documentos (1366-1526)*. Illunzar/92 Erdi Aroko arkeologiari buruzko jardunaldiak. AGIRI, Bilbo, 1992. 8. or.
2. Hiri-gutuna lan honetan dago: E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. II. liburukia. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea. Bilbo, 1968. 843-845. orr.
3. Ikus Echániz Ortúñez, J.Á.: "El puerto de Guernica". *Aldaba*. 95. zenb. Iraila, 1998. 35-46 orr.; eta "Morfología urbana de la villa de Guernica. Siglos XIV-XVIII". Argitaratu gabe.
4. Ikus Arizaga, B.; García de Cortázar, J.Á.; Ríos, M.L. eta del Val, I.: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Haranburu, Donostia, 1986. 214. or.
5. Errenterari eta burdinolei buruz gehiago jakiteko, ikus Aguirre Gandarias, S.: *Gernika medieval y postmedieval a través de los documentos (1366-1526)*. Illunzar/92 Erdi Aroko arkeologiari buruzko jardunaldiak. AGIRI, Bilbo, 1992. 10-11. orr.
6. Batzar Nagusiei buruz gehiago jakiteko, ikus Monreal Cía, G.: *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (Hasta el siglo XVIII)*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1974, 329-470. orr.
7. Gernikako Andre Mariaren elizari buruz gehiago jakiteko, ikus *Bizkaia. Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. III. liburukia. Deustuko Unibertsitatea-Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1990, 395-396 orr.

*Argazkiak: *Gernika-Lumo*. Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 1991.

Gerrikaitz

Fundazio-urtea: 1366

Fundatzailea: Tello konde jauna

Forua: Logroñoko Forua

Pribilegioen hartzaileak: Populatzai-leak

Kokapena: Animali taldeek Durangotik Lekeitiora joateko erabili behar duten bidearen eta Markina eta Gernika bitarteko beste bide baten ondoan

Kokalekua: Mendi-magalean dagoen lautadan

Altuera: 400 m

Biztanleak (2001): 390



1883an Gerrikaitz hiribildua eta Arbatzegiko elizatea bateratu ondoren sortutako Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz udalerrian dago, Markina-Ondarroa eskualdean, Bizkaiaren ipar-ekialdean. Markina-Ondarroa eskualdearen baitan, hego-mendebaldean du kokalekua. Oiz mendiaren (1.026 m) iparraldeko magalean dago Gerrikaitz, Lea ibaiaren burualdean. 24,5 km² eta 394 biztanle ditu. Ipar eta ekialdetik Aulestirekin egiten du muga, hegoaldetik Berrizekin eta Mendebaldetik Mendatarekin.

Oiz mendia da Gerrikaitzeko erliebearen ardatza, udalerriko eremu gehienak bere malda malkartsuetan baitaude. Inguru menditsu honetan, bailara txiki estuak dira nagusi, eta horietako batean dago, hain zuzen, hizpide dugun hirigunea. Lea ibaia ondotik igarotzen da, mantso samar igaro ere, Oiz mendiaren tontorretik beherako malda izugarriak ziztu bizian jaitsi ondoren.

XIX. mendean geroztik, lehengo harizti, pagadi, gaztainondo eta artadi ugarien ordez Monterreyko pinua (*Pinus insignis*) baino ez da landatu. Horixe gertatu da Bizkaiko beste eremu zabal askotan ere.

Hiribilduaren fundazioa

Gerrikaitz hiribildua Tello Jaun bizkaitarrak fundatu zuen 1366ko urriaren 8an, Burgoseko hiri batean, Miranda de Ebron, idatzitako hiri-gutunaren bidez. Hasieran, Munitibar auzoan zen kokatzekoa (egungo Arbatzegi-Gerrikaitz udalerraren erdian, Gerrikaitzetik oso hurbil), baina inguruko elizetako zenbait nagusi zergalarik kontra egin zuten, Ajarabiden, Juan de Durangoren lurretan, sortu zuten azkenik, hasierako kokagunetik gertu¹.

Horiek guztiak argi adierazten dizkigu Joan infantearen 1372ko otsaileko babesgutunak: “*los deviseros de Santa María de Cenarruza que les non consienten en poblar en Monditibar*”. Bizkaiko Jaun berriak Juan

Hurtado de Mendoza mailegari nagusiari eta beste mailegari hiribilduaren fundazio-pribilegioa ikusi eta betearazteko agindu zien, Ziortzako nagusi zergalarien nahiak gorabehera. Horrela, bada, berretsi egin zuen Kondearen hiri-gutuna: *“segund que el Conde ge la fizo dar”*.

Ulertzekoa da horrelakoetan zergak jasotzen zituztenak kontra jartzea, hiribilduetara bizitzera joandako nekazarien hamarrenak galdu egiten zituzten eta. Gai-



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

GERRIKAITZEKO UDALERRIA

nera, ordura artekoekin zerikusirik ez zuen aginte-sistema berri hark errezelo ugari piztu zituen pribilegioetatik kanpo geratzen zirenen artean.

Gerrikaitz, Areatzaren ondoren sortutako hiribildu gehienak bezalaxe, biztanleak aitoren semeen erasoaldietatik babesteko sortu zuten². Helburu sozialak ekonomikoak baino zerikusi handiagoa izan zuen, beraz. Ildo horretan, hiri-gutunean harresiaren ingurukoak ere aipatzen dira.

Hiri-gutunean Gerrikaitzeko udal-ordetzakien jurisdikzioari emandako lur uga-

rien mugak zehazten dira, eta orduantxe sortzen hasita zeuden elizateenak ere bai: *“las tierras existentes desde Iruzubieta por el agua arriba hasta Arronguiz, et de aqui á Urchuteaga, en seguida á Bargabide hasta Aldaola, y dende á Alzola, y de Alzol hasta la cima de Urriquez, pasando por Uriola á Meabe para terminar de nuevo en Iruzubieta”*³.

Hiri-gutunak, halaber, hiribildura zortzi nekazarik (gutxitxo, populatzen hasteko) joan beharko dutela dio, eta zehaztu ere zehazten du nor izango diren, Arbatzegiko San Bizente monasterioaren zergapekoak ziren zortzi baserriak bizilagunak; horra hor baserriak: Uriona-Ormaetxea, Otaolea, Uriona-Etxebarria, Aldaieta, Loitia, Askarreta, Barrenengoa eta Totorika-Burpidea *“las mas cercanas... o las que entendieren los mis pobladores del dicho lugar de Monditibar que son mexores”*.

Hiribilduak jabeak hil ondoren hutsik geratutako hamar orube ere jaso zituen hiltoki gisa.

Horrenbeste lur zeudela eta Logroñoeko Foruaren gainerako abantailak ikusita, inguruetaoak berehala abiatu ziren hiribildua populatzera. 1376an, Bolibarko Santo Tomas eta Arbatzegiko San Migel monasterioen (Gerrikaitzetik gertu zeuden biak) zergapekoak ziren 46 baserri hiribilduari atxiki zitzaizkion, Joan infanteak etxe horietakoei bertakoen pribilegio berberak eman eta gero⁴. Handik hogeita sei urtera, hiribilduko kontzejuak eta Arbatzegi eta Bolibarko parroketako nekazariak berretsi egin zuten bateratze hura⁵. Hiribildua laster hasi zen inguruko lurraldeetako antolamenduan eragina izaten, eta handia gainera, bere estatus juridikoa Lurralde Irekira ere hedatu baitzuen. Hiribildu barruan bizi zirenek eta inguruko baserrietakoek estatus juridiko berbera zuten⁶.

Gerora, ordea, aipatutako lurralde-antolamenduak porrot egin zuen, batik bat burdingintzak behea jo zuenean. XVII, XVIII eta XIX. mendeetako suteek ere zeri-

kusi handia izan zuten biztanleen hondamendian, eta azkenik, nekazaritza eta abeltzaintza ogibide zituen herri-gune txiki bihurtu zen. Gaur egun, gehiago dira hutsik dauden orubeak beteta daudenak baino.

Biztanleria eta ekonomia

Gerrikaitzeko biztanleriari buruzko lehen datu fidagarria 1514ko zerga-kontaketan agertzen da: hiribilduak 116 sutegi zituela dio. Baina XIV. mendean demografiak beherakada izan ondoren (hala dirudi behintzat, besteak beste, jabeak hil ondoren orube asko hutsik geratu zirela kontuan hartua), XV. mendean biztanleak nabarmen hazi ziren bai Gerrikaitzen, bai Arbatzegiko elizatean. Hazkunde handi hori aztertzean ezin dugu ahaztu hiribilduak hasieran oso biztanle gutxi zituela. Bizilagun batzuk auzo-lurrez jabetzeagatik sortutako auziei buruzko berrien arabera, badirudi susperraldia XIV. mendearen azken urteetan hasi zela. 1398an, Gerrikaitz hiribilduak, Arbatzegi, Munitibar eta Ziortzako bizilagun batzuek eta Gerrikaitzeko bailarako burdinolako jabeek Ziortzako kolejiata salatu zuten, auzo-lurrak bere zergapeko nekazarietxuek egiteko hartzen ari ei zelako. Eta hori kaltegarria zen, noski, burdinolentzat, baso-sail zabalak behar-beharrezkoak baitzituzten ikatza ekoizteko.

Hain zuzen, burdinolak ziren Gerrikaitz-Arbatzegi eskualdeko ekonomiaren ardatzetako bat, burdina lantzeko behar zituzten elementuak, hau da, mea, zura eta ura, barra-barra zituzten eta. Lehen aipatutako auzian sei burdinola aipatzen dira: Errenteria, Munitibar, Irazabal, Albiz... Jabeak hiribilduko eta elizateko leinu garrantzitsuetakoak ziren. Antza denez, hogeitaurburdinola baino gehiago zeuden ekinean gaztelautentzat iltzeak, burdina eta erremintak ekoizteko. Iturrizaren ustez, burdinola horiek izan ziren hasierako garaietan hiribildua suntsitu zuten bi suteen eragileak,

baina datu hori ez da inolako dokumentutandegiaztatzen⁷.

Badirudi merkataritza ere jarduera opa-roa izan zela Gerrikaitzen, hiru arrazoirengatik: Logroñoko Foruak emandako abantaileri esker, Durangotik Lekeitiora joateko derrigorrez bertatik igaro behar zelako eta astelehenero azoka antolatzeke eskubidea lortu zutelako. Ondorioz, hiribilduko biztanleek landa-eremuetako ohiko jarduera ekonomikoeri mundu hiritarrari lotutakoak gehitu zizkieten.

Kontzejuak herritarrentzat funtsezkoak ziren alderdiak arautzen zituen, hala nola, hornikuntza-zerbitzuak: harategia, eta olio, arraina eta beste produktu batzuk saltzen zituen denda berezia. Zerbitzu horiek errentan ematen zituzten enkante publikoan, eta irabazi-iturri bihurtzen ziren hiribilduarentzat.

Kontzejuak kanpoko produktuen sarrera ere arautzen zuen. 1376an 46 nekazari hiribilduko bizilagun izendatzeko egindako agirian, adibidez, lehenengo hiribilduko sagardoa edango zutela eta, hura bukatutakoan, hiribilduko bizilagun izendatutako nekazarieri erosiko ziotela zehazten da.

Dena den, nahiz eta Gerrikaitzek zenbait jarduera hiritar bere egin, inguruko landa-eremuari atxikitako herri-gunea izan zen funtsean; izan ere, hiribilduko askok laborantzako lurak baitzituzten bertan. Oiz mendiaren magalean kokatutako hiribildu txikiak ez zuen bete-betean garatzerik izan, ez baitzen ez itsas portua ez barnealdeko bide bateko gune nagusia (Durango, Balmaseda eta Urduña bezala). Horregatik, herritarrak babestera eta inguruko landa-eremua nolabait antolatzera mugatu zen.

Hirigintza

Gaur egun Gerrikaitzek biztanle gutxi ditu, baina Erdi Aroko hiri-planoaren oinarritzko elementuak nabariak dira oraindik.

Hiribildua eraiki aurretik lan handia egin behar izan zuten Oiz mendiaren maga-

lean terrazak moldatuz lursail lauak lortzeko. Hiribilduak bi kale zituen, Bekokale eta Goikokale, eta bien erdian kantoï bat. Harresiak, bestalde, hiru ate zituen: bat kantoïaren hegoaldean eta beste biak Barrenkaleren bi muturretan, Markina eta Gernika arteko bidean.

Andre Mariaren eliza zaharraren (gero oraingo parrokia eraiki zuten bertan) eta Barrenkaleren hego-ekialdeko atearen artean plaza zegoen, herritarren bizimoduaren ardatza eta asteko feriaren kokalekua.

Ziur aski horixe izango zen hiribilduaren antolamendua Erdi Aroan, baina badira harresiak lau ate (eta ez hiru) zituela dioten beste bi hipotesi ere⁸.

Lehen hipotesiaren arabera, hirigunearen hego-mendebaldean ez zegoen ate bat, bi baizik (orube-multzo batek bereizten omen zituen). Hirugarren ate kantoïaren irteeran zegoen, eta laugarrena ipar-ekialdeko muturrean. Kantoïaren irteerako atak Durangorako bidera ematen zuen, eta gainerakoek inguruko lekuetara (Ziortzara, Munitibarrera, Arbatzegira...).

Bigarren hipotesiak, berriz, hegoaldeko kantoïetako bat ibaira doan kantoïaren irteeran kokatzen du.

Hipotesiak interesgarriak badira ere, ziur aski lehen azalpena izango da zuzena. Izan ere, lehen hipotesiak bi ate elkarren ondoan zeudela dio, eta horrek ez du zentzu handirik, ateetako batek ustez ez lukeelako inolako zereginik izango. Bigarren hipotesiak nahiko irteera bitxian kokatzen du ateetako bat: hiribildua hain txikia izanik, ibaira joateko iparraldeko edo hegoaldeko atariraino itzulinguru txiki bat egitea ez zitzaïen batere kostatzen, eta beraz, ez zegoen harresian beste ate bat egiteko premiarik. Gainera, ezin dugu ahaztu Erdi Aroko babes-harresietan atak zirela errazen erasotzeko moduko guneak.

Egia esan, herritarrak babestea izan zen beti kontzejuaren ardura nagusia, bai eta hiribilduak fundatzeko funtsezko arrazoia

ere. Gerrikaitzeko hiri-gutunean, hiribildua nahi zuten moduan edo nahi zutenean erai-



kitzeko baimena eman zien jaunak: “*como los del dicho lugar quisieren o quando quisieren*”.

Arbatzegi eta Bolibarko zergapeko nekazariak hiribilduari atxikitzeke agirian ere harresiaren nondik norakoak arautu zituzten, besteak beste. Izan ere, harresiak izugarrizko garrantzia zuen bando-kideen erasoaldietatik babesteko. Ildo horretan, ondorengo zehazten du agiriak: “*en razón de las cercas é cadalsos, é portales de la dicha villa contribuiran de igual manera los vecinos de la villa que viven en la tierra llana como los que viven intramuros*”. XVIII. mendearen amaierarako harresiaren atal txiki batzuk baino ez zeuden zutik⁹.

Eraikinetan ez da Erdi Aroko aztarna bakar bat ere geratzen, baina hiribilduaren jatorrizko planoak ez da ia ezer ere aldatu.



GERRIKAITZEN EGUNGO ANTOLAMENDUA

Iturria: Olabarria Longarte, F.J.: *Munitibar...* 160. or.

Erdi Aroan, Gerrikaitzeko etxeak gainerako hiribilduetako antzekoak ziren: oso lur-sail estuetan (batzuk bost metro ere ez zituzten) eraikitzen zituzten, mehelinean artean. Beheko solairu batzuk harrizkoak ziren: ataria zegoen bertan, eta merkatarien etxeetan, horretan aritzeko lekua ere bai. Goiko solairua, berriz, zurezkoa izaten zen eta bizitzeko erabiltzen zuten. Azkenik, ura kalera isurtzen zuen bi isurkiko teilatua zuten, eta teilatupean biltegitzat erabiltzeko ganbara estua.


Etxearen atzean baratzea egoten zen, familiakoentzako janaria lortzeko. Gerora, ordea, baratzeak eraikuntzetarako hasi ziren erabiltzen eta lubaki estu batzuk baino ez ziren geratu.

Lehen ere aipatu dugu Gerrikaitzen ez dela Erdi Aroko aztarnarik geratu, baina badaude garai hartako etxeen ezaugarrien berri ematen diguten eraikinak. Kantakoa etxea dugu adibiderik argiena. Izenak berak aditzera ematen duenez, kantoia ondoan zegoen, eta bestalde, aldaketa ugari (lekuz ere bai) egin dizkioten arren, XVI. mendearen hasierako etxeen itxura dauka.

Esan bezala, etxe batzuetan beheko solairua merkataritza-lanetarako erabiltzen zuten. Horrelakoetan, sarrera ez zen erdian

egoten, alde baterantz baizik, jendea hartzeko lekua behar zutelako. Kantokoaren kasuan, berriz, badirudi jabeak ganaduzainak zirela, eta ez merkatariak, atea handia izateaz gain, erdi-erdian baitago, ustez ganadua ukuilura errazago eta alboetako hormetatik urrunduta eramateko. Eskuinaldeko arku eskartzanodun leiho txikiak goiko solairura igotzeko lekua argitzeko balio zuen. Bigarren solairuak barrutik harriz (*verganazo*) betetako zurezko bilbea zuen.

Kantokoaren garai berean eraiki zuten Torretxikitone. Berez ez zen hiri-dorrea, fatxadan alboko etxeek baino harri nobleagoa zeukan eraikina baizik. Portaldearen, hiribilduko ateetako baten, ondoan zegoen. Beheko solairuan arku zorrotz garaia du, nahiz eta orain atal bat kontrahormaz estalita egon. Burudun bao baten arrastoak ditu, eta leiho eskartzinoa ere bazuen, orain hormatuta dagoen arren.



GERRIKAITZ HIRIBILDUA XV. MENDEAN

Gerrikaitzeko hiri-gutunak, bestalde, eliza eraikitzeke baimena eman zien popultzaileei: “*una iglesia de Sta. María... que hayan enterramiento... y usen de ella... como usan en la dicha mi villa de Tavira de Durango*”. Aitzitik, Arbatzegi eta Bolibarko zergapeko nekazarien atxikipena berretsi zuen agiriaren garaira arte, 1402ra arte, ez dago inolako eraikuntza-lanen berririk. Berrespen-agiarian harategiaren eta olio, arraina eta bes-

telako produktuak saltzen zituen dendaren errentak eliza eraikitzeke erabiliko zirela zehazten da.

Hiribilduan izandako sute ugarien ondorioz, eliza goitik behera kiskali zen, atalik txikienak ere ez zuen iraun, eta horrela, non zegoen baino ez dakigu. Egungo eraikina 1847-48an eraiki zuten eta neoklasikoa da estiloz.

Oharrak

1. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea. Bilbo, 1968. 425. or.
2. Ikus Arizaga, B.; García de Cortazar, J.Á; Ríos, M.L. eta del Val, I.: *Vizcaya en la Edad Media*. Haranburu, Donostia, 1985. I. liburukia. 224. or.
3. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Op. cit. II. liburukia. 410. or.
4. Iturriza, J.R.: *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Edición Rodríguez Herrero. Librería Arturo argitaletxea. Bilbo, 1967. 267. or.
5. Iturriza, J.R.: *Historia General de Vizcaya...* Op. cit. II. liburukia. 266-272. orr.
6. Olabarria Longarte, F.J.: *Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz y Mendata. Estudio Histórico-Artístico*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1997. 25. or.
7. Iturriza, J.R.: *Historia General de Vizcaya...* Op. cit. II. liburukia, 96. or.
8. Hipotesien deskribapenerako eta azalpen-marrazkietarako, ikus Olabarria Longarte, F.J.: *Munitibar...* Op. cit. 159-160 orr. eta Zubikarai, A. eta Fernández Egiguren, J.: *Munitibar-Arbácegui-Guerri-cáiz*. Bilbo, 1992.
9. Gerrikaitz hiribilduaren antolamendu fisikoaz gehiago jakiteko, ikus *Bizkaia: Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. II. liburukia. Deustuko Unibertsitatea-Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1990, 200-208. orr.

Ugao

Fundazio-urtea: 1375

Fundatzailea: Joan infantea, gero Gaztelako Joan I.a izan zena

Forua: Logroñoeko Forua

Pribilegioen jasotzaileak: Ugao eta Zeberioko aitoren semeak eta nekazariak

Kokapena: Nerbioi ibaiaren erdiko ibilguan, Bilbo eta Areta bitartean

Kokalekua: Nerbioi ibaiaren ondoko lautadan

Altuera: 81 m

Biztanleak (2001): 4.104



Miraballes hiribildua Bizkaiko Joan Minfanteak fundatu zuen 1375eko martxoaren lauan, Ugao izeneko lekuan. Villanueva de Miravalles izena jarri zion.

Nerbioi ibaiaren bihurtune bat aukeratu zuten herrirka berria eraikitzeko. Leku hezea da eta haizeak alde guztietatik jotzen du. Nahiko ingurune malkartsua du eta Bizkaiko antyklinala da formazio nagusia. Eskuinaldekoa da erlieberik altuena eta bertako mendirik garaiena Artanda (547 m); ezker aldean Larretxu (887 m) eta beste mendixka batzuk daude, Pagasarriren hegoaldean.


Nerbioi ibaiak nahiko emari handia eta erregularra du Ugaotik igarotzean, baita udan ere, zertxobait agortu arren. Adar nagusiak eskuinaldetik datozkio: Zeberio ibaiak eta Itunbe, Añibarri eta Kordeta errekek.

Iturrizak dioenez, hirigunea Ugao dorretxe zaharraren ondoan kokatu zuten¹. Ugaok "ur-aho" nahi du esan; beraz, liteke-

ena da handik hurbil erreka baten bat egotea.

Ugaoko hiri-gutunean, Markinakoan bezala, hiribildua sortzeko eskaria bertako biztanleek egin dutela aipatzen da berariaz. Ugao eta Zeberioko aitoren semeek eta nekazariak elkarrekin egin zioten eskaria Jaunari, eta hori bitxia da benetan, kontuan hartu behar baita Bizkaian ez dela beste horrenbeste inon gertatu². Argi dago biek nahi zutela bai babes egokia lortzea, bai foruaren abantailez baliatzea. Logroñoeko Foruari esker, hiribildu berriak berezko ahalmen ekonomikoak lantzeko aukera gehiago izango zituen.

Hiribilduak sortzea hasieran Bizkaiko Jaunentzat kaltegarria izango zela ematen bazuen ere (zergapeko nekazariak galtzen zituelako), kontrakoa gertatu zen, hiribilduetako merkataritza eta ekonomiaren hazkundera esker irabaziak lortu baitzituzten. Bizkaiko lurak ezer gutxi balio zuen nekazaritzarako, eta horregatik komeni zitzaien



hiribilduak sortzea, merkataritzari lotutako ekonomia behintzat hazi egingo zela bermatzeko, eta horrela, besteak beste, Jaurrerian gero eta gehiago ekoizten zuten burdinaren zirkulazioa bideratzeko. Gainera, galdutako zergapeko nekazarien zergak eta elizen hamarrenak konpentsatzeko, Jaunak urtean behin ordaindu beharreko zerga ezarri zien hiribilduei. Kontzeju-zerga zeritzon, eta hiribilduari forua emategatik galdutako kopuruaren parekoa zen³.


Hori dela eta, hiri-gutunean berariaz aipatzen da hiribildua, populatzaileei ez ezik, Jaunari eta, oro har, Jaurerri osoari ere laguntzeko sortu zela. Hiribilduari lehen urteetan bultzada ematearren, 1375eko maiatzaren 1etik hasi eta bost urtez, Bizkaiko Jaunak zergak ordaintzeko betebeharretik aske utzi zituen Ugao populatzerako joandako eskualdeko aitoren semeak eta eskualdetik kanpoko aitoren seme eta nekazariak. Bere nekazariak, beraz, ez zuten pribilegio hori jaso; bestela, hiribildura joango ziren denak, zergarik ez ordaindu behar izateko.

Bilborekin liskarretan

Bizkaiko Jaun Joan infantea eta Bilboko hiribildua istilutan ibili ziren Villanueva de

Miraballesen sorrera zela eta. Bilbo, 75 urte lehenago sortua, garapen ekonomiko betean zegoen eta ez zuten hiribildu berria sortzerik nahi, Maria Bizkaiko Andreak 1310ean Bilbo eta Aretari emandako pribilegioa kolokan utziko zuelakoan.

Bilboko kontzejuak aldarrikatzen zenez, Aretatik Bilborako bidean ez zen salmentarik edo birsalmentarik gauzatzen, Maria Andreak emandako pribilegioa betez, eta beraz, bide horretan hiribildua sortuz gero, merkataritzan jarduteko bai-



mena eskuratuko lukete, eta hori kaltegarria izango litzateke Bilborentzat⁴.

Gainera, Ugao sortu baino bi urte lehenago, 1373ko uztailearen 6an, Bizkaiko Jaunak Bilboren alde egin zuen gutun baten bidez. Arrigorriaga, Zaratamo, Olabarrieta eta Arrankudiagako aitoren seme eta nekazariak Ugaon hiribildua fundatzea eskatu zioten, eta ezetzaren arrazoa aipatutako pribilegioa ez urratzea izan zen.

Oztopoak oztopo, 1375ean, Joan Jaunak onespena eman zion aitoren seme eta nekazariak inguru hartan hiribildua sortzeko egindako eskariari. Bilbotarrak haserretu egin ziren, baimena beren hiribilduko pribilegioen kontrako iraina zela eta.

Bizkaiko Jaunak hiribildu berria sortzeko agiriaren sarreran honako arrazoi hauek eman zituen, Bilbotarren asmoen aurka: hiribildua ez zela kaltegarria bilbotarrentzat, ez zela Jaurerriko usadio, ohitura, foru eta pribilegioen kontrakoa eta ez zuela lurra eskuratzean egindako juramentua urratzen. Hiribildua eskaria egin zioten Ugao eta Zeberioako gizaseme on, ezkutari, aitoren seme eta nekazariak babesteko beharrezkoa zela ere bazioen Joan Jaunak. Egia esan, Juan Nuñez de Lararen 1342ko xedapenetan eta Markinaren (1355) ondoren sortutako hiribildu bizkaitarren ia hiri-gutun guztietan, Jaurrerian jasaten ari ziren neurrigabekeriak eta segurtasunik eza aipatzen dira. Bizkaiko Jaunak Bizkaiko foruko bost alkateen eta aitoren seme, nekazari eta edadetu ugariren iritziak entzun zituen erabakia hartu aurretik, eta horrela egiaztatu zuen bilbotarren argudioa, alegia, Ugaon salerosketarako tradizioz ez egoteari buruzkoa, gezurra zela. Antza denez, inguru hartan Bilbo sortu aurretik ere bazuten salerosketan jarduteko ohitura. Joan Jaunaren ustez, bilbotarrek maltzurkeriaz jokatu zuten gezur hura sinistaraziz beren pribilegioa indartzeko. Adituekin hitz egin ondoren, iruzurra agerian geratzeaz

gain, Ugaon lehendik gauzatzen zituzten salerosketak aitortutako eskubide bihurtu ziren.

Labayruren ustetan⁵, Bizkaiko Jaunak oso zuhur, zintzo eta artez jokatu zuen auzi hartan, Bizkaian zuen ikuskariak, Juan Alfonso de Castro Donatok, emandako xehetasunak entzun eta gero, beste hainbatengana ere jo baitzuen, gaiak zuzenbidearen ikuspegitik zituen nondik norakoak ezagutzeko. Palentziako gotzain eta Joana Erreginaren (Bizkaiko Jaunaren ama) kantziler nagusi Gutierre jaunarekin, Plasencia-ko gotzain Fernando jaunarekin (bere kantziler nagusia ere bazen), Pedro Gonzalez de Mendoza jaunarekin eta bere diruzain nagusiarekin, Martin Garcia jaunarekin, hitz egin zuen, besteak beste. Denen iritzien berri izan ondoren, Almazanen (handik hilabetera Gaztela eta Aragoiren arteko bakea sinatu zen lekuan) zegoela, hiribildua fundatzeko baimena eman zuen. Herri-tarrak babesteko eraiki beharreko harresiarren ingurukoak, berriz, gizaseme onen eskutan utzi zituen. Iñiguez de Arandia eta Martin Perez de Barañamo izan ziren gizaseme on horiek, seguruenik eskualdeko leinurik boteretsuetako kideak⁶. Maiatzaren 1ean hasi ziren hiribildua eraikitzen.

Hiribildua sortzeko arrazoiak eta ondorioak

Bizkaian Areatzaz (1338) geroztik sortutako hiribildu guztien helburu nagusia herritarrak babestea izan arren, Gernikan eta Ugaon agerian geratu zen bertako biztanleek hiriguneen inguruan sortu ohi ziren etekin ekonomikoetan parte hartzeko interes nabarmena zutela. Urduña eta Bilbo bitarteko bidearen erdiko atalean aspalditik etengabeak ziren merkataritza-tratuen berrespena izan zen Ugaoren fundazioa, eta nekazariak eta, bereziki, aitonen semeak hiribilduek ezaugarri zituzten irabazietan parte hartzen saiatu ziren, baina betiko ogibideak baztertu gabe: nekazaritza, abel-

tzaintza (garrantzitsuena) eta burdingintza (hiri-gutunean Azordoyagako burdinola aipatzen da). Dena den, hiribildu berrian ezin izan zuten ekonomia bete-betean sustatu, salerosketan jarduteko askatasuna zuten arren, ez baitzitzaien merkatua antolatzeke eskubiderik aitortu.

Hiribilduetan Jaunaren lurak baino ezin izaten zituzten sartu, eta inondik inora ere ez aitoren semeenak. Ugaon ez zuten, ordea, horrelako arazorik izan, aitoren semeek eskatu baitzioten Jaunari hiribildua eraikitzeke⁷. Logroñoko Foruarekin batera, Alfontso XI.aren Alcalako Ordenamendua eman zieten, lehenengoak ez zituen-eta hiribilduko bizimoduaren alderdi guztiak finkatzen. Baina Alcalako Ordenamenduak erresumako hirigune guztietako funtzionamendu-arauak bateratu zituenenez, Gaztelako koroak are kontrol zorrotzagoa lortu zuen Jaurerriko gobernuan. Ugao izan zen Alcalako Ordenamendua jaso zuen Bizkaiako lehen hiribildua, eta gero, 1376an, Larrabetzuk, Mungiak eta Errigoitik eskuratu zuten.

Alderdi judizialari buruzko erabakiak hiribilduko bi alkateek hartzen zituzten, Alcalako Ordenamenduan, Logroñoko Foruan eta Enrike II.aren legeetan oinarrituta. Alkateen erabakien kontrako errekurtsioak Bilboko alkateei aurkeztu behar zitzaizkien, eta ez Bermeokoei (urrutiago zegoelako). Azken urratsa eta aukera Jaunarengana jotzea zen.

Hiri-gutunaren arabera, alkateek urtebeteko agintaldia behar zuten izan. Administrazio-zereginak bi eskribau publikok eta merkataritza zaintzeaz arduratzen zen probestuak betetzen zituzten.

Hiri-gutunak Ugaori abantaila handiak eman bazizkion ere, garatzeko aukerak oso urriak izan ziren hasiera-hasieratik. Garai hartan Bilbo hiribilduak berebiziko indarra zuen Nerbioi ibaiaren ibilbidean, eta Ugaok ezer gutxi egin zezakeen horretan. Gainera, Ugao sortu eta zortzi egun eskasera, Bizkai-

ko Jaunak baiezko erantzuna eman zion Galdakao, Zaratamo eta Arrigorriagako bizilagunek Bilbori atxikitzeke egindako eskariari; izan ere, eremu irekietan bizi baitziren, arriskutan, bando-kideen erasoaldien kontrako babesik gabe. Atxikitzeke eskaria egiteak argi erakusten du Bilbok konfiantza ematen ziela, eta Bilborentzat ere nolabaiteko ordaina izan zen Aretarainoko monopolioa galdu ondoren. Hiribildu horren eragina Ugaoko lurralde-barrutia- ren muga-mugaraino heldu zen lehen urteetatik.

1388an, ezagutzen den lehen sutea jasan zuen Ugaok⁸. Horrela, bada, ezbeharra oso une larrian egokitu zen, XIV. mendearen bukaeran eta XV.aren hasieran oso krisialdi demografiko eta ekonomiko gogorak astindu baitzituen Jaurerriko txoko guztiak. Gero, XV. mendean, Bizkaia osoan susperraldia nagusitu arren, eskualde guztiek ez zuten aurrerabide berbera izan. Hiribildu batzuk indartu egin ziren merkataritzaren garapenari esker, baina gainerakoak atzean geratu ziren, hiri-izaeraren eta landa-eremuaren artean duda-mudatan.

Aro Modernoan, hiribilduak ez zuen neurritz kanpoko biztanleriarik izan: asko jota, lauhun lagun. Madozen hiztegiaren arabera, aurreko mendearen erdia aldera, hiribildukoek garia, artoa, babarrunak, gaztainak, lekariak, sagarra eta beste fruta batzuk biltzen zituzten; horrekin batera, behiak, zaldiak eta ardiak hazten zituzten eta amuarrainak, aingirak, barboak eta loinak arrantzatzen. Bi harriko irin-erota eta urtean 1.200 kintal ekoizten zituen burdinola ziren hiribilduko industria bakarrak. Biztanleria, berriz, 348 lagunek osatzen zuten⁹. Alderdi guztietan baliabideak urriak ziren oso, bide garrantzitsu baten aldamenean eta ondoko eremuak bere inguruan antolatzeke asmotan sortutako hirigunea zela kontuan hartuta.

Ugao XIX. mendearen amaieran eta, bereziki, XX.aren hasieran garatu zen bene-

tan, bertan kokatutako industriari, eta batik bat siderurgiari esker. Etxe-multzo, industri nabe eta komunikabide modernoan artean, jatorrizko hirigune txikia urte luzetan izan zenaren oroigarria dugu, hau da, Ugao erdi garatutako hiribildua izan zela dakarkigu gogora.

Lurrelde-barrutiaren bilakaera

Jaunak, hiri-gutunaren bidez, baldintza onuragarriez gain lurrelde-eremu zabala eman zion Ugaori, bertako ekonomi eta gizarte-bizitza garatu eta berezko gaitasunei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko. Hauek dira hiribilduk hartutako eremuak: *“las tierras existentes desde junto al arroyo de Azordoia, en donde se unían las aguas de Aldanondo hasta encima de la herrería de Azordoia, y siguiendo el curso del arroyo hasta Guindesarin, y continuando adelante hasta la fuente denominada Pagasarri. De aquí á Olaluceta y de Olaluceta, por encima del cerro llamado Ochandiano, en derechura á Urriberasategui, y por aquí, del lado que pasa el río mayor, á la casa que perteneció á Sancho Sánchez de Arana, en Lupardo, y desde este lugar á orillas del río por donde pasaban los carros á Arrigorriaga á dirigirse á la cima de Arzaondo y después rectamente á los campos llamados de Upo. Continuaba el coto designado á las angosturas de Elguebaso para tender a Améscola, por la esquina adelante á Arbiñano, en el sitio que dividía los límites de Arratia, y de aquí por la Cañea á Amarguizarros hasta llegar á Unzueta, por do parte con la tierra de Orozco. De este término, por la misma Cañea, al ajuar de Araeta subiendo á la cima de Gamarreta, linde con jurisdicción de las tierras de Llodio. De aquí a Curutceaga, después a Ganecocorta por donde también se departía con la tierra de Llodio, dende á Curceaga de Oquendo, á Ayse, y por el arroyo de Drobiga á la agua mayor ó río de Aldanondo, et dende por la ribera del arroyo ado se pasa al arroyo de Azordoia con el agua maior”¹⁰.*

Jaunak hiri-gutunaren bidez emandako jurisdikzio-mugak egungoak baino askoz

zabalagoak ziren, Ugaoko eta Zeberioko lurak eta Arrigorriaga, Arrankudiaga eta Zollo udalerrietako eremu batzuk hartu baitzituzten.

Ugaoko eremua, baina, berehala murriztu zen, Lurrelde Irekiaren eta, bereziki, Ahaide Nagusien eraginengatik. Hiribilduaren eta inguru landatarraren arteko borrokan lehenengoa izan zen galtzailea, Bizkaiko beste leku askotan gertatu zen legez. Egia esan, Berant Erdi Aroa Lurrelde Irekiaren eta hiribilduen arteko istiluen garaia izan zen Bizkaian. Baina hiribildu guztiek ez zuten berdin amore eman elizateen boterearen aurrean. Bilbon (Ugaok ere aurre egin behar izan zion), esate baterako, elizateek ia erabat murriztu zuten hiribilduaren jurisdikzio-eremua, baina ez haren ahultasunengatik; aitzitik, Bilbok elizateerikoz zuen nagusikeria izan zen bien arteko gatazka gogorren iturburu nagusia. Eta gatazken ondorioz Bilboren barrutia ezin gehiago murriztu zutenean ere hiribilduak



ez zuen men egin eta, indartsu, elizateak menperatzen jarraitzea lortu zuen. Ugaon, ostera, hiribilduaren makaltasunak eraginda, inguruko elizateak hango lurak eskuratzen saiatu ziren. 1375ean hiri-gutuna

jaso zuenetik 1860ra arte, alegia, Ugaoko barrutia behin betiko finkatu arte, hamaika istilu eta liskar izan zituen batik bat Zeberioekin eta, neurri txikiagoan, elizateetakoekin. Auziz auzi, hiribilduaren barrutia etengabe murriztu zen.

Hiribilduaren itxura fisikoa Erdi Aroan

Erdi Aroan Ugao Bizkaiko hiribildurik txikienetakoa zen, hektarea bat pasatxo besterik ez baitzuen guztira. Bizkaiko hiribildu gehienetan bezala, erregulartasuna du ezaugarriarik aipagarrienetakoa. Kale bakarren (Udiarra kalearen) inguruan eraiki zituzten etxeak. Kalearen alde banatan zurezko etxe txikiak zeuden, ziur aski bi solairukoak, eta etxe-uharte bakoitzean etxe-ilara bakarra. Gaur egun ere, garai hartako etxerik geratzen ez den arren, kale horretako orubeak oso estuak dira, Erdi Aroko eraikuntza-ereduarekin bat.

Ugao fundatu eta handik gutxira, harrizko harresi lauangeluarra eraiki zuten hiribilduaren inguruan, ipar-hego norabidean, barruko eremua eta kanpoko bereizteko eta ugaotarrak babesteko. Dirudienez, XV. mendean kalte larriak jasan zituen harresiak, Joana Eroa Erreginaren 1509ko Gutun Betearazlean Olabarrietako (Zeberio) Santo Tomas monasterioaren irabazi eta errentak Ugaon harresia eraikitzeke erabiliko zirela xedatzen baita. 1388, 1487 eta 1498ko suteetan, harresiaren egitura erre egingo zen seguruenez, XVI. mendearen hasieran goitik behera konpondu behar izan zuten eta.

Gaur egun, herriko kale nagusia oinezkoentzako pasealekua da, baina mendez mende Bizkaiko bide nagusia, Bilbo eta Burgos Urduñatik lotzen zituena, erabiltzen zutenen igarobidea izan zen. Oraindik ere Udiarragako Andre Mariaren ermitatik Nerbioi ibaira doan kaleak Bide-Zahar kalea du izena: Erdi Aroan harresitik kanpo zegoen eta ate batetik sartzen zen hiriguneko kale nagusira. Merkatariak, kale hori zeharkatu ondoren, harresiko beste ate

batetik ateratzen ziren Bilborako bidean aurrera egiteko.

Hiribilduarentzat funtsezkoa zen kale hori ondo egotea, eta kontzejuak dirutza handiak eman zituen egoki zaintzeko.


1547an, kalearen sarrerako eta irteerako lurra eta hormak harriztatu egin zituzten, Ugaoko kontzejuaren diruarekin, eta Ochoa de Uriona eta Juan Lopez de Justanga maisu harginen laguntzaz¹¹. Ez dago Erdi Aroari buruzko daturik, baina pentsatzekoa da orduan ere egingo zituztela konponketak, edo behintzat, egoki zainduko zutela bide hura, hiribilduaren oinarrietako bat zen aldetik, beti behar bezala egon zedin.

Plano trinkoarekin, harresiarekin eta bidearekin batera, parrokia zen Ugaoko laugarren oinarrizko elementua, Bizkaiko gainerako hiribilduetan nola. Hiri-gutunean ez da San Bartolome eliza aipatzen; beraz, baliteke geroagokoa izatea. Horregatik uste da hasieran bilauak bertatik bertara zuten Olabarrietako Santo Tomas elizara joango zirela erlijio-beharrak asetzera. Bada hipotesi horren aldeko beste datu bat ere: udal karguak San Bartolome egunean (abuztuaren 24an) hautatzen zituzten, Ugaoko fundatzaile Joan infantearen urtebetetze-egunean. Hortaz, parrokiaren zaindaria ospakizun horri lotuta aukeratu zuten nonbait, eta eliza hiribildua fundatu (1375) ostekoa izango da.

Elizaren hondarrik zaharrenak oso berandukoak dira, XV. mendekoak edo XVI.aren hasierakoak, eta agian, XIV eta XV. mendeetako suteek izan zuten zerikusirik horretan. Kokapenari buruz, esate baterako, ez dago inolako datu argirik: ez dakiagu harresitik kanpo, harresiaren kontra edo barruan zegoen. Ziur dakigun gauza bakarra da, egungo eliza baino txikiagoa zela, mendeetan zehar hobekuntza- eta handitze-lan ugari egin dizkiote eta.

Ugaoko egungo alde zaharrak beste oinarrizko elementu bat ere badu, egiturari dagokionez: plaza (Herriaren enparantza),

San Bartolome elizaren eta udaletxearen aurrean dagoena. Erdi Aroan plaza gehien eremua ez zegoen argi mugatuta. Eta Ugaon, gainera, alde bakoitzean etxebiz-



UGAO HIRIBILDUA XV. MENDEAN

tza-ilara bat zuen kale bakarra izanda, ez zegoen plaza non sortu. Bestalde, hiribilduari hasieran ez zioten azoka antolatzeko eskubiderik eman, eta beraz, litekeena da urte haietan plazarik ez behar izatea. Gero, beharbada hegoaldeko atearen ondoko lekua hasiko ziren erabiltzen merkataritza-trukeetarako, harresi barruan plazarako eremua antolatzen hasi beharrean. Baina

datuen arabera, 1818tik 1825era bitartean, plaza *berria* eraiki zuten, eta horrek esan nahi du aurretik bazegoela beste bat, kokapenaz ezertxo ere ez dakigun arren.

Harresitik metro gutxira (mendebalderantz), Ugaoko dorretxea zegoen. Gaur egun izenak baino ez dirau udalerriko kale-etako batean: Torre de Ugao kalea. Hiribilduaren inguruetan, bertakoek baratzeak, labore-lurak eta fruta-arbolak omen zituzten, eta haiek zeharkatu ondoren, artadi, harizti eta pagadi zabalak, bilauen premia ugari asetzen zituztenak: besteak beste, etxebizitzak, gurdiak eta tresnak eraikitze-ko, etxea berotzeko eta ganaduari jaten emateko erabiltzen zituzten.



SAN BARTOLOMÉ ELIZA

Oharrak

1. Iturriza y Zabala, J.R.: *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Edición Rodríguez Herrero. Librería Arturo argitaletxea. Bilbo, 1967. II. liburukia. 1.010. paragrafoa.
2. García de Cortázar, J.Á.: *“El Señorío de Vizcaya hasta el siglo XVI” Historia del Pueblo Vasco* Ianean. Erein, Donostia, 1978-79. I. liburukia, 232. or.
3. Iturriza y Zabala, J.R.: *Historia General de Vizcaya...* Op. cit. II. liburukia, 280-281. orr.
4. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea. Bilbo, 1968. II. liburukia. 426. or.
5. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Vizcaya*, Op. cit. II. liburukia, 427-428. orr.
6. Cifuentes Pazos, J.M.: *Estudio histórico-artístico de Ugao-Miraballes*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1993. 30. or.
7. Ikus Monreal Cia, G.: *Las instituciones públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII)*. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1974. 70. or.
8. Iturriza y Zabala, J.R.: *Historia General de Vizcaya...* Op. cit. II. liburukia. 1.012. paragrafoa.
9. Madoz, P.: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Madril, 1845-1850. *Vizcaya-Bizkaia*. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. Ámbito-Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1990. 142. or.
10. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Vizcaya*. Op. cit. II. liburukia. 428. or.
11. Cifuentes Pazos, J.M.: *Estudio histórico-artístico de Ugao-Miraballes*. Op. cit. 154. or.

Mungia

Fundazio-urtea: 1376

Fundatzailea: Joan Infantea, gerora Gaztelako Joan I.a izan zena

Forua: Logroñoeko Forua

Pribilegioen hartzaileak: Nekazariak

Kokapena: Butroe ibaiaren erdiko ibilguan, Bilbotik Bermeorako bidean

Kokalekua: Ibaiaren ondoko lautada batean

Altuera: 20 m

Biztanleak (2001): 13.807



Mungia 1883an hiribildua eta Mungia elizatea bateratu ondoren sortutako izen bereko udalerrian dago, Butroe ibaiaren erdialdeko ibilguren ondoko lautadan. Hegoaldean Txoriherrirekin muga egiten duten hainbat mendi ditu: Berreaga da guztietan garaiena. Iparraldean, berriz, Jata eta Sollube mendiak daude.

Plentzia-Mungia eskualdekoa da, eta erliebe leun eta txikiko (gehienez 700 bat metrokoa) parajea du kokagune. Atlantikoaren eraginpean dago bete-betean, eta ondorioz, euri asko egiten du beti. Etxeak han-hemenka, nahikoa sakabanatuta, daude udalerrri osoan, baina hegalik eguzkitsuenak dira beteenak. Hiribildua, ordea, ibai ondoan dago.

Protohistoriak aztarna interesgarri ugari utzi dizkigu Mungian, hala nola, Berreaga-ko esparru gotortua: Mungia eta Gamiz-Fika udalerrien artean dago, eta K.a II. eta K.o. II. mendeen bitartekoa da. Erromatarren nagusitzaren aztarnak Konstantino

II.aren garaiko bi txanpon ditugu, IV. mendearen erdia aldekoak. Butroe ibaian aurkitu zituzten, Dorrebillelatik oso hurbil¹.

Edonola ere, tarteka-marteka agertutako beste aurkikuntza batzuekin gertatzen den moduan, erromatarren garaiko hondar horiek ez dira aski Erromak Bizkaiko eskualde honetan zenbaterainoko eragina izan zuten neurtzeko. Baina jakinekoa eta ziurragoa da Mungiatik oso hurbil, Foruko portuan, erromatarrek erruz ibili zirela, eta baliteke orduan kostaldeko enklabe haren eragina Mungiaraino heltzea.

Lehen milurtekoaren gainerako urteetako giza okupazioari buruz ezer gutxi dakigun arren, bigarren milurtekoaren hasieratik aurrera, Mungia izena inoiz ez bezalako indarraz agertzen zaigu agerietan.

Hiribilduaren fundazioa eta aurreko gorabeherak

XI. mendearen bigarren erdian, egoitza erlijioso bat omen zegoen Mungia (gaur

egun ez dago aztarnarik), eta garrantzitsua gainera, bertako zuzendari espirituala edo "abadea", Bizkaiko Jaunaren segiziokoa izateaz gain, inguruetakoa eliza batzuk berrantolatzeke agirietan ere agertzen baita, sinaduraren bidez. 1051tik 1093ra bitartean, horrelako lau agiri sinatu zituen: lehengo, esate baterako, Busturiako merindadeko Axpeko Andre Maria Armentiako gotzain arabarraren esku uzteko berrespena izan zen, eta azkena, Almikako Andre Maria (Bermeo ondoan) Donemiliaga Kukulako monasterio errioxarrari eman zitzaiola ziurtatzen zuen egiaztagiria². Garai hartan, eliza asko zeuden Bizkaian, baina Mungia abadeak Abadiñoko eta Ziortzako zuzendari spiritualek besteko indarra edo eragina zuen. Mungian zuen egoitza, seguruenez gaur egun San Pedro eliza dagoen lekuan, eta bertatik erlijioari eta lurraldeari lotutako gaiez arduratzen zen eta biztanleen bizimodu espiritual eta materiala antolatzen zuen³.

Hurrengo mendeetan, hiribildua fundatu arte, elizaren inguruan inolako antolamendurik gabe eta material suntsikorrez eraikitako etxe-multzoa zegoen, besterik ez, eta bertako ia biztanle guztiek nekazaritzan eta, batik bat, abeltzaintzan jarduten zuten.

Elizaren inguruko eremuak ez zuen hiribildua fundatu arte indarririk hartu, ordurako Mungia Bizkaia nuklearreko bide-sare garrantzitsuan zegoen arren: Bilbotik Bermeo eta Gernikarako bidean, Butroe ibaia-aren ondoan. Gainera, bide horrek Plentziaraino zeukan adarra ere Mungian hasten zen.

Hiribildua fundatu zuten garaia ez zen merkataritzarako ona izan, XIV. mendeko krisialdi demografiko eta ekonomiko larriaren ondorioz bando-kideen artean sortutako borroketan buru-belarri murgildurik baitzegoen Jaurerria. Nobleak, errentak gutxitu zitzaizkienean, bidelapur bihurtu ziren, garai oparoetakoan antzeko diru-

sarrerak ziurtatzeko xedez, eta jakina, nekazariak, beste inork baino gehiago, gorriak ikusi zituzten, arazo ekonomikoak ez ezik, aitoren semeen erasoaldiei ere aurre egin behar izan baitzieten.



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

MUNGIAREN KOKAPENA ERDI AROKO BIDEEN ARTEAN

Bortizkeria horrek, alabaina, azkenean Bizkaiko Jaunarengan ere izan zuen eragina, bando-kideen ekintzen ondorioz errenta gutxiago heltzen zitzaizkion eta. Beraz, Jaurerriko biztanleak babesteko moduren bat bilatzeari ekin zion, eta horrelaxe bururatu zitzaion hiribilduak sortzen hastea: baso, bazkaleku eta laborantza-lurretan sakabanaturik bizi zirela, nekazariak ezer gutxi egin zezaketen bando-kideen erasoaldien kontra; hirigunean bildurik, ostera, gauzak zeharo aldatuko ziren, batetik, harresiak babesa emango zielako, eta bestetik, erasoaldietan denek batera borrokatuko zutelako. Gero, ez zen benetan hain irtenbide biribila izan. Hiribilduei esker, landa-eremuetako biztanleak babesa lortu zuten, baina alferrikakoa izan zen, azkenean bando-kideen arteko gerran sartu ziren-eta: batzuetan haien kontra zuzenean borrokatuz eta beste batzuetan lagunduz.

1376ko abuztuaren 1ean Mungia, Larrabetzu, Errigoiti eta Mungiari emandako hiri-gutunean argi aipatzen da nekazarien sakabanaketa arazoa zela aitoren semeen erasoetatik babesteko: *“los hixos dalgos e otros homes Poderosos e otrosi otros Lecayos e otrosi otros homes mal fechores (que) se atreven a tomar e robar lo que fallan en las moradas que estan asi apartadas las unas de las otras...”*⁴. Beraz, Mungia, bai eta Larrabetzu eta Errigoiti ere, biztanleak aitoren semeen gehiegikerietatik babesteko sortu zituzten. Hiri-gutunaren bidez, Logroñoeko Forua, Alcalako Ordenantza, biztanleriaren garapena ziurtatzeko adinako lurralde-barrutia eta abantaila ugari (besteak beste, astean behin azoka egiteko eskubidea) lortu zituzten nekazariak. Bizkaiko Jaunaren ekintza juridikoak, hots, hiribilduaren fundazioak, etorkizunerako aukera berriak ekarri zituzten Mungiako biztanleei.

Aurrerantzean, harresiaren barruan babesturik, hiribildukoak segurtasun handiagoz aritu ziren nekazaritzan, eta gainera, hiriguneetako ohiko jardueri ere eman zieten sarbidea. Argibide gehiegi ez ditugun arren, badirudi Mungian artisau eta merkataritza asko zeudela. Izan ere, Bilbo, Bermeo, Plentzia eta Gernika lotzen zituzten bideen erdi-erdian egotea berebiziko oinarria zen merkataritza garatzeko. 1514an, esate baterako, Mungiak 159 sutegi zituen; ez zen, hortaz, oso hiribildu handia, baina bai beste batzuk baino handiagoa (Lanestosa, Gerrickaitz, Areatza, Errigoiti, Larrabetzu), eta garrantzitsuagoak ziren hainbaten (Ugao, Portugalete, Ondarroa eta Gernikaren) antzekoa. Berarekin batera edo lehena go fundatutako hiribilduak ez ziren hainbeste hazi, eta hori ezin da lurra landuz bakarrik lortu⁵.

Hiribilduaren itxura Erdi Aroan

Bizkaiko hiribildurik gehientsuenak bezala, Mungia ez zuten kokatu ingurua menderatzeko moduko lekuan. Aitzitik,


ibaiaren ibarra aukeratu zuten, Bizkaiko ipar-mendebaldea zeharkatzen zuten bideen ondoan zegoelako.

Fisikoki ere ez zegoen ia inolako alderik Mungia hiribilduaren eta Jaurerriko gainerrakoen artean: bi kalez eta bi kantoiz osatutako bastida-motako plano zuten (kanpamendu militarren tankerakoa). Yusera edo Behekoa (egungo Beheko kalea) eta Somera edo Goikoa (egungo San Pedro) ziren bi kaleak. Bi kale zuzen horien artean bi kantoit estu zeuden, hirigunea alderik alde erraz zeharkatzeko. Ildo horretan, aipatzekoa da ez zutela kantoirik egin kaleak eta hiribilduaren kanpoaldea lotzeko. Bai Beheko Kaleak bai San Pedro kaleak oso egitura itxia eta trinkoa zuten kanpo alde-rantz.

Hiri-plano erregular honen beste bi osagai eliza eta Dorrebillela ziren. Eliza hiribilduaren ipar-ekialdean eraiki zuten, fatxadaren eta San Pedro kalearen artean plaza antzeko leku txiki bat utziz.

Dorretxea hegoaldeko muturrean eraiki zuten, inguruan leku ugari zuelarik.

Kale-kantoiaren eremu osoa hasiera-hasieratik harresitu zuten, hiri-elementu hori derrigorrezkoa baitzen hiribildu guztietan, baina are gehiago bizilagunak babesteko sortutakoetan. Ziur aski harresia ez zen berdina eremu guztietan: hegoaldean eta hegoaldean, erasotzeko gunerik errazenetan, zabalagoa eta garaiagoa zen nonbait, eta gainerako aldeetan, etxeak osatzen zuten harresiaren horma (gehienek ez zuten baurik edo, bestela, nahiko leku garaian zeuden), sendo askoa, gainera. Besteak beste Gernikan, Orion eta Getarian ere etxeak erabili zituzten harresiaren hormatzat⁶. Horrela, ekialdean eta mendebaldean gutxi garatutako hormatxoa baino ez zen harresia, baina eliza aldean, askoz ere mardulagoa zen, dokumentuetan ere ikusten denez. Horra zer dioen 1513. urteko agiririk: San Pedro eliza ezin zela handitu *“por que hazia aquella parte es el muro de la cerca”*.



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

Seguruenez, harresiaren eta elizaren artean erronda-pasabide txiki bat egongo zen, hobeto babesteko, eta eliza izango zen bastioi nagusia arerioaren aurkako borroketan. Hori horrela zen, behinik behin, Urduñan eta Bizkaiko beste hiribildu askotan.

Harresian kanpora ateratzeko hiru ate zeuden. Bi San Pedro kalearen hasieran eta amaieran zeuden: bata iparraldean, Bermeorako eta Gernikarako bidean (Plentziatik zetorren bidea ere bertara heltzen zen), eta bestea hegoaldean, Bilborako bidean. Hirugarren atea San Pedro elizaren alde batean zegoen, eta Mungiako elizatera ematen zuen⁷.

Aipatutako babes-sistemaren osagarria Dorrebillela zen. San Pedro kalearen hegoaldeko atearen ondoan zegoen, eta inguru

guztiak, batik bat bidea eta Bilbotik hiribilduan sartzeko zeharkatu beharreko zubia, primeran ikusten ziren handik, eta gezi-leihotik harrizko zubia erabat menperatzen zuten. 1412. urtean Gonzalo Gomez de Butronen gizonak ederki egiaztatu zuten hori.

Mungiako harresia berehala konpondu behar izan zuten goitik behera. 1488an adibidez, hiribilduko prokuradore Pedro de Abandañok leku batzuetan erorita eta beste batzuetan barrurantz sartuta zegoela (*"e en otras partes metida pa la dicha villa"*) adierazi, eta konpontzeko eta kanporago eramateko baimena eskatu zuen. Bistakoa da, beraz, biztanleriaren hazkundearen ondorioz etxeak harresiaren gainera helduta zeudela, atzealdeko baratzeak hartu ondoren, eta

lehenago aipatu dugunez, gune batean horma txiki bat baino ez zen harresia.

Jadanik babes-premiarik izan ez zutenean, beste eraikuntza-lan batzuetarako hasi ziren erabiltzen, eta azkenean, desagertu egin zen erabat. Hori dela eta, gaur egun ez dago Erdi Aroko harresiaren aztarna bat bera ere.



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

**BAORIK GABEKO ETXE-OSTEEK, ELKARRI
ONGI JOSITA, HORMA EXENTUEK BESTE
BABESTEN ZUTEN**

XVI. mendean, hiri-gunea handitu egin behar izan zuten, biztanleriaren hazkunderaren ondorioz. Bermeora eta Gernikara zihoan bidean kale berria sortu zuten: Goi-koetxe kalea (egungo Alkartasuna). Horrekin batera, San Pedro eliza handitzeari ere ekin zioten, eta aurreko lekua elizarentzat hartu zutenez, plaza beste toki batera eraman zuten, parrokiaren ekialdeko hormaren eta etxe-ilara berriaren atzealdearen

arteko gunera, alegia. XVI. mendetik XIX. mendera bitartean hiribilduak handitzen jarraitu bazuen ere, Erdi Aroko hirigunearia bere horretan eutsi zioten. XX. mendean, aldiz, Gerra Zibilaren ondorioz suntsitu egin zen, zeharo, Mungiako Erdi Aroko ondarea, eta berrogeiko hamarkadan berreraiki zuten, hiriaren premia berriak kontuan hartuta. Kale berrien trazatua Erdi Aroan bezala utzi zuten orokorrean, baina aldaketa handiak egin zituzten: San Pedro eta Beheko kaleen artean –hain zuzen, Erdi Aroko etxe-uhartearen erdi-erdian– San Cristobal kalea ezarri zuten eta, San Pedro elizaren hegoaldeko etxeen ordez, parkea.

Hiri-elementu bereizgarriak: San Pedro eliza eta Dorrebillela

Egungo San Pedro elizaren lekuan hasieran zegoen eraikin erlijiosoan estilo mozarbiar berantiarrekoa zela uste da, nahiz eta ez den aurkitu datu hori berresteko moduko aztarnarik. XII. mendean azken herenean, tenplua goitik behera berreraiki zuten, eta eliza erromaniko txiki bat sortu. Bigarren eraikin horren hondarrak ere urriak dira oso, eta gehienak Bilboko Euskal Museo Arkeologiko, Etnografiko eta Historikoan daude. Dena dela, horiei guztiei eta aurkitutako beste aztarna txiki batzuei esker, eliza gutxi gorabehera nolakoa zen jakin ahal izan da: seguruenez nabe bakarreko eraikin xumea, kanoi-erdiko gangez estalia⁸. Badirudi orokorrean bertatik bertara dagoen Zumetzagako San Migelen oso antzekoa zela.

San Pedro eliza Bizkaiko Jaunarena zen, baina hamarrenak eta mozkinak Butroetarren etxeko Jaun Gonzalo Gomezek jasotzen zituen, Jaunarenganako leialtasunaren truke. Jaunak 1376an hiri-gutunean populatzaile berriei eman zien eliza: *“el mi Monesterio que es en la dicha Villa de Munguia con todos sus pechos y derechos segun que le pertenecen que sea de los vecinos et moradores*

de la dicha Villa". Horren ordainetan, mungiarrek 5.500 marabedi eman behar zizkionten Jaunari urtero, galdutako zergak nolabait konpentsatzeko. Baina handik gutxira, eliza familia noble haren esku geratu zen, eta ez zuten zerga ordaintzen jarraitu behar izan. Hala ere, kontzejuak ez zuen elizaren titularitatea galdu. Butroetarrek beren Leinuakoen gune espiritual bihurtu zuten San Pedro eliza, eta hildako senitartekoak lurperatzeko kaperak eraiki zituzten. Horrela, Mungiaiko parrokiaren zuten nagusitasuna areagotu egin zen.

Lehenago ere aipatu dugunez, hiribildua izugarri hazi zen XV. mendean, eta elizan jadanik ez zegoenez denentzako lekurik, handitzea erabaki zuten. Eliza kapera eta guzti botatzeko erabakia butroetarrek ez zuten gogo onez hartu, benetako helburua beren interesei kontra egitea zelakoan. Leinuaren eragozpenak gorabehera, herritarrek, elkar harturik, nahi zutena lortu ahal izan zuten, eta 1520tik 1530era bitartean basilika-oinplanodun tenplu gotiko-errenazentista eraiki zuten. Elizak hiru ataleko nabe bakarra zuen, eta errege-erregina katolikoen estiloko atea sarreran, Bizkaian zegoen dotoreena. Hurrengo mendetan hamaika gorabehera jasan ondoren, Gerra Zibilean zehar, 1937an, erabat suntsituta geratu zen eliza. Emiliano Amann arkitektoak berreraiki zuen suntsitutako eskualdeen aldeko plangintzaren baitan, eta berriaren berriz egin zuen dena, lehenetik zeuden atal gutxi batzuk izan ezik. Zorionez, portada izan zen atal haietako bat.

San Pedro elizatik hurbil, Andre Mariaren eliza zegoen hiribildua sortu baino lehenagotik, eta elizateko bizilagunak bertara joaten ziren. XIX. mendean den-dena berritu zuten, baina gaur egun fatxadak bakarrik dirau zutik, eta gainerako eremuak plazatzat erabiltzen dituzte.

Dorrebillela, gaur egun jauregia, dugu Mungia hiribilduko beste eraikin bereizgarria.


Erdi Aroan hegoaldeko muturrean zegoen, Bilborako bidera ematen zuen atearen ondoan, familiaren burdinolatik metro gutxira. Lehen ere adierazi dugunez, hiribilduak sortu arren populatzaileak ez ziren bando-kideen arteko gatazketatik erabat kanpo geratu, eta Mungia dugu horren adibiderik garbienetakoa: Villelatarekin, ziur aski hiribildua fundatu aurretik nekazarien kontrako erasoaldietan parte hartu ohi zuen familia nobleetako bat izanik, handik gutxira dorretxea eraiki zuten barruan, eta bertatik borrokatu zuten etsaien aurka (Abendaño, Muxika, Arteaga eta, bereziki, Butroeko familiak). Ondorioz, herritarrek ezinbestez murgildu behar izaten zuten gatazkan, aparteko interesik ez izan arren.

Eraiki eta urte gutxira eraberritu egin zuten dorrea, behar berrien arabera eraberritu ere. XV. mendearen bukaeran bando-kideen arteko gatazkak jadanik hain gogorak ez zirenez, gotorlekua "hiri-jauregi" bihurtzea erabaki zuten Villelatarekin, ezauzgarri militarrek kenduz bizitzeko erosoagoa izan zedin. Bilakaera hori Bizkaia osoan antzekoa izan zen (Markinan eta Ondarroan. esate baterako, oso argi ikusten da). Berrikuntzen ondoren, XIX. mendera arte eutsi zion egitura berriari. Madozen hiztegi-grobatuan argi ikusten da nolakoa zen⁹: bao gutxiko bloke garai sendo-sendo, almenadun friso baten gainean lau isurkiko estalkia zuena. Kanpoaldetik, harresia zuen inguruan, babes-elementuen osagarri.

Joan zen mendearen erdia aldera, hirigotorlekuaren barruko eta kanpoko egiturak aldatu egin zituzten erabat. Lehenik eta behin, dorrearen inguruan, hots, babes-harresiaren perimetroan, elementu neogotiko eta neoerrenazentistaz hornitutako jauregia eraiki eta almenadun frisoa jarri zioten, dorrekoarekin bat etortzeko. Dorrea zeharo eraldatu zuten: jatorrizko bost solairuen ordean lau utzi eta babeserako bao txi-

kiak leiho handi bihurtu zituzten barrua hobeto aireztatzeko. Azkenik, 1970ean jauregia Udalarari eman zioten kultur etxe bihurtzeko, eta orduan egin zuten azken aldaketa: lau isurkiko teilatua kendu eta neurritsuago bat ezarri zioten¹⁰.

Beraz, Mungiako egungo Dorrebillelak neurri batean baino ez du adierazten nolakoa zen Erdi Aroko dorretxea; baina oraindik ere, garai hartako arerioengan, eta baita mungiarrengan ere, sortuko zuen mehatxusentsazio berbera piztu ohi du ikusleen barrenean.



DORREBILLELA

Oharrak

1. Ikus Bizkaia. *Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. II. liburukia. Deustuko Unibertsitatea-Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1990. 576-577. orr.
1. Ikus Santana Ezkerra, A. eta González Cembellín, J.M.: *Patrimonio Monumental de Mungia*. Bizkaiko Foru Aldundia-Mungiako Udala, Bilbo, 1990. 15-16. orr.
2. Hiribilduaren fundazioari eta aurreko gorabeherari buruz gehiago jakiteko, ikus González Cembellín, J.M.: *“Urbanismo y arquitectura residencial culta”*, Santana Ezquerria, A. eta González Cembellín, J.M.: *Patrimonio Monumental de Mungia* lanean. Op. cit. 43-47. orr.
3. Iturriza y Zabala, J.R.: *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Edición Rodríguez Herrero. Librería Arturo argitaletxea. Bilbo, 1967. II. liburukia. 281-285. orr.
4. Ikus García de Cortázar, J.Á.: *Vizcaya en el siglo XV*. BAK, Bilbo, 1966. 72. or.
5. Hiriguneko harresiaz gehiago jakiteko, ikus González Cembellín, J.M.; *“Urbanismo y arquitectura residencial culta”*, Santana Ezquerria, A. eta González Cembellín, J.M.: *Patrimonio monumental de Mungia* lanean. Op. cit. 52. or.
6. Ikus Arizaga Bolumburu, B.: “Los espacios privados. Una forma de ocupación de los recintos urbanos” *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián*, 20. zenb. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1986. 128. or.



MUNGIAKO HIRIBILDUA XIX. MENDEAN
Madoz, P.: *Diccionario Geográfico...*

7. Ikus Bizkaia. *Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. II. liburukia. Deustuko Unibertsitatea-Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1990. 577. or.
8. Mungiaiko San Pedro elizari eta Dorrebilleari buruz gehiago jakiteko, ikus Santana Ezquerria, A.: "Arquitectura religiosa: las iglesias y ermitas de Mungia", 15-41 orr. eta González Cembellín, J.M.: "Urbanismo y arquitectura residencial culta" 52-56 orr., Santana Ezquerria, A. eta González Cembellín, J.M.: *Patrimonio Monumental de Mungia* lanean. Op. cit.
9. Ikus Madoz, P.: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Madril, 1845-1850. *Vizcaya-Bizkaia*. Ámbito-Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1990. 145. or.
10. Ikus *Arquitectura y Desarrollo Urbano*. Bizkaia. Madril, 1977. 153. or.

Larrabetzu

Fundazio-urtea: 1376

Fundatzailea: Joan infantea, gerora Gaztelako Joan I.a izan zena

Forua: Logroñoeko Forua

Pribilegioen hartzaileak: Nekazariak

Kokapena: Ibaizabalen Aretxabalagane ibaiadarraren bailaran

Kokalekua: Aretxabalagane ibaiaren ondoko lautada batean

Altuera: 100 m

Biztanleak (2001): 1.551



Larrabetzu hiribildua izen bereko Ludalerrian dago, Ibaizabalen Aretxabalagane ibaiadarraren bailaran. 20,53 km²-ko hedadura du. Iparraldean Gamiz-Fikarekin egiten du muga, ipar-ekialdean Morgarekin, hegoaldean Galdakao eta Zornotzarekin, ekialdean Zornotzarekin eta mendebaldean Lezama eta Galdakaorekin.

Ekialde, iparralde eta mendebaldetik inguratzen duten 400 m-tik beherako muiño txikiak dira udalerrri horiekiko mugalerroak. Erliebe leun horri esker, udalerrria beti egon da harremanetan Jaurerriko beste hiribildu batzuekin, eta bestalde, lautada handiek nekazaritza garatzeko aukera eman diote.


Auzoak hirigunearen inguruan daude: hurbilen Sarrikola, Basara, Goikola eta Berrezoaga auzoak; zertxobait urrunago Belarrinaga, Goikoelexea, Ugalde, Astoreka, Zarandoa, Gaztelu, Alaio eta Loroño; eta askoz ere urrunago Legina, Erkiniko eta Barrenetxe.

Udalerrian aurkitutako aztarna historikorik zaharrena altxor txiki bat izan da: 1777an, Lejartza mendian zanga bat egiten ari zirela, zilarrezko denario iberikoak eta urrezko piezak agertu ziren. Gaur egun desagertuta daude, baina jakin badakigu zaldun tankerako txanpon iberiar-erromatarrek zirela. Ez da harritzekoa Larrabetzun horrelako altxorra aurkitu izana, erromatarrek bertatik igarotzen baitziren penintsulako barnealdetik euskal kostaldeko portu batera, Forura (Gernikatik hurbil), joateko. Dena dela, aurkitutako gauzek lekuko estratigrafiarekin inolako loturarik ez zuten, ez zen garai haren inguruko xehetasun gehiegi lortzerik egon.

Zarandoa auzoan inguruan nekropolia zuen Goiz Erdi Aroko eliza bat omen zegoen aspaldi. Bilboko Euskal Museo Arkeologiko, Etnografiko eta Historikoan nekropoliko hilarri borobil hautsi bat dago ikusgai¹. Jatorrizko elizaren zimenduak egungo Salbatzailearen ermitaren azpian egongo dira

ziur aski: bertako hondarrik zaharrena tradizio mozarabiarreko leiho monolitiko bat da.

Zarandoako leihoak eta Goiz Erdi Aroko beste hondar batzuek Larrabetzu aldean kristautasuna oso aspaldi sartu zela adierazten digute. Esate baterako, Emeterio eta Zeledoni Santu Martirien eliza IX. mendean



LARRABETZUKO UDALERRIA

eraiki zutela diosku Iturrizak, eta seguruenik ordukoa izango da, data egiaztatu gabe dagoen arren. Jakinekoa da Goiz Erdi Aroan Errioxan debozio handia zutela Emeterio eta Zeledoni santuenganako, eta ziur aski inguruetara ere zabalduko zen².

Larrabetzu fundatu aurretik ermita batzuk ere bazeuden, Santu Martirien elizaz eta Zarandoakoaz gain, eta orduko populazioaren ezaugarrien berri ematen digute. XII. mendera arte leku garaietan bizi ziren gehienak, eta horren lekuko ditugu San Migel (305 m) eta Zarandoako Salbatzailearen eliza. Beherago dauden ermitak, berriz, geroagokoak dira, biztanleria pixkana-pixkana gune garaietatik bailararantz jaisten hasi zen garaietakoak. Santu Martirien eliza da salbuespen bakarra, bailan egon arren, Goiz Erdi Aroan eraiki baitzuten. Ez dago frogatzerik, baina baliteke, XII. mendean

beste nonbaitetik ekarri izana, hondarrik zaharrenak mende hartakoak dira eta.

Laburbilduz, XII. mendetik aurrera biztanleak lautadara jaisten hasi ziren, eta ezbairik gabe, nekazaritzaren gorakadak eta abeltzaintzak ordura arte izango zuen erabateko nagusitasunaren (ia jarduera bakarra zen lurralde osoan) amaierak zerikusi handia izan zuten horretan. Nekazariak, bailarara jaitsi arren, baserriak ez zituzten elkarren ondoan eraiki, sakabana-tuta baizik, Larrabetzuko hiri-gutunak berak adierazten duenez: *“estan las casas apartadas unas de las otras”*³.

Hiribildua fundatu aurretik hiru gizarte-maila zeuden Larrabetzu aldeko biztanleen artean: leinuak (Adan, Gastelu, Zugasti, Zubieta, Sarria, Basaras eta Goikolea)⁴, Bizkaiko Jaunaren zergapeko nekazariak, aitorren semeak eta, beharbada, nekazari askeak. Hiribildua fundatu ondoren, erregimen juridiko arras ezberdina ezarri zuten Berant Erdi Aroko gizarte-oinarri horretan.

1376: Larrabetzuko hiribilduaren fundazioa

1376ko abuztuaren 1ean, Bizkaiko Jaunak, gero Gaztelako Joan I.a izan zen Joan Infanteak, Mungia, Errigoiti eta Larrabetzu hiribilduak fundatu zituen hiri-gutun beraren bidez. Larrabetzuri Villanueva de Berresonaga jarri zion izena, baina biztanleek ez zioten inoiz horrela deitu. Fundazioaren bidez hiriguneen marko juridikoa eskuratu zuten: hiribildukoak Jaunaren jurisdikzioetik at geratu eta aurrerantzean Logroño-ko Forua eta 1348ko Alcalako Ordenantza bete behar izan zituzten. Kontzejua zen herriko gobernu-organoa eta bi alkate arrunt izendatzen zituen urtean behin, gai zibil eta kriminaletan epaile izateko.

Dena den, hiri-gutunaren bidez marko juridiko berria nagusitu zen arren, Ahaide Nagusien eragina ez zen zeharo deuseztatu. Hiri-gutunak berak hiribilduko harresia nola eraiki “gizon onek” erabakiko zutela

dio, eta besteak beste, Zugastitarrak aipatzen ditu, hiribilduko leinu batekoak, alegia.

Aitonen semeez gain, nekazariak ere hartu zuten parte, bereziki hartu ere, hiribilduaren fundazioan. Merkatari eta artisauek ere ibiliko ziren ziur aski, hiri-gutuneko bi pribilegio (ate-sariak eta bidesariak ez ordaintzea eta astean behin azoka egiteko eskubidea) beraiei baitaude zuzenduta.

Nekazariak Jaurerriko bando-kideen arteko borroka amaigabeetatik babesteko sortu zuen Jaunak Larrabetzu hiribildua, 1330etik aurrerako guztiak (Areatza, Gerrikaitz, Ugao...) bezala. XIV. mendeko krisialdi demografikoaren ondorioz (*“en el mio Señorío de Vizcaya ay muchas tierras que no son bien pobladas”* dio hiri-gutunak), dezente murriztu ziren aitonen semeen errentak, eta orduan, nekazariak presionatzen hasi ziren zegokiena ordaintzeko. Batzuk lapurretan ere hasi ziren. Horra zer dioen hiri-gutunak: *“los hixos dalgos e otros homes Poderosos e otrosi otros Lecayos e otrosi otros homes mal fechores se atreven a tomar e robar lo que fallan en las moradas que estan asi apartadas las unas de las otras...”*.

Arazo horiek konpontzeko, Uribe, Busturia eta Mungiako merindadeetako nekazariak hiru hiribildu fundatzeko baimena eskatu zioten Bizkaiko Jaunari: *“las dos de ellas en la merindad de Uribe, e la una en el Lugar donde dicen Munguía e la otra donde dicen Larrabezua, e la otra villa en la merindad de Busturia en el Lugar do dicen Regoitia porque ellos pudiesen y portar, e morar e ser guardados e defendidos e amparados a mi servicio e a pro de ellos, e otrosi a pro comunal de la mi tierra...”*.

Beraz, Larrabetzu, Errigoiti eta Mungia fundatzeko arrazoia ekonomikoa izan zen soziala baino gehiago, biztanleria babesteko sortu baitzituzten funtsean. Dena den, Larrabetzu Bilbotik Gernikara (1366) bitarteko merkataritza-bidean kokatu zuten, hain zuzen, bide hori indartzeko. Gainera,

biztanleei eta Bizkaiko Jaunari hiribildua indartzea komeni zitzaien bando-kideen etengabeko erasoaldietatik babesteko.

Hiru hiribildu horiekin bukatu zen, 1199an, Enkarterrietan Balmaseda sortu zutenean hasitako fundazio-prozesua. Beraz, Larrabetzu, Errigoiti eta Mungia



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

LARRABETZUREN KOKAPENA BILBOTIK GERNIKARA BITARTEKO BIDEAN

izan ziren Bizkaian fundatutako azken hiribilduak.

Agirietako datuen arabera ez dirudi Larrabetzu fundatzea erraza izan zenik. Iturrizaren *Historia del Señorío de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones* lanean jasotako hiri-gutunaren kopian data hau agertzen da: 1376ko abuztuaren 1a. Labayruren *Historia General del Señorío de Bizcaya* lanean, berriz, Larrabetzuko Udalaren artxibategian gordeta dagoen 1743ko beste kopia bat dago, eta agiriaren data 1377ko martxoaren 1a da. Ia urtebeteko aldea dago bien artean. Baina bi gutunak bat datoz honetan: hiribildu berriaren izena Villanueva de Berresnaga izango dela, Larrabetzutik kilometro batera dagoen auzoarena. Beraz, baliteke hiribildua lehenbizi auzo hartan fundatzea, eta gero, biztanle batzuek hara joan nahi ez zutenez, lekuz aldatzea, hau da, “berriro fundatzea”.

Jaurerrian demografi arazo larriak zituztenez, Mungia, Errigoiti eta Larrabetzuko hiri-gutunean aurrekoetan baino erraztasun handiagoak eman zituen Joan Infanteak, hiribilduek populatzaile-faltagatik porrot egin ez zezaten.

Jaunak honakoak zehaztu zituen, besteak beste: hiribildukoek ez zutela ate-saririk eta bidesaririk ordainduko, sei urtez ez zielo zergarik kobratuko eta jabeak hil ondoren hutsik geratutako orubeak denen artean banatu eta nekazaritzarako erabili ahal izango zituztela. Etxea ere ziurtatu zien eta, beharrezkoa izanez gero, inoren lurrak desjabetzeko eskubidea: *“que pueblen é vengán á morar a la dicha villa nueva de Berresonaga, e tomen Solares comprandolo á aquellos a cuió son agora las heredades, por precios convenidos...”*.

Ziur aski Berrezoagako orubeen jabeek ez zuten Bizkaiko Jaunaren azken xedapen hori gogo onez hartuko, eta agian horregatik eramango zuten hiribildua beste leku batera.

Ondorengo bi datuek ere hiribilduaren hasierako zailtasunen berri ematen dute: 1379an Bizkaiko Jaunak berretsi egin behar izan zuen hiribilduaren forua, eta horrekin batera, zigorrak ezarri zituen betetzen ez zutenentzat. 1393an eta 1411n berriro berretsi zuen⁵.

Gertakarien inguruko datu zehatzik ez dugun arren, pentsatzekoa da Berrezoagako bizilagun batzuek kontra egin zutelako fundatu zutela berriro hiribildua. Gerrikaitzen ere horixe bera gertatu zen: egiaztatuta dago hiribildua berez Munitibarren sortzekoa zela, baina inguruko elizetako nagusi zergalariak kontra egin zutelako fundatu zutela azkenik Gerrikaitzen.

Bizkaiko Jaunak bere zergapeko etxeen (1570eko kontaketa arabera 35) errentak eman zizkion hiribildu berriari, eta horiek osatu zuten hasierako udal-ogasuna. Gainerako hiribilduei bezala, lurralde-barrutia ere eman zien, biziraupena ziurtatzeko.

Hasierako barrutia egungoa baino handiagoa ei zen, baina leinuen (besteak beste Lezama, Butroe eta Abendañotarren) erasaldien ondorioz berehala murriztu zen.

Egia esan, Ahaide Nagusiak azkar asko hasi ziren Larrabetzuko bazterrak nahastan. 1440an, Zugastitarrek etxea erosi zuten hiribilduaren barruan bilauak hobeto kontrolatzeko.

Larrabetzuarrek, leinuen zuzeneko presioa ez ezik, leinuen arteko borroken ondorioak ere jasan zituzten, nahitaez jasan ere. Garcia de Salazarrek dioenez, 1430era arte Zugastitarren (inguruko leinu nagusiaren) eta Lezamatarren arteko borroken lekuko izan zen Larrabetzu. Kanpoko leinuek ere (Abendaño eta Butroetarrek) sarritan erabili zuten gudu-zelaitzat, eta jakina, borrokaldietan den-dena txikitzen zuten, hiriguneko eta inguruetakoko etxeak suntsituta geratzen ziren. Azkenik, 1447an Abendañotarrek hiribilduan sartu eta Zugastitarren etxea birrindu zuten; harrez gero, nagusiki alde batera utzi eta apalago ibili behar izan zuten.

XV. mendearen bigarren erdian giroa asko lasaitu zen hiribilduan, eta ondorioz, demografia hazi egin zen. Jaurerri osoan nagusi zen susperraldiak eta, Iturrizak dioenez, hiribilduko elizaren eraikuntzak ere izan zuten zerikusirik hazkunde horretan. Eliza berriak Goikoelexeako elizaren eta bertako nagusien, Zugastitarren, hamarren gehienak bereganatu zituen.

Larrabetzuren itxura fisikoa Erdi Aroan

Erdi Aroko Bizkaiko hiribilduen artean, Larrabetzuk du planorik sinpleenetakoa. Etxeak gaur egun bezala zeuden antolatuta, hau da, kale bakarraren inguruan, iparhego norabidean eta Bilbotik Gernikarako bidean.

Kalearen alde banatan zeuden etxeek ortuak zituzten atzealdean, familiakoak hornitzeko. Etxeak, ortua eta elizaren inguruan harresia eraiki zuten, hiribildukoak

Bizkaiko jauntxoek gehiegikerietatik babesteko.

XV. mendearen bukaeran eta XVI. mende osoan biztanleriak izandako hazkundearen ondorioz, demografi presio nabarmena sortu zen, eta barrualde jendez gainezka zegoenez, harresitik kanpo hasi ziren erakitzen.

Hiribildua, beharbada, XV. mendearen azken urteetan zabaldu zuten estreinakoz, ekialdetik, hain zuen. Etxebizitzen atzealdeko eremuaren eta ibaiaren artean etxe-ilara egin zuten, harresiaren eta lehengo etxeren artean kale berria sortuz. XVI. mendetik



aurrera, errebalak bidearen norabideari jarraiki eraiki zituzten: lehenengoa ipar-muturrean, oraingo Askatasunaren enparantzan. Gaur egun izen adierazgarria dauka kaleak: Errebale. Hiru mendez hiribilduaren egitura zegoen-zegoenean utzi ondoren, XIX. mendean beste errebal bat

egin zuten, hegoaldean, parrokiaren ondoran.

1514ko sute-gikontaktaren arabera, Larrabetzuk 111 zituen, beste batzuek (Ermua, Otxandio eta Areatzak) baino gehiago eta ia hiribildu garrantzitsuagoek (Gernika, Mungia, Ondarroa eta Portugaletek) adina⁶. Hiribildua hain estua izanda, hainbeste sute-gik arazoak sortuko zituzten ez bairik gabe. 1552ko Ordenantzetan xedatzen denez, debekatuta zegoen hiribilduko eta errebeleko etxeetako ganbara eta sotoetan jendea errentan hartzea, baldin eta gelek tximiniarik ez bazuten. Horrekin batera, hiribilduko harakinak hildako animalien hondakinak eta odola harresitik eta kaletik kanpo eraman behar zituen, *“a los extramuros de la dicha villa fuera de la calle”*, zikinkeriarik eta gaixotasunik ez hedatzeko. Izan ere, hiribildua ezin zen biztanleria bezain azkar hazi.

Hiribilduko eta errebeleko etxeak zurezkoak ei ziren, harria eskantzuetan eta behealdeetan baino ez zuten erabiltzen eta. Gainera, badirudi hurrengo mendeetan ere egitura berbera erabili zutela: 1830eko sutean zutik iraun zuen eraikin bakarra Andre Mariaren eliza, harrizkoa bera, izan zen. Aipatu ditugun 1552ko Ordenantzetan, halaber, debekatu egiten da simaurretarako ote zuria eta garoa etxeetan pilatzea, suaren ondoren arriskutsuak direlako. Bistakoa da, beraz, eraikinak zurezkoak zirela, eta ondorioz, kontu handiz ibili behar zutela ez erretzeko.

Larrabetzun bada garai hartako egitura-aren nondik norakoen berri ematen duen eraikin bat: Errebale kaleko 2. zenbakiko *“Palacios”* izenekoa. XVI. mendeko eraikin mistoa da: jauretxea eta baserria aldi berean. 1830eko suteak harresitik kanpo zegoelako ez zuen harrapatu.

Plano trinkoa eta zurezko etxeak zituen hiribildu txiki honek nekazaritza izan zuen beti ogibide nagusia. Bizkaiko hiribildu gehienetako jarduera bereizgarriak, hala

nola, merkataritza eta artisautza ez ziren inoiz garatu. Herritar gehienak nekazariak eta, neurri txikiagoan, abeltzainak ziren. Dena den, 1552ko Ordenantzetan harategiaren eta tabernen jarduna arautu zituztela kontuan hartuta, baziren bestelako bizibideak zituzten herritarrak ere, baina ziur

aski jarduera horiek nekazaritzaren osagarriak izango ziren. Bestalde, Ordenantzetan azoka, hiri-gutunean emandako eskubidea, ez da ezertarako ere aipatzen, seguruenez, astean behingo salerosketan ordez dendetako merkatu finkoa nagusitu zelako, kontsumoaren gorakadaren ondorioz.

Oharrak

1. Bizkaia: *Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. II. liburukia. Deustuko Unibertsitatea-Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1991, 231. or.
2. García de Cortázar, J.Á.: *El dominio de San Millán*. Iturria Barturen, J.: *Larrabezua: Historia y Patrimonio Monumental*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1993.
3. Hiri-gutuna ikusteko, Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea. Bilbo, 1968. II. liburukia. 845-848. orr.
4. Barturen, J.: *Larrabezua: Historia y Patrimonio Monumental*. Op. cit. 28-29. orr.
5. Hiribildua Berrozoogatik Larrabetzura eraman zutela dioen hipotesiaren berri izateko, ikus Barturen, J.: *Larrabezua. Historia y Patrimonio Monumental*. Op. cit. 30-32. orr.
6. García de Cortázar, J.Á.: *Vizcaya en el siglo XV*. BAK. Bilbo, 1966. 72. or.

Errigoiti

Fundazio-urtea: 1376

Fundatzailea: Joan Infantea, gerora Gaztelako Joan I.a izandakoa

Forua: Logroñoko Forua

Pribilegioen hartzaileak: Nekazariak

Kokapena: Gernika-Bermeo eskualdean, Madalen erreka-aren, Butroeren ibaiadarraren, ondoan

Kokalekua: Aldapa txiki batean

Altuera: 200 m

Biztanleak (2001): 485



Errigoiti izen bereko udalerrian dago, Oka eta Butroe ibaien arroen artean. Burgoa, Sollube, Bizkargi eta Arburuk osatutako mendigunea kokagune duen arren, ez da hain leku garaia. Mendi horietako askok profil koniko nabarmena dute. Hemengo haranetan, sakonak eta estuak izaki, eguzkiak ez du gehiegi jotzen, eta ondorioz, populazioak oro har hegoaldeko eremu garaiak aukeratu ditu bizitzeko. Horren adibide dugu, besteak beste, udalerriko auzorik adierazgarrienetakoa: Eleizalde. Bertan dago Andre Maria Idibaltzaga-koaren parrokia. Herriaren izenak berak argi adierazten du nolakoa den lurraldea: goialdekoa, altua.

Hiribildua, aitzitik, Madalen erreka-aren ertzeko bi eremu garaien artean dago, hain zuzen, erreka haran sakon eta ilunean murgiltzen hasten den gunearen ondo-ondoan.

Errigoiti Gernika-Bermeo eskualdearen mendebaldean dago, eta udalerrri hauek ditu mugakide: Arrieta eta Busturia (ipa-

rraldean), Gernika-Lumo, Forua eta Murueta (ekialdean), Muxika eta Morga (hegoaldean) eta Arrieta (mendebaldean). 15,9 km²-ko azalera du.

Ibaiei dagokienez, Okak Mundaka itsasadarrean isurtzen ditu urak (Oleta eta Mikiene errekek) eta Butroek Plentzia itsasadarrean (Atxaga, Madalen eta Otxolarre errekek). Gorbeia, Metxika eta Artola errekek Solluberraino, Okaren ibaiadarrerraino, heltzen dira.

Berezko baso hostozabal sarri (harizti, pagadi eta gaztainadi) gehienek ordez, azkar hazten diren espezieak (batez ere pinuak) landatu dituzte industriren premiak asetzeko.

Fundazioaren aurrekariak

Hiribildua fundatu aurreko mendeetan, oso biztanle-gune txikiak omen zeuden (batzuk han-hemenka sakabanatuta) Errigoiti aldean. Leku garaietan bizi ziren eta nekazaritza zuten bizibide.

XI. mendeko dokumentuetan Andre Maria Idibaltzagakoa eta beste hainbat biztanle-gune aipatzen dira. Jaurerriko eliza asko bezala, hasieran Errioxako abatetxe handi bati eman zioten: Donemiliaga Kukulako monasterioari. Baina XII. mendeko agirien arabera, Jaunaren edo bere basailuen esku zegoen berriro. Aipatzekoa da nobleek ematen zutela horrelako elizak mantentzeko dirua, familiaren jabetzatza eta, beraz, oinordetzan uzteko moduko ondasuntzat hartzen zituzten eta¹. Andre Maria Idibaltzagakoa erregearena zen, eta berak erabakitzen zuen nori zegokion elizaz zuzenean baliatzeko eskubidea.

Lehen aipatu ditugun biztanle-gune txikiak Andre Mariaren inguruan hasi zirenez kokatzen, eliza parrokien berezko zeregina betetzen hasi eta elizate bihurtu zen.

Hiribilduaren fundazioa

Errigoiti 1376ko abuztuaren 1ean fundatu zuten. Errigoitirekin batera, Larrabetzu eta Mungia fundatu zituzten bertatik bertara, hiri-gutun beraren bidez. Lehenago ere adierazi dugu zertarako fundatu zituen Joan Infanteak hiru hiribilduak: landa-eremuetako biztanleak aitoren semeen gehiegikerietatik babesteko. Izan ere, aitoren semeak elkarren kontrako borroketan zeuden murgildurik, XIV. mendean Jaurerria jasaten ari zen krisialdi gogorra zela eta².


Krisialdi demografiko eta ekonomikoaren ondorioz, aitoren semeak askoz ere errenta gutxiago hasi ziren biltzen, eta babesik gutxien zutenak, nekazariak, gehiago presionatzeari ekin zioten, lehen beste irabazi ahal izateko. Horra zer dioen hirigutunak: *“los hixos dalgos e otros homes Poderosos e otrosi otros Lecayos e otrosi otros homes mal fechores se atreven a tomar e robar lo que fallan en las moradas que estan asi apartadas las unas de las otras...”*³. Baserrietan lapurretak erruz ugaritu ziren eta Lurralde Irekiko biztanleak, gorriak ikusten ari zirenez, babesteko eskatu behar izan zioten Jaunari. Hiri-

gutunean aipatzen da hori guztia ere, hots, Uribe, Busturia eta Mungia merindadeetako nekazariak Joan Infantearengana babes bila joan eta hiru hiribildu fundatzeko eskatu ziotela: *“las dos de ellas en la merindad de Uribe, e la una en el Lugar donde dicen Munguía e la otra donde dicen Larrabezua, e la otra villa en la merindad de Busturia en el Lugar do dicen Regoitia porque ellos pudiesen y portar, e morar e ser guaridados e defendidos e amparados a mi servizío e a pro de ellos, e otrosi a pro comunal de la mi tierra...”*.

Sakabanatuta eta inolako babesik gabe bizi zen biztanleria babesteko sortu zuten Errigoiti (*“en el mi Señorío de Vizcaya hay muchas tierras que no son vien pobladas, é estan las casas apartadas unas de otras, lo cual es aina ocasión porque los hijos dalgo e otros poderosos, é otros algunos Lacayos, é otros homes malfechores se atreven a tomar, é robar lo que fallan en las moradas que están así apartadas las unas de las otras...”*); arrazoi nagusia soziala izan zen, beraz, eta ez ekonomikoa.

Baina hiribildua fundatu arren, arazoak ez ziren konpondu. Aitzitik, bando-kideen arteko borroka gogorra bertara ere heldu zen, eta Errigoitikoek Muxikatarren alde egin behar izan zuten. Muxikatarrak Oinaztarren bandokoak ziren, Ganboatarren etsai amorratuak, hortaz.

Jaurerriko beste hiribildu batzuek ere jardun zuten bando-kideen arteko borroketan. Hiribilduetako biztanleek, gatazka horretan nahi gabe sartzeaz gain, hirigunetakoei zegozkien eskubideei muzin egin zieten nobleen zuzeneko presioa ere jasan behar izan zuten. Horrela, XV. mendean, Trebiñoko Kondea eta Bizkaiko zenbait Ahaide Nagusi Errigoitin, Bermeon, Lekeition eta beste hiribildu batzuetan zergak ezartzen saiatu ziren. Hiribilduetako biztanleak, hiri-gutunari esker, ate-sariak, bide-sariak eta beste hainbat zerga ordaintzeko betebeharetik aske zeudenez, Joan Erregearengana jo zuten babes-eske, eta hark 1464an Errege Zedula igorri zien Biz-



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

kaiko Mailegari Nagusiari; kontzeju, alkate, preboste eta merioei; bestelako agintariei eta Ahaide Nagusiei: gehiegikeriak bertan behera uzteko agindu zien⁴.

Errigoitiarrek inguruko landa-eremueta-koek ez bezalako pribilegioak eskuratu zituzten hiri-gutunaren bidez: lehenik eta behin, Logroñoeko Forua. Baina foru hori hiribilduen behar guztiak arautzeko gai ez zela ikusita, azkenei, hau da, Ugao, Larrabetzu, Mungia eta Errigoitiri, Alcalako Ordenamendua ere eman zien Jaunak, auzi zibilak eta kriminalak ebasteko gaitasuna izan zezaten⁵.

Logroñoeko Forua eta Alcalako Ordenamendua ez ezik, lurralde-barrutia ere hartu zuten: *“de como comienza en Apratiz, é dende por los camino al monte de Apratiz, é dende por el camino que ba a Sotrai, é dende a Arduxan, é dende por el camino que ba por el arroyo de Albi-xiaga, é dende a Landaguren, é dende a Meazeta, é dende a la ferrería de Morga que se ajunta con el término de la Villa de Berresonaga, é den-*

de fasta Apratiza, como parte con el término de Guernica con todos los montes...”. Morgako burdinolan Larrabetzurekin –Berresonaga– eta Gernikarekin egiten zuen muga. Hiri-gutunean honako zehaztapena ere egiten da: hiribilduari utzitako lurak lehengo jabeenak izaten jarraituko dutela. Horrek argi erakusten du fundazioaren helburua populazioa, eta ez gizartea, antolatzea zela⁶.

Bizkaiko Jaunak, gune berriak behar bezala populatzeko, hiri-gutunaren bidez sortutako hiribilduetara eta Bizkaiko Jaurreriko gainerakoetara joateko eskubidea aitortu zien horien jurisdikzioko lurretatik kanpo bizi ziren Oribe, Busturia eta Markinako merindadeetako nekazariei: *“que todos los labradores de las merindades de Oribe, e de Busturia e de Marquina que están fuera de los términos que yo do a estas dichas villas, que entren vecinos en algunas de estas dichas villas que yo mando poblar e en otra cualquiera villa del mi Señorío de Vizcaya do ellos más se paga-*

ren...". Hori berebiziko aldaketa izan zen, ordura arteko jokabidea kontuan hartuta: Ondarroan nekazari jakin batzuei baino ez zien aitortu hiribilduan bizitzeko eskubidea, Areatzara bizitzera joandako nekaza-



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

ERRIGOITI HIRIAK, MUNGIAREN ETA GERNIKAREN ARTEAN EGONIK ERE, EZ ZUEN BITARTEKARI EGINKIZUNIK BETE BI HORIEN ARTEAN

riek ez zuten lehengo izaera juridikoa galdu eta Markina eta Elorrioko hiri-gutunetan debekatu egin zitzairen hiribilduan bizitzea. Ugaon, Larrabetzun, Mungian eta Errigoitin kontrakoa gertatu zen, ostera, nekazariak hiribildu berrietara eta Jaurerriko gainekoetara eramaten saiatu baitzen Jauna, seguruenik orduko gizarte-egoera larriaren eraginez. Joan Infantea nekazariari hiribilduetan bizitzeko eragozpenak zokoratzen eta eskuzabaltasun handiagoz jokatzeko hasi zen⁷.

Jaunak harresia eraikitzeke agindu zien biztanleei hiribildua babesteko, eta lan horren ezaugarri eta luzerari buruzko erabakia "gizon onen" esku utzi zuen. Errigoitiarrei sei urtez zergak kentzea erabaki zuen, batetik, harresia eraikitzeke beste diru izan zezaten, eta bestetik, hiribildura biztanle gehiago joan zitezten. Orubeen prezioak jabeekin berbatzeko ere agindu zien.

Hiribildua Erdi Aroan

Biztanleak bando-kideen mehatxuetatik babesteko sortu zuten Errigoiti, eta gerora ere helburu horren mugen menpe egon zen. XV. mendean, bando-kideen arteko borrokaldirak baretu ahala, harresia oztopo bihurtu zen: biztanle gehienak nekazariak zirenez, ez zen batere eroso izango lurretatik urrutiti bizitzea. Hiri-gutunean astero merkataria egiteko eskubidea aitortu zien Jaunak (eguna zehaztu gabe), baina alferrikakoa zen horretan hasia, merkataritza-fluxu nagusietatik urrun zeuden eta. Ildo horretan, ez dugu ahaztu behar Errigoiti Mungiatik Gernikarako bidean dagoen arren, hori ez zela izan ez hiribildua fundatzeko arrazoia, ez gerora garatzeko oinarria. Jaurerriko beste hiribildu batzuetan ez bezala, biztanleria hazten hasi zenean, asko landa-eremuetara joan ziren bizitzera. Mendez mende, hiri-ezaugarriak galdu eta baserriguneen itxura hartu zuen Errigoitik, bertatik hurbil dauden Elexalde eta Metxikaren antzera. Errigoitiarren bizibide nagusia larre-mendien ustiapena izan zen, eta hala xe da gaur egun ere.

Aldaketak gorabehera, errigoitiarrek ez dute ahaztu garai batean hiribildu izan zirela, gaur egun horrek esanahi handirik ez duen arren.

Errigoiti, benetan, berezitasun juridiko (aipatu ditugu jadanik) eta fisiko jakin batzuez hornitutako baserri-gunea izan zen hasiera-hasieratik. Baina izatez hiribildua zenez, bertako planoak ez zen landa-eremuetakoen modukoa: hobeto antolatuta zegoen, baina ez zuen inolako zerikusirik hiribildu handiagoenarekin. Errigoitik 1,1 hektarea zituen, eta Jaurerriko hiribildurik txikienetakoa zen, Larrabetzuren eta Ermuaren ondoren.

Hiribildua Andre Maria Idibaltzagakoaren elizaren lurretan sortu zuten, Busturriako Merindadean. Madalen erreka eta elizaren muinoaren –Elexalde auzoa– artean dagoen malda txikia aukeratu zuten. Etxe-



Errigoiti baserri-auzo itxurarik handiena duen Bizkaiko hiribildua da. Inguruko landa-eremuetatik (baserri sakabanatuak dira nagusi) ongi bereizitako etxe-multzoa duen arren, ez ditu hiribilduen elementu bereizgarri batzuk: adibidez, mehelindun hiri-etxeak. Ez da Jaurerriko beste udalerri batzuk bezain trinkoa. Esate baterako Larrabetzuk, txikia izan arren, askoz ere ezaugarri hiritar gehiago ditu.

ERRIGOITIKO IKUSPEGIA (EZKERREAN)
ETA LARRABETZU (BEHEAN)



en kokapena ikusita, badirudi hasieran bi kale zeudela, baina hori ez da ziurra, agian bakarra baino ez zuten izango eta. Kaleen amaieran eremu irekia dago egun, baina ziur aski Erdi Aroan ez zen horrelakorik egongo⁸. Kaleek zazpi oinkadako zabalera dute (Bizkaiko hiribildurik zabalenetakoa da), eta pasabide ugari daude batetik bestera joateko. Berez ez dira kantoiak, ez zituztelako kaleak lotzeko sortu; pasabideak dira, hau da, etxeen sakabanaketaren ondorioz sortutako igarolekuak. Izan ere, Errigoitiko etxeen egitura eta kokapena ez datoz Erdi Aroko hiri-guneetako ohikoekin bat. Hiribilduetako etxeak estuak ziren eta elkarri atxikita zeuden, erdian mehelina zutela. Denboraren poderioz, Errigoitiren egitura asko aldatuko zen beharbada, baina

ziur aski etxeak landa-eremuetakoen antzekoak izango ziren hasieratik.

Errigoiti fundatu bezain laster, harresia eraiki zuten kaleen inguruan, hiribilduak berez zegokion funtzioa bete zezan. Harresiaren aztarnarik ez dagoen arren, Gernikatik Olaberriarako bidearen eta etxeen artean dagoen hormak kokagunearen berri ematen digu. Hiribilduaren ekialdean eta mendebaldean, kaleen amaieran, ate bana egongo zen ziur aski.

Andre Maria Idibaltzagakoa, hiribildua fundatu aurretik bertan zegoen eliza, izan zen Errigoitiko parrokia. Jatorrizko eliza erromanikoaren orde, gaur egungo eraikin errenazentista egin zuten, baina horrek ere aldaketa handiak izan zituen XIX. mendean.

Oharrak

1. Gaiari buruzko xehetasunak ikusi: Arizaga, B.; García de Cortázar, J.Á.; Ríos, M.L. eta del Val, I.: *Vizcaya en la Edad Media*. Haramburu, Donostia, 1985, I. lib., 51-124. orr.
2. Hiribilduaren sorrera eta sortzeko arrazoiak sakon lantzen dira lan honetan: Pérez Goikoetxea, E.: *Estudio histórico-artístico de la villa de Rigoitia*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1993.
3. Ikus Iturriza y Zabala, J.R.: *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Edición Rodríguez Herrero. Librería Arturo argitaletxea. Bilbo, 1967. II. lib., 281-285 orr.
4. Iturriza y Zabala, J.R.: *Historia General...* Op. cit. II. lib., 138. or. eta hurr.
5. Ikus García de Cortázar, J.Á.: "Las villas vizcaínas como formas ordenadoras del poblamiento y la población". *Las formas del poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1978, 76. or.
6. Ikus Pérez Goikoetxea, E.: *Estudio histórico-artístico de la villa de Rigoitia*. Op. cit. 30. or.
7. Ikus García de Cortázar, J.Á.: "Las villas vizcaínas como formas ordenadoras..." Op. cit. 85-86. orr.
8. Hiribilduaren antolamendu fisikoa ezagutzeko, ikus Pérez Goikoetxea, E.: *Estudio histórico-artístico de la villa de Rigoitia*. Op. cit. 135-137. orr.

*Errigoitiko argazkiak lan honetatik hartu ditugu: Pérez Goikoetxea, E.: *Estudio histórico-artístico de la villa de Rigoitia*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1993.